

# HIZKUNTZA-OHITURA ALDAKETAK

---

*HIZNET* HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA  
2014-2015

Asmoz Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea



**Egilea:** Amets Menika

**Tutorea:** Nerea Gonzalez (Ttakun elkarte)

<b>0. SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>1. OHITURAK ETA OHITURA ALDAKETAK.....</b>	<b>5</b>
1.1 Ohitura kontzeptua eta William James.....	5
1.2 Pertsuasioa.....	7
1.2.1 <i>Nola bihurtu mezu bat eraginkor?</i>	
1.2.2 <i>Hautemate soziala</i>	
1.2.3 <i>Mezuen tipologia eta edukia</i>	
1.2.4 <i>Pertsuasioarekiko erresistentzia</i>	
1.2.5 <i>Pertsuasioaren efektuen iraupena</i>	
1.3 Behin jarrera aldatuta, nola justifikatu geure burua?.....	15
1.3.1 <i>Disonantzia kognitiboaren teoria</i>	
1.4 Ohitura aldatetekin amaitzeko.....	17
<b>2. HIZKUNTZA-OHITURA ALDAKETAK.....</b>	<b>19</b>
2.1 Hizkuntza-ohitura aldateten norabideak.....	20
2.2 Gazteleratik euskararako bidaia.....	22
2.2.1 <i>Printzipioak</i>	
2.2.2 <i>Energia iturriak</i>	
2.2.3 <i>Errendimendua</i>	
2.2.4 <i>Borroka egoerak</i>	
2.2.5 <i>Entrenamendua</i>	
2.2.6 <i>Aitzakien TOPa</i>	
2.2.7 <i>Euskara guaya da!</i>	
2.2.8 <i>Hizkuntza-ohiturak aldatzen. Azken txanpa</i>	
<b>3. EMUN. Zer egin...?.....</b>	<b>38</b>
3.1 Motibazio tailerrak.....	38
3.2 Zer egin...?.....	40

<b>4. TRIBUAREN BERBAK.....</b>	<b>46</b>
4.1 Euskararen tamaina.....	46
4.2 Urte berri, asmo berri.....	47
4.3 Zergatik da garrantzitsua euskara?.....	48
4.4 Euskara ikasteko hamaika bide.....	49
4.5 Eredu ere bagarelako.....	51
<b>5. KASU ERREALAK AZTERTZEN.....</b>	<b>53</b>
5.1 Elkarrizketen helburua eta metodologia.....	54
5.2 Elkarrizketak banan-banan.....	56
5.2.1 <i>Miriam</i>	
5.2.2 <i>Iraitz</i>	
5.2.3 <i>Rafa</i>	
5.2.4 <i>Victoria</i>	
5.3 Elkarrizketen inguruko hausnarketa.....	68
<b>6. ONDORIOAK.....</b>	<b>74</b>
<b>7. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>79</b>

## 0. SARRERA

---

Esku artean duzun lan hau hizkuntza-ohituren aldaketen ingurukoa da. Hizkuntza-ohitura aldaketez jakin nahi dutenei zuzenduta egoteaz gain, hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituztenei zuzenduta ere badago. Izan ere, lanean zehar, hizkuntza-ohiturak aldatzeko bideari ekiten diogunean jarraitu beharreko pausuez hitz egiten da. Beraz, hizkuntza-ohiturak aldatzeko gogoia izan baina nola ekin ez dakienari, oso lagungarria suerta dakiok honako lan hau. Jarraitu beharreko pausuk ezagutuko ditu, baina baita aurrera egiteko motibazioak ere. Gainera, bere bidea beste bidaiari batekin batera egin ahal izango du. Bidaiari horrek Karmelo Ayesta du izena. *Gozatu daiteke gehiago: euskaldun baten hizkuntza-bidaia (2014)* liburuaren idazleak, bere esperientzia kontatzen digu bere lanean eta gure bidaiari beharrezko ditugun tresna guztiak errazten dizkigu.

Dena dela, hizkuntza-ohituretan zentratu baino lehen, ohiturez hitz egingo dugu orokorrean eta ohitura horiek aldatzeak guretzako suposatzen duenaz. Informazio horri esker, errazago ulertuko ditugu gero hizkuntza-ohitura aldaketak. Teoriaz gain, atal praktikoa ere aurki daiteke lan honetan. Izan ere, beharrezkoa da teoria kasu errealean bidez kontrastatzea. Horregatik, kasu eta esperientzia konkretuak ikusiko ditugu, aipatutako teoria hitz huts edo errealitate den baieztatzeko.

Lan honen helburua Euskal Herrian bizi dugun egoera diglosiko honetan hizkuntza-ohitura aldaketak nola ematen diren ezagutzea da. Oso garrantzitsua da aldaketa horiek ematen diren kontestuan kokatzea, gure hizkuntza hizkuntza gutxitua, zapaldua, kritikatu eta gutxietsia den heinean. Horrek, zalantzarik gabe, ondorio inportanteak ditu jendearen hizkuntza hautuetan. Beraz, ohitura aldaketetan positiboki eta negatiboki eragiten duten faktoreak mahaigaineratzen saiatuko gara.

Izan ere, inork ezin dezake ukatu hemen bizi dugun egoera guztiz konplexua dela. Euskaratik erdarara pasatzea edota erdaratik euskarara igarotzea ez da arbitrarioki egindako aukera xume bat, baizik eta hainbat faktorek eragindako hautu bat. Gainera, pertsonaren adina, bizi izan den garaia, inguruko hizkuntza eta bestelako kontu asko izan behar dira kontutan kasu konkretu bat aztertzean.

Hizkuntza-ohitura aldaketa, bestalde, norbere bizitzaren arlo guztietara hedatzen den zerbait edota bizitzako eremu edo ingurune konkretu batean ematen den aldaketa izan daiteke. Ikus dezakegunez, hizkuntza-ohiturak eta horien aldaketak ikuspuntu desberdinetatik azter ditzakegu. Hori da, hain zuzen ere, lan honetan egiten saiatuko gara.

Helburu hori lan osoan zehar oso presente izaten ahaleginduko gara. Nagusiki, hizkuntza-ohitura aldaketa horiek bizi dugun errealitatearekin duten lotura. Izan ere, ezinbestekoa da aldaketa horiek beraien kontestuan kokatzea, testuinguru horrek ematen baitie izateko arrazoia.

Baina dagoeneko esan bezala, kontu horietaz gain, beste gai batzuen inguruan ere arituko gara. Hori bai, dena hizkuntza-ohituren inguruko gure ezagutza handitzeko asmoz. Esaterako, gure hizkuntza-ohiturekin eroso senti gaitezen EMUN kooperatibak sortutako tailerrez hitz egingo dugu, eta baita euskara oinarrian duen *Tribuaren Berbak* saioaz ere. Horrelako kontuez mintzatzeak oharkabean barneratu ditugun hainbat ideia faltsu, aurreiritzi eta konplexu alde batera uztea ahalbidetuko digu. Azken finean, guri interesatzen zaiguna gure bidaian gure motxilak ahalik eta pisu gutxien izatea da.

Lehenago esan bezala, ezinbestekoa da teoria errealtatearekin alderatzea. Hori dela eta, hainbat elkarrizketa egin eta bildu ditugu lan honetan. Helburua esperientzia konkretuak ezagutzea izan da, egoera eta baldintza guztiz desberdinak dituzten pertsonak aukeratuz elkarrizketak egiteko. Horrela, teorian irakurritako hainbat kontu errealtate bihurtzen ikusi ahal izan ditugu eta, are gehiago, hainbat aitzaki eta aurreiritzi baliogabetzea posible izan zaigu. Elkarrizketa osoak aurkitu ahal izango dituzu lan honetan, izan ere, hori izan da ondorengo hausnarketarako erabilitako materiala.

Bestalde, lan hau egin bitartean, hainbat galdera egon dira airean. Hizkuntza-ohitura aldaketen inguruan ikertzen hasi baino lehen bururatutako galderak, alegia: *Zer dira hizkuntza-ohiturak? Nola gureganatzen ditugu? Zein esanahi dute guretzat? Gure identitatearen parte al dira? Aldatzea posible al da? Zein kasutan da errazago aldatzea? Zein kasutan agertzen dira oztopo gehien? Zeintzuk dira oztopo horiek? Nola gainditu ditzakegu? Zein dira, bestalde, aldaketa hauetan laguntzen gaituzten faktoreak? Zerk bultzatzen gaitu aldaketa horiek egitera? Nola aldatzen gaitu aldaketa horiek egiteak? Gure identitatea aldatzen al da? Zeintzuk dira hizkuntza-ohiturak aldatzera garamatzaten motibazioak?*

*Brainstorming* hori behin baino gehiagotan agertuko da lanean zehar eta gutxinaka-gutxinaka galdera guzti horiei erantzunak ematen joango gara.

Amaitzeko eta laburbilduz, lan honetan hizkuntza-ohitura aldaketen inguruko hainbat informazio aurkitu ahal izango duzu. Lehenik eta behin, ohitura eta ohitura aldaketen inguruan mintzatuko gara, gerora informazio hori hizkuntza-ohitura aldaketei loturik ulertzeko. Ondoren, Karmelo Ayestaren bidailagun izango gara, hizkuntza-ohitura aldaketa prozesu errealean bat jarraitu eta ulertzeko. Gainera, euskararen inguruko hainbat aurreiritzi eta konplexu deuseztatuko ditugu, gure bidaian ahalik eta pisu gutxien eramateko. Horretarako, EMUN kooperatiba eta *Tribuaren berbak* saioa oinarritzat hartuko ditugu geure buruarekiko konfiantza berreskuratzeko.

Teoria alde batera utzita, kasu errealeak aztertzeari ekingo diogu ondoren. Lau elkarrizketa aztertuko ditugu lehenago esandako guztia frogatze aldera. Bestalde, esperientzia horien inguruko hausnarketa egingo dugu. Bukatzeko, lan honen ondorio orokorrez hitz egingo dugu azken atalean.

Elkarrizketez gain lan hau sortzeko erabilitako materiala, bai liburu, artikulua, liburuxka edo web orriak, lanean bertan aurkitu ahal izango dituzu, bibliografian aitortuak. Besterik gabe, ekin diezaiogun lanari.


# 1. OHITURAK ETA OHITURA ALDAKETAK

## 1.1 *Ohitura* kontzeptua eta William James

Lan honen oinarrian hizkuntza-ohiturak ditugun arren, azter dezagun lehenengo bere hortan *ohitura* kontzeptua eta kontzeptu honi lotutako zenbait kontu. Azalpen horien ondoren, errazagoa egingo zaigu hizkuntza-ohiturak guztiz ulertzea.

*Ohitura* denoi ezaguna egiten zaigun hitza da, zalantzarik gabe, izan ere, guztion bizitzetan oso paper garrantzitsua jokatzen dute ohiturek. Baina zer da zehazki *ohitura* edo *aztura* bat? Psikologian izen hori ematen zaie **persona edo animalia batek denboran zehar burutzen dituen portaera-ekintza errepikakorrei eta hauek, dirudienez, ikaskuntzaz barneratzen ditugu. Ohiturak, denok dakigun bezala, gizatalde bateko kide garen heinean izan ditzakegu, beste gizatalde batzuek bereizten gaituzten jarrerak edo jokatzeo erak gureganatuz. Bestalde, ohiturak norbanakoarenak ere izan daitezke, indibiduo garen heinean besteengandik desberdintzen gaituzten jarrerak ditugunean. Hala ere, **taldeko edo norbanakoaren ohiturak** izanda ere, jarrera horiek jarrera ikasiak dira. Arrazoiketa oso txikiak, edo gabe zuzenean, egiten ditugun gauzak dira. Dena dela, horrek ez du esan nahi berezkoak direnik. Inor ez da ohitura horiekin jaiotzen, ikasi eta gureganatu egiten ditugu.**

Pertsonok uneoro egokitzen ditugu gure izaera eta jokabideak ingurutik jasotzen ditugun eraginaren ondorioz. Etxean, eskolan, lanean, lagunekin eta gure inguruan dauzkagun elementu guztiekin gure identitatea sortzen dugu, gure bizitzeko modua. Horrela, gure sinismen eta baloreen sistema eraikitzen dugu. Horrek bizitzaren aurrean izango dugun jarrera eta gizartean jokatuko dugun rola definituko ditu, egoera eta ekintza orotan presente egongo dena eta inguruko estimuluen eraginez aldatua izan daitekeena. Gure balore, ideia, sentimendu eta esperientzia gogoangarriek definitzen dituzte gure ohiturak. Hortaz, esan dezakegu ohiturak sortuak direla eta ez herentziaz jasotakoak. Behar bihurtu daitezke, gainera, eta ekintza automatizatuak burutzera eraman gaitzakete.



Orain arte azaldutakori erreparatuz gero, ohiturak aldatzea posible dela ondoriozta dezakegu dudarik gabe. Baina erraza al da hain barneratuta dauzkagun jarrera horiek bapatean aldatzea? XX. mendearen hasieran, psikologia modernoaren sortzailetariko bat eta korrante filosofiko moduan pragmatismoaren hedatzaileetako bat izan zen William Jamesek<sup>1</sup> (1842-1910) "Habit"<sup>2</sup> artikulua idatzi zuen. Bertan giza-garunaren malgutasunaren ideia garatu eta honek gizakion eta animalien jarreretan duen eragina aztertu zuen.

Williamen iritziz, eta lan honetan orain arte aipatutakoa osatuz, bi ohitura mota daude. Alde batetik berezkoak eta naturak emanak direnak egongo lirarteke, sena deitzen duguna, alegia. Espezietan oso errotuta dauden ohiturak direla dio autore honek, baina ohiturak izaten jarraitzen dutela, hala ere. Bigarren taldea hemen lehenago aipatutako ikasi eta gureganatutako ohiturek osatuko lukete. Williamsen ustetan, gizakiok bigarren talde horretan jartzen dugu interesa nagusiki, arrazoitzeko gaitasunarekin oso lotuta dagoelako.

Ohiturek oso paper garrantzitsua jokutzen dute pertsonon egunerokoan. Izan ere, emaitza jakin bat lortzeko eman beharreko pausuak sinplifikatzen dituzte. Pausu horiek zehatzagoak bihurtzen dituzte eta nekea aurrezten digute. Aldi berean, ekintza horien gauzatzeari eskaintzen diegun atentzio kontzientea gutxitzen dute, jokabideak automatizatuz eta erraztuz. Gureganatutako ohiturak alde batera uzteko edo aldatzeko aukeraz ere hitz egiten du autore honek, baita kontzienteki ohitura berriak gure egiteko posibilitateaz ere.

Williamentzat, kanpoko eraginek dagoeneko badauzkagun ohiturak sendotzen dituzte edo aztura berriak sortzea dakarte. Eragin horiek, beraz, gure garunaren estruktura eta funtzionamendua egokitzen dituzte. Hau da berak garunaren plastikotasun deitzen duen horren zentzu osoa. Baina zer da beharrezkoa egokitzapen hori emateko? Jamesek hiru puntu hauetan oinarritzen du aldaketa.

**1. Determinazioa:** Ohitura berri bat gureganatzeko edo dagoeneko gureganatuta dugun bat alde batera uzteko, ahalik eta determinazio handiena izan behar dugu. Gogotsu ekin behar diogu eta helburura iristen lagunduko diguten zirkunstantziak kateatu behar ditugu. Gure bide berria bideratuko duen kontestu bat sortu behar dugu eta gure ohitura zaharretara bultzatuko gaituzten egoerak ekidin. Gure erabakia behar beste laguntzekin inguratu behar dugu. Gure ohitura zaharretatik aldentzen garen egun bakoitzak norabide berrian jarraitzeko indarrak emango dizkigu.

**2. Diziplina:** Ezin diezaiokegu salbuespenik onartu gure buruari ohitura berria benetan gureganatu dugun arte. Atzera emandako pausu batek aurrera emandako asko desegin ditzake. Prozesuaren jarraipen eta erregulartasuna da gakoa ohitura guregan automatizatzea lortu ahal izateko. Desio bat elikatzen ez badugu, uste baino azkarrago hiltzen da gosez.

**3. Motibazioa:** Eskaintzen zaizkigun aukera guztiak aprobetxatu behar ditugu gureganatu nahi dugun hori praktikan jartzeko. Hasieran, ohitura hori garatzea baino, gure

---

<sup>1</sup> William James (New York, AEB, 1842 - Chocorua, New Hampshire, AEB, 1910) Estatu Batuetako filosofo eta psikologoa izan zen. Henry James idazlearen anaia zen.

<sup>2</sup> James, William, 1842-1910: Habit, (New York, H. Holt and company, 1914)

barnean erreakzioak sortzea da helburua, gure garunari jarrera berria helaraziko dioten ebazpen eta xedeak sortzea.

Hiru puntu hauek, nahiz eta Williamsek duela mende bat proposatu zituen, egun ere oso kontutan hartzen dira ohitura aldaketak aztertzerakoan. Inork ez du zalantzan jartzen determinazioa, diziplina eta motibazioa erabakigarriak direla gure bizitzako edozein arlo aldatzeko momentuan. Esan gabe doa beti ez dela erraza norabide berriari eustea, ordura arte guztiz gureganatuta izandako jarrerak alde horretarantz tiratzen baikaituzte. Baina gure garuna ohitura berri horietara egokitzea lortzen badugu, guk uste baino azkarrago ohituko dela ikusiko dugu.

Burura datorkigun beste galdera bat aldaketa hori gauzatzeko behar izango dugun denbora zein den da. Badirudi Williamsek horri ere eratzuna eman ziola. Bere iritziz, hiru aste (21 egun) beharrezkoak dira ohitura berri bat guztiz gureganatzeko. Beraz, ematen du uste duguna baino errazagoa dela ohiturak aldatzea eta uste baino azkarrago egiteko gai garela. Berri honak hauek, zalantzarik gabe.

Williams alde batera utzita, hurrengo lerroetan ohitura aldaketen gainean hitz egiten jarraituko dugu. Orain arte ohitura aldaketen inguruan aritzean, ohitura aldaketa hori norberak hartutako erabaki moduan ikusi dugu nagusiki. Dena dela, argi dago hori ez dela horrela kasu askotan. Momentu honetan ezinbestekoa iruditzen zait Euskal Herrian bizi dugun errealitateari erreferentzia egitea. Izan ere, gure gizartean argi ikusten da hartzen ditugun erabakietako asko gure inguruak eragindakoak direla, ez baikara gizarte guztiz aske batean bizi. Gure eskubideak ez dira errespetatzen eta horrek ohitura aldaketa asko eragiten ditu, bai zapaltzen gaituen botere horri kontra egitearren, bai bere menpe geratzearren. Dena dela, beranduago bueltatuko gara gai honetara.


## 1.2 Pertsuasioa

Lehenago aipatutakora bueltatuz, pertsonok dauzkagun ohiturak kanpotik barrurako norabidea jarraitzen dutelako ideia, alegia, honako galdera hau planteatzea zilegi da: nondik datoz denborarekin gure egiten ditugun sinismen eta ideia horiek? Nola barneratzen ditugu hainbeste gure direla pentsatzera iristeraino? Zein interes daude horren atzean?

Gizarte psikologiak lan handia egin du mezu pertsuasiboen dinamika ulertu ahal izateko. Prozesu horretan eragiten duten elementu garrantzitsuak identifikatzea ere inportantea izan da, baita pertsuasioaren aurrean agertzen den erresistentzia aztertzea ere. Argi dago jarrerak aldatzeko modu garrantzitsu eta hedatuena komunikazioarean bidez egiten dena dela. Gure bizitza mezuz inguraturik pasatzen dugu. Gomendioak, eskaerak, aginduak, erreguak eta bestelako mezu asko jasotzen ditugu gure familiarengandik, lagunengandik, lankideengandik, hedabideetatik, politikoengandik, agintariengandik eta jarrera konkretu batzuk izan eta beste batzuk alde batera utz ditzagun nahi duten bestelako erakundeetatik. Ekoizleek haien produktuak ezagutzera emateko duten modua, osasun zerbitzuek jokaera arriskutsuak izan daitezkeenak ekiditeko duten modua, eta politikariek herritarron botoa lortzeko duten modua mezu pertsuasiboen bitartez izan ohi da.



Dena dela, mezu pertsuasibo guztiak ez dira arrakastatsuak. Badago jendea erretzen jarraitzen duena Osasun Ministeritzaren gomendioak desobedituz, badago jendea alkohola edan ostean gidatzen duena debekatuta egon arren, eta badaude politikariak hauteskunde kanpaina dirutza bat gastatu ostean porrot egiten dutenak. Beraz, zerk eragiten du mezu bat arrakastatsua izatea? Zein mezuk lortzen dute benetan ohituren aldaketa bat gauzatzea?



### 1.2.1 Nola bihurtu mezu bat eraginkor?

Carl I. Hovland (1912-1961) eta beste psikologo batzuk Yale unibertsitatean egindako ikerketetan<sup>3</sup>, mezu batek jarrera bat aldatzeko, lehenengo, mezu horren hartzailearen pentsamendu eta sinismenak aldatu behar dituela ondorioztatu zuten. Ikertzaile hauen ustetan, sinismenen aldaketa hau ematea posible izango da hartzaileak jasotzen dituen ideiak bere ideiangandik aldentzen direnean eta, gainera, estimuluren batekin doazenean. Hartzaileak mezuen inguruko hausnarketa egingo du eta ulertzen baditu eta egokiak eta interesgarriak iruditzen bazaizkio, onartu egingo ditu. Ez bada horrela, baztertu egingo ditu.

Horrela, pertsuasio prozesua etapa desberdinen multzo bat da, etapa horietako bakoitzean elementu gako batzuk daudelarik. Mezu pertsuasibo baten eraginkortasuna ondorengo lau puntu hauetan oinarritzen da:

**1. Iturria:** Nor da mezuaren igorlea, bere esperientzia, zintzotasuna, erakargarritasuna, boterea, hartzailearekiko antzekotasuna.

**2. Edukia:** Argudioen kalitatea, antolaketa, argitasuna, emozionala edo arrazionala den, estimuluak.

**3. Kanala:** bisuala, entzumenezkoa, zuzena, zeharkakoa.

---

<sup>3</sup> Hovland y cols., 1949, 1953; Hovland y Janis, 1959

#### 4. Kontestua: Serioa, lasaia, atsegina, desatsegina, distrazioak.

Lau elementu hauen eragina neurtzeko, kontutan izan behar ditugu ere hartzailearen adina, hezkuntza, autoestimua, sinismenak, pertsuasioarekiko jarrera eta bestelako faktoreak.

Imagina dezagun, esaterako, oso argudio konplexu eta teknikoak dituen diskurtso bat, inbertsio ekonomikoei ahalik eta etekin handiena nola atera azaltzen duena. Mezu horrek eragina izan dezake gaiaren inguruan ezagutzak dituen hartzaile batengan, baina ez du batere efekturik izango gai honen inguruan ezer ez dakien hartzailearengan. Honekin adierazi nahi dena da mezua kontutan hartzeaz gain, hartzailearen ezaugarriak ere kontutan izan behar direla. Horrek bihurtuko du mezua eraginkorrago.

Eraginkortasunean sakonduz, hiru eraginkortasun egoera bereiz daitezke (Zimbardo eta Leippe, 1991)<sup>4</sup>. Lehenengo taldean pertsonarteko egoeretan ematen diren eraginkortasun egoera indibidualizatuagoak sartuko lirateke. Bigarrenean, ostera, eraginkortasuna talde handiei zuzentzen zaien testuinguruak, hala nola, hitzaldiak, konferentziak, debateak, mitinak eta antzeko egoerak. Azkenik, masa komunikabideen bidezko eraginkortasuna izango genuke.

Orain arte pertsuasioaren inguruan esandakoa ondorengo definizioan bildu zuen modu zehatzagoan Perloffek (1993)<sup>5</sup>. Autore honen ustetan, **pertsuasioa aktibitate edo prozesu bat da. Bertan, komunikatzaile bat beste pertsona edo pertsona talde batengan sinesmen, jarrera eta/edo jokabide aldaketa bat sortzen saiatzen da mezu baten transmisioa erabiliz, eta hartzaileak (edo hartzaileek) proposatzen zaion gomendioa onartu edo baztertzeko posibilitatea du.**

Baina zeintzuk dira zehazki mezuen eraginkortasun handiago edo txikiagoan eragiten duten aldagai psikosozialak? Lerro batzuk gorago aipatu dugu Yaleko eskolaren lan aitzindaria, baina badaude beste zenbait teoria. McGuireren eredu prozesualak (1969,1985)<sup>6</sup>, adibidez, komunikazio batek jarrera aldaketa eragiteko duen probabilitatea harrera probabilitate eta onarpenaren emaitza dela defendatzen du.

*Judizio sozialaren teoriak* (Perloff, 1993), bestalde, subjektua edo audientzia kontutan izan behar dela planteatzen du. Emandako mezuaren aurrean hartzaileek duten aurre jarrera edo posizioa kontutan izan behar dela, alegia. Erantzun kognitiboaren teoria deiturikoa ere izango genuke, zeinak defendatzen duen mezuaren hartzaileak iturriak esaten duena gai horrekiko aurrez dituen ezagutza, sentimendu eta jarrerekin konparatzen duela, mezuaren inguruko pentsamendu edo erantzun kognitiboak sortuz (Greenwald, 1968<sup>7</sup>; Zimbardo eta Leippe, 1991). Teoria horrek jarrera aldaketa,batez ere, "auto-pertsuasio" prozesu bezala planteatzen du.

<sup>4</sup> Philip G. Zimbardo, Michael R. Leippe (1991). *The Psychology of Attitude Change and Social Influence*. McGraw-Hill.

<sup>5</sup> Richard M. Perloff (1993). *The dynamics of persuasion*. L. Erlbaum.

<sup>6</sup> William J. McGuire (1925-2007), inokulazioaren teoria proposatzeagatik ezaguna. New Yorkeko psikologo hau ohitura aldaketen inguruan aritu zen aditurik garrantzitsuenetariko bat izan zen.

<sup>7</sup> Anthony G. Grenwald (1968). Cognitive learning, cognitive response to persuasion and attitude change. *Academic Press Inc.* New York

Beste alde batetik, *eredu heuristikoak* egunero gu persuaditzen saiatzen diren eta arretarik jartzeko gaitasunik ez dugun hainbat eta hainbat mezuz erasotuak aurkitzen garela azaltzen du. Kasu horietan, non mezu hartzaileok motibazio eta/edo mezuaz pentsatzeko gaitasun gutxi dugun, “arau simple” edo “erabaki heuristikoak” aplika ditzakegu jarrerazko judizio bat emateko orduan. Honek esfortzu kognitibo txikiagoa suposatzen digu, izan ere, ez ditugu zertan mezuaren argumentu eta arrazoiak aztertu behar.

Azkenik, *elaborazio probabilitatearen eredu* dugu. Eredu honek pertsuasio-komunikazioen bitartez gertatutako jarrera aldaketan bi bide desberdin planteatu ditu: prozesamendu zentrala gertatzen denekoa eta prozesamendu periferikoa gertatzen denekoa. Bide zentraletik gertatutako jarrera aldaketak, mezuaren hartzaileak honen ebaluaketa kritiko eta zehatza egitea inplikatzeko du. Bide periferikotik gertatutakoa, ordea, mezuaren onarpena komunikazioko argumentuei egotzirik balizkotasunari beharrez, beste arrazoi desberdin batzuei egotztean datza. Prozesamendu mota azkarra eta automatikoa litzateke.

Ezin dezakegu alde batera utzi, bestalde, mezua prozesatzeko motibazio eta gaitasunaren arabera, egoera desberdinak sor daitezkeela.

Teoria guzti hau lan honen muinean dauden hizkuntza-ohitura aldaketekin lotze aldera, argi ikus dezakegu hauek ere modu berean funtzionatzen dutela. Hau da, gure hizkuntza-ohiturak aldatzea guk geuk erabakitako zerbait izan daiteke, baina baita kanpotik jasotzen ditugun indar, mezu edo eraginaren ondorio ere. Jarrera aldaketan inguruko teoria guzti hauek berdin funtzionatzen dute norbaitek gure hizkuntza jokabideak aldatzeko saiakera egiten duenean. Edo hobe esanda, egin izan duenean.

### **1.2.2 Hautemate soziala**

Jarrerak aldatu edo ez aldatu planteatzen ari garen une horretan paper garrantzitsua jokatzen duen beste faktore bat hautemate soziala da. Hau da, nola hautematen ditugu guk kanpotik jasotzen ditugun estimuluak? Nola ulertzen ditugu igortzen zaizkigun mezuak? Hainbat faktorek eragiten dute horrelako egoeretan, esaterako, emozioen errekonozimenduak, beste pertsonaren gogo edo animu egoeraz egingo dugun diagnostikoak, alegia. Inpresioa ere inportantea litzateke, eraikitzen dugun irudi koherenteaz ari gara kasu honetan: itxura fisikoa, janzkera, hitz egiteko era, erakargarritasuna, eta abar. Kausa egozpenak egingo ditugu, gainera, pertsona horren jokabidea azaltzeko arrazoiak bilatzen saiatuko baikara. Bestalde, eskema erabiliko dugu informazioa modurik azkarrean prozesatzeko eta erabakirik egokiena hartzeko. Eta azkenik, gure erreakzioa inferentzia sozial prozesuak ere baldintzatuko du, hau da, jasotako informazioa prozesatzeko moduak.

Guzti hau ulertzeko ezinbestekoa da konturatzea, espezie eta gizabanako bezala, bizirauteko arrazoirik garrantzitsuena ingurunearen hautemate egokia egitean eta aldatzen diren baldintza horietara egokitzean datzala. Izan ere, gizarte batean bizi gara eta, gizarte horren parte garen heinean, hartzen ditugun erabakiak arau sozial batzuen menpe daude.

Horregatik esan ohi da portaera batean jarreraz kanpoko faktore ezberdinek eragin dezaketela. Presio soziala edo oraintsu aipatutako arau sozial subjektiboak izango lirateke faktore horiek.

Jarrera eta arau sozial subjektibo horiek baldintzatuko dute portaerarekiko pertsonaren intentzioa. Honela laburbilduko genituzke portaeran eragina duten faktoreak: jokabideak ondorio jakinak emango dituen usteak, ondorioen ebaluaketa, besteen igurikapenei buruzko usteak eta beste adierazgarriengana makurtzeko usteak. Horri kanpoko aldagaiak, hala nola, sexua, klase soziala, adina, nortasuna eta bestelako elementuak gehitu behar zaizkio.

### 1.2.3 Mezuen tipologia eta edukia

Orain arte komentatu ez dugun baina oso garrantzitsua den beste kontu bat **mezuen tipologia** izango litzateke. Mezuak mota desberdinetakoak izan daitezke edukiaren arabera. Ikertzaileen atentzioa gehien lortu duten bi mezu motak **mezu arrazionalak** eta **mezu emozionalak** izan dira. Lehenengoetan ebidentziak aurkezten dira igorritako mezuaren egiazkotasuna frogatzeko. Bigarrenengoetan, aldiz, mezuak eta mezua onartzeak izan ditzakeen ondorio desiragarri edo ez desiragarriak aurkezten dira soilik.

Mezu arrazionalak erretorika klasikoarekin lotu ditzakegu, baina hain urrun joan gabe ere, guk geuk gure mezuetan ebidentziak eta arrazoi logikoak emateko saiakera egiten dugu normalean. Gure mezuek koherentzia izan dezaten nahi dugu. Dena dela, ezin dugu ukatu maiz gure mezuak karga emozionalez betetzen ditugula aurrez aurre duguna errazago konbentzituko dugulako esperantzaz. Historian zehar, predikatzaileek, irakasleek, politikariek, gurasoek eta bestelako pertsonak uste izan dute mehatxuak, zigorrak edo sariak beraien helburua lortzeko bide eraginkorra izango zirela.

Mezu horien inguruan egin ziren lehen ikerketen arabera, edo ez dago desberdintasunik eraginkortasunean bi mezu mota hauen artean, edo mezu emozionalak emaitza hobekien lortzen dituzte (Petty, Wegener, 1998)<sup>8</sup>. Hala ere, ikerketa berriagoek erakutsi dutenez, mezu arrazional edo mezu emozionalak eraginkorrago izatea aldatu nahi den jarreraren arabera da. Dena dela, ez dago adostasunik aldatu nahi den jarreraren eta mezuaren arteko harremanaren izaeran. Hau da, batzuen ustez, aldatu nahi den jarrera kognitiboa bada, mezu arrazionala izango da arrakastatsuagoa. Aldatu nahi den jarrera, berriz, afektiboa bada, mezu emozionala irtengo da garaile. Beste batzuen ustez, ordea, guztiz kontrakoa da.

Ikertu izan den beste mezu mota bat **beldurrean eta mehatxuan oinarritutako mezua** da. Mezu hauen helburua hartzaileengan izua sortzea da, horrela hobeto konbentzitu ahal izateko. Mezu mota honi dagokionez, esan ohi da intentsitate ertaineko mezuak direla arrakastatsuenak. Izan ere, intentsitate baxukoak ez dute beldurrik sortzen eta intentsitate

---

<sup>8</sup> Petty, R. E., & Wegener, D. T. (1998). Attitude change: Multiple roles for persuasion variables. In D. Gilbert, S. Fiske, & G. Lindzey (Eds.), *The handbook of social psychology* (4th ed., pp. 323-390). New York: McGraw-Hill.

handiegia dutenek defentsa jarrera bat sor dezakete. Gainera, hartzaileak bere burua ez badu gai ikusten mezuak egitera bultzatzen duen hori gauzatzeko, *boomerang efektu* bat sor daiteke. Jarrera hau kontrola berrezartzeko edo beldurra gutxiagotzeko hartzen da (Mullis y Lippa, 1990)<sup>9</sup>. Gure herrian zertxobait badakigu mezu hauen inguruan.

Beste eztabaidagai bat mezuek kontrako mezuei aurka egin behar dieten edo, beste barik, aipatu ere egin behar ez dituzten da. Hauei **mezu unilateral edo bilateral** deituko diegu. Yaleko unibertsitateko ikerketa taldea honen inguruan ere aritu zen. Mezu unilateraletan proposatzen den horren abantaila eta alde onak erakusten dira, beste ezeri erreferentziarik egin gabe. Mezu bilateralek, ordea, mezuaren alde onez aritzeaz gain, kontrako mezuaren desabantaila eta akatsak aipatzen dituzte. Antza denez, orokorrean bigarren hauek izan ohi dute eraginkortasun handiagoa. Mezu unilateralek arrakasta handiagoa izango lukete hartzaileek alde aurretik mezu horrekiko kontzientzia bat dutenean, konpetentziarik ez dagoenean eta mezua berez erakargarria denean.

Mezuaren edukiarekin amaitzeko, askotan mahaigaineratu izan den galdera bati helduko diogu: Zerk egiten du argudio bat pertsuasibo? Argudioen kalitateaz ari gara galdera hau egitean. Autore batzuek (Petty, Wegener, 1991)<sup>10</sup> diotenez, ondorio desiragarri eta gertagarriari erreferentzia egiten dieten argudioak sinesgarriago suertatzen dira, horrelako ondorioei erreferentzia egiten ez dietenak baino. Gainera, gertagarria zergatik den azaltzeak, are eraginkorragoa bihurtuko luke argudioa.

Bestalde, argudioen kantitateari dagokionez, hasierako ikerketetan ondorioztatu zen zenbat eta argudio gehiago erabili, orduan eta sinesgarriagoa izango zela mezua. Hala ere, denborarekin argitu da hori ematen diren argudioen kalitatearen arabera dela. Izan ere, hobe da argudio gutxi baina indartsuak ematea, argudio asko baina erdiak eskasak izatea baino (Petty, Wegener, 1998).

**Puntu honetan esan beharra daukat ez dela nire helburua informazio guzti honekin nire aztergaitik desbideratzea, baina ezinbesteko ikusten dut ohitura eta ohitura aldaketen nondik norakoak ezagutzea. Izan ere, hizkuntza-ohiturak ere bestelako ohituren moduan funtzionatzen dute eta orain arte emandako informazio guztia hizkuntza-ohitura aldaketekin harremanetan ere ulertu beharra dugu.**

## 1.2.4 Pertsuasioarekiko erresistentzia

Esandako guztia esanda, eta pertsuasioaren kontuarekin amaitzen joateko, pertsuasioarekiko erresistentziaz hitz egingo dugu hurrengo lerroetan. Orain arte esandakoan soilik oinarritzen bagara, eman dezake mezu on baten aurrean hartzaileok ez dugula zereginik,

---

<sup>9</sup> Richard Lippa, John-Paul Mullis (1990). *Behavioral Change in Earthquake Preparedness Due to Negative Threat Appeals: A Test of Protection Motivation Theory*. National Emergency Training Center.

<sup>10</sup> Petty, R. E. & Wegener, D. T. (1991). Thought systems, argument quality, and persuasion. In R. S. Wyer & T. K. Srull (Eds.) *Advances in social cognition* (Vol. IV, pp. 147-162). Hillsdale, NJ: Erlbaum.

nahi ta nahiez erortzen garela tranpa horretan. Denok dakigu, ordea, hori ez dela horrela. Arau orokor moduan esango dugu, gai baten inguruko hartzailearen jakintza zenbat eta handiagoa izan (Eagly, Chaiken, 1998)<sup>11</sup>, orduan eta zailagoa dela pertsona hori konbentzitzea (Wood, 1982)<sup>12</sup>.

Gehiago sakonduz, pertsuasioarekiko erresistentzia horretan eragiten duen faktoreetako bat **inokulazioaren teoria** da. Teoria hau McGuirek(1964) proposatu zuen eta defendatzen duena zera da: pertsona bat aurrez jartzen bada kontaktuan bere jarrerak mehatxatzen dituen material ahul batekin, gerora, benetako mehatxuen aurrean, erresistentzia handiagoa egiteko gai izango da. Ezinbestekoa da, hala ere, aurrez aurka egiten dion material hori bere defentsak gainditzeko bezain indartsua ez izatea. McGuireren ustetan, inokulazioa aldeko argudioak ematea baino eraginkorragoa da ondorengo bi arrazoiengatik: alde batetik, indibiduoaren berezko sinesmenen defentsaren praktika errazten du eta, beste alde batetik, bere burua defendatzeko motibazioa areagotzen du. Pertsona batek beti onartu izan badu sinesmen bat eta inoiz ez badu erasotua sentitu, ziurrenik ez ditu bere aldeko argudioak garatu.

Teoria hori frogatzeko axioma kulturalak erabili zituzten, guztiz barneratuta dauzkagun eta inoiz zalantzan jartzen ez ditugun sinesmenak, alegia. Esaterako, *ona da janarien ostean hortzak garbitzea*. Horrela, egoera horien bi defentsa mota sortu zituzten, babes defentsa eta inokulazio defentsa. Lehenengoan axiomaren aldeko argudioak eman zituzten, bigarreanean, aldez, axiomaren kontra egiten zutenak.

Horrekin batera, lau egoera experimental sortu zituzten: babes defentsa eta gero eraso, inokulazio defentsa eta gero eraso, eraso defentsarik gabe, eta azkenik, ez erasorik ez defentsarik.

Atera zituzten ondorioak honako hauek izan ziren: 1) edozein defentsa zen defentsarik ez izatea baino hobea, 2) inokulazioaren defentsa babes defentsari gailentzen zitzaion, ondorengo eraso baten aurrean erresistentzia proportzionatuz, bai lehenago inokulatutako argudioak erabiliz, bai argudio desberdinak erabiliz eta 3) inokulazioak eraginkorragoa zirudien behin egun batzuk pasata, kontrako argumentuak entzun eta jarraian baino.

*Inokulazioaren teoria* alde batera utziz, erresistentziarako bigarren faktorea **distrazioa** litzateke. McGuiren iritziz, distrazioak negatiboki eragiten du mezu pertsuasibo baten eraginkortasunean. Distratzen gaituzten elementuek talka egiten dute gu konbentzitzeko argudioen barneratzearekin eta horrek jarrera aldaketan eragiten du. Dena dela, egoera zehatz batzuetan, gutxitu ez ezik, areagotu ere egin dezake distrazioak pertsuasioa. Izan ere, jendeak mezu pertsuasiboak entzuten dituenean, bere barnerako mezu horren kontrako argudioak pentsatzen ditu. Distrazioak kontra argudio horien ekoizpena hain handia ez izatea eragin dezake eta, horrela, jarrera aldaketa bat ematea.

---

<sup>11</sup> Eagly and Chaiken (1998). Attitude structure and function. In D. T. Gilbert, S. T. Fiske and G. Lindzey (eds), *The Handbook of Social Psychology* (4th edn., Vol. 1, pp. 269-322). New York: McGraw-Hill.

<sup>12</sup> Wood, W. (1982). The retrieval of attitude-relevant information from memory: Effects on susceptibility to persuasion and on intrinsic motivation. *Journal of Personality and Social Psychology*, 42, 798-810

Beraz, distrazio mailak baxuak badira, jarrera aldaketa ematen lagun dezakete, ez baitira ulermena oztopatzeko modukoak eta kontra argudioen ekoizpena trakestu dezakete. Bestalde, distrazioa maila altua bada, orduan mezu pertsuasiboak eraginkortasuna galduko du.

Amaitzeko, hirugarren faktorea *inokulazioaren teoriarekin* lotuta dago. **Prebentzioaren efektua** deritzona izango litzateke. Hartzaileari pertsuaditua izango dela jakinarazte hutsak, pertsuasio horrekiko bere erresistentzia areagotzen du. Honen arrazoia kontra argudioen elaborazioaren estimulua da. Hau da, elaborazio hori alde aurretik egitea posible da pertsuasioaren gaia jakinez gero. Gaia ez bada ezaguna, momentuan bertan egiten da.

Beste faktoreek bezala, honek ere badu bigarren alde bat. Aipatutako prebentzio horrek behar baino lehenagoko jarrera aldaketa bat eragin dezake. Hartzaileak itxura bat eman nahi duenean, konbentzitzeko zaila delako itxura eman nahi duenean alegia, mezua bera transmititu baino lehen ager daiteke ados. Badaude kasu batzuk, gainera, non hartzaileek pertsuasiorako jarrera aktiboa duten, hala nola, audientzia erlijiosoek, militanteek edo politikoez. Kasu horietan prebentzioak ez du haien garra murriztuko.

### 1.2.5 Pertsuasioaren efektuen iraupena

Orain imagina dezagun arestian aipatutako hiru faktore horiek ez dutela eraginik izan eta pertsuasioa eraginkorra izan dela. Zenbat irauten dute pertsuasio prozesu horren efektuek? Badirudi Hovland eta Yaleko<sup>13</sup> beste ikerlariek uste zutela pertsuasioak sortutako jarrera aldaketak mezua gogoratu bitartean bakarrik irauten duela. Pertsuasiaren efektuak, beraz, indargabetzen doaz denbora pasa ahala. Mezuaren ondorioek gehiago iraungo dute indibiduoak ekoiztako erantzun kognitibo kopuruaren arabera. Baina, zein faktorek eragiten dute erantzun kognitiboak areagotzea?

Mezuaren eta emandako argudioen errepikapena izango litzateke bat. Argudioen konplexutasuna eta aniztasuna ere garrantzitsua litzateke. Hartzailearen inplikazioa ere kontutan hartzeko faktore bat da. Gainera, erantzun kognitibo horiek hartzaileak berak sortzea ere oso inportantea da. Amaitzeko, jarrerarekiko eskuragarritasuna eta hartzailearen papera informazioaren igorle bezala lirateke azkenengo bi faktoreak.

Azkenik, logale efektua deritzoguna aipatu beharko genuke hemen. Zenbait kasutan, jarrera aldaketa ikusgarriagoa da dagoeneko denbora bat pasa ostean, mezua jaso eta jarraian baino. Hori, dena dela, kasu konkretu batzuetan gertatzen da, ondorengo baldintzak betetzen direnean alegia: mezuaren edukiak eta kanpoko seinaleak ez dute elkarreraginik izan behar eta jarrera aldaketan eragin behar dute bakoitzak bere aldetik; hartzaileek mezuaren edukia aztertzen dute, konbentzituak dira eta informazio hori oroimenean gordetzen dute; mezua jaso ondoren, hartzaileek mezuaren efektu pertsuasiboa deuseztatzen duen seinale bat

---

<sup>13</sup> Yale unibertsitatean, 1940 inguruan, Carl Hovlandek sortutako ikerketa taldea. Pertsuasioaren inguruan ikertzeko helburua zuen.

jasotzen dute; denborarekin, seinale deusestazaile hori desagertuz doa mezuaren edukia ahaztuz doazen heinean.

## 1.3 Behin jarrera aldatuta, nola justifikatu geure burua?

### 1.3.1 Disonantzia kognitiboaren teoria

Festinger, Riecken eta Schachterek(1956)<sup>14</sup> azpimarratu zuten zein garrantzitsua den gizakiontzat gure jarrerak gure buruaren eta ingurukoaren aurrean justifikatzea. Jarreraren arrazionalizazio prozesu horretan, gertaeren ebidentziak ezkutatzera ere iritsi gaitezke. Festingerek *disonantzia kognitiboaren teoria* proposatu zuen jokabide horri erantzuna emateko.

Teoria horrek dio gizakiok **elkarren arteko koherentziarik ez duten kognizioak baditugu, deserosoa zaigun egoera psikologiko inkoherente batean murgiltzen garela. Hori saihesteko, kognizio horiei koherentzia gehitzen saiatzen gara.** *Kognizio* hitza erabiltzen dugunean, pertsona bakoitzak bere buruari, bere jarrerei eta bere inguruari buruz duen jakintzari erreferentzia egiten ari gara. Ezinbestean errealak ez izan arren, pertsona bakoitzak errealtzat jotzen dituen sinesmenak dira eta errealtate fisiko, psikologiko edo sozial bati egin dieziokete erreferentzia. Hortik ondoriozta dezakegu zein den pertsona baten jokabidearen garrantzia, bere errealtatea ukatu ezin zaion elementua den heinean.

Kognizioaren azalpen hori oinarritzat hartuz gero, pertsona baten iritziak ez liriateke ezagutza edo adimenaren elementuak izango. Festingerrek sendotasun eza edo inkonsistentzia disonantzia kontzeptuarekin ordezkatzeko du, hau faktore emozional bezala ulertu behar delarik eta ez kognizio faktore bezala. Disonantziaren osagaietako bat sentsazio deserosoak eragiten dituen aktibazio fisiologikoa da. Aktibazio horrek koherentzia aurkitzeko edo disonantzia gutxitzeko aldaketa bat eragiten du.

Batzuetan gerta daiteke disonantzia hori gizarte arauetatik eratorria izatea. Arau batzuk inkoherenteak izan daitezke kultura batean eta beste batean ez. Posible da, era berean, inkoherentzia jarrera zehatz eta jarrera orokorrako baten artean ematea. Adibidez, ekologista izan arren, kutsadura sortzea. Horrelako kasuetan ez da kognizioen arteko inkoherentzia jarrera aldaketa sortuko duena, baizik eta inkoherentzia horrek sortzen duen ezinegon psikologikoa. Bilatzen dena ez da sendotasun kognitiboa, baizik eta ongizate psikologikoa.

---

<sup>14</sup> 1956. urtean, hiru ikertzaile hauek sekta batean infiltratu ziren norbaitek duen sinismen bat modu objektibo batean ezeztatzen denean gertatzen dena ikusteko. Horrela, frogatu ahal izan zuten gure ideien aurka doan informazioa jasotzen dugunean, informazio hori zalantzan jarri edo edozein aitzakiarekin baliogabetzen saiatzen garela.



Onartu beharko didazue parentesi txiki bat momentu honetan bizi dugun errealitatean begirada jartzeko. Disonantziaren kontu hau, *teoria* izateaz gain, gure inguruan argi eta garbi antzeman dezakegun *praktika* da. Izan ere, hizkuntza-ohituren gaia berreskuratuz, **zenbat gara guztiz koherente gure pentsamendu eta jarreretan? Nork ez du ezagutzen norbait euskararen eta hizkuntza minorizatuen aldeko jarrera izan arren, gazteleraz egiten duena? Edo bere hizkuntza-ohiturak aldatu dituena horrexegatik? Edo euskararen eta gure herriaren aldeko jarrera izan arren, eremu erdaldun batean bizi eta nagusiki gazteleraz hitz egiteaz lotsatzen dena? Horrelako egoerak barra-barra aurki ditzakegu gure inguruan.** Dena dela, hizkuntza-ohituren atalean berrikusiko dugu disonantziaren gaia.

Parentesia itxiz, teoriak dio bi aukera elkarrekiko baztertzaila baina posible ditugunean eta horien artean aukeratu behar dugunean, disonantzia egoera bat sortzen dela. Pertsona batek bi jarrera hautazkoren artean aukeratzen duenean, kontrakoa egin izana justifikatzen duten kognizioak agertuko dira. Disonantzia agertzen da, beraz.


Pertsona batek bizi duen disonantziaren maila zenbait konturen arabera da, baina garrantzitsuena pertsona horrek elementu kognitibo horiei ematen dien garrantzia da. Disonantzia gero eta handiagoa izango da elementu disonantei zenbat eta inportantzia gehiago eman. Esate baterako, eta gure egoeran zentratuz, euskararen biziraupenerako euskaraz hitz egitea beharrezkoa dela uste duen batek, disonantzia sentituko du gazteleraz hitz eginez gero.

Behin sentimendu hori izanda, nola gutxiagotu? Disonantzia murrizteko motibazioa agertzen den maila edo intentsitatearen arabera izango da. Hau da, zenbat eta ezinegon handiagoa sentitu, orduan eta interes gehiago oreka berreskuratzeko. Indibiduoak bere jarrerarekin disonantea den jokabide bat aukeratzen duenean, lau aukera dauka disonantzia hori gutxiagotzeko. Zalantzarik gabe, errazena eta eraginkorra aukeratuko du.

Aukera bat, koherentzia handiagoa lortze aldera, bi elementuetako bat aldatzea da. Beste bat elementuei ematen zaien garrantzia aldatzea litzateke. Norbere jarrerarekin bat datozen elementu kognitibo berriak gehitzea ere badago. Eta azken aukera, muturrekoena dudarik gabe, ezinegona lasaigarrien bidez murriztea izango litzateke.

Disonantziaren kontu honekin amaitzeko, aipagarria da frogatu dela jokabidearen eta jarreraren arteko desadostasun horrek sortzen duen ezinegona deserosotzat jotzeko, beharrezkoa dela sentimendu hori desadostasunari berari egozte. Ez da horrela gertatzen, ordea, kanpoko arrazoiei egozten bazaie. Horrela, ez badago jarrera aldatzeko aukerarik, sentazio deserosoak ez dira desagertzen.

Esan beharra dago, disonantziaren inguruan orrialde askotan zehar hitz egiten jarrai genezakeela. Izan ere, oso sakona da horren inguruan egindako ikerketa eta gaiak berak daukan adar guztiak ere anitzak dira. Hala ere, ez dut beharrezko ikusten gai horri buelta gehiago ematea, nahikoa eman baitizkiogu jada.



#### 1.4 Ohitura aldaketekin amaitzeko

Lehenengo atal honekin amaitze aldera, orain arte ikusitakoaren laburpen txiki bat egingo dugu hurrengo lerroetan. Ohiturak, beraz, denboran zehar burutzen ditugun portaera-ekintza errepikakorrak dira. Hain dauzkagu barneratuak, ezen modu inkontzientean egiten ditugu. Dena dela, esan bezala, ez dira berezkoak, ikasiak baizik. Gureganatu egiten ditugu gure burua beste gizatalde batzuegandik bereizteko asmoz.

Dena dela, ohiturak ez dira estatikoak, pertsonok uneoro egokitzen baititugu gure izaera eta jokabideak ingurutik jasotako eraginaren ondorioz. Horrek esan nahi du ohiturak, nahiz eta oso errotuta izan, aldatu daitezkeela. Zer behar dugu pausu hori eman ahal izateko, orduan? William Jamesen arabera, determinazioa, diziplina eta motibazioa dira kontzeptu gakoak. Egun ere, oso kontutan hartzen dira hiru faktore horiek ohitura aldaketen inguruan hitz egiterakoan.

Hala ere, ohiturak aldatzea ez da beti gure erabaki askea izaten. Puntu honetan aipatu beharko genuke pertsuasioa. Gure jarrerak aldatzea helburu duten milaka mezu pertsuasiboz inguratuta bizi garela ezin uka dezakegu. Batzuek, dena dela, beste batzuk baino gehiago eragiten dute gure pentsamenduan. Mezuaren eraginkortasuna nolakoa, halakoa izango da guran duen eragina. Iturria, edukia, kanala eta kontestua bezalako faktoreek ere eragin zuzena dute mezuaren arrakastan, baita pertsonaren adinak, sexuak, lanpostuak eta bestelako ezaugarriek ere.

Bestalde, ukalezina da, gizarte batean bizi den espezie bat garen heinean, gure bizirauteko arrazoirik garrantzitsuena ingurunearen hautemate egokia egitean eta aldatzen diren baldintza horietara egokitzean datzala. Horregatik, hautemate soziala ere kontutan izateko puntu bat litzateke.

Gizarte batean bizitze horrek, halaz ere, baditu bere desabantailak. Ez gara guztiz askeak erabakitzeko unean eta askotan, baztertuta ez gelditze aldera, besteak jarraitzen ditugu

nahiz eta benetan gure nahia hori ez izan. Erabakitze askatasun falta horrek manipulatuak izateko aukera handiak izatea dakar. Hori da, hain zuzen ere, beldurra eragiten duten mezu pertsuasiboek duten helburua. Ez da hori, dena dela, mota bakarra. Badaude mezu emozionalak ere, gizakion emozioak ukitzea xede dutenak, horrela arrazonomendu logiko bat egin ez dezagun. Baita mezu arrazionalak ere.

Gizakion mesedetan esan behar dugu, ordea, posible dela mezu pertsuasiboek erresistentzia egitea. Esaterako, pertsona bat aurrez jartzen bada kontaktuan gerora bere mehatxua izango den mezu horren bertsio ahulago batekin, mehatxu errealarari aurre egiteko unean indar handiagoa izango du.

Erresistentzia horrek funtzionatzen ez badu eta mezu pertsuasiboak gure jarreraren bat aldatzea lortzen badu, berriz, disonantzia izeneko egoera batean aurkituko dugu gure burua. Izan ere, egindakoa justifikatu beharrean aurkituko gara. Kontraesan bat sortuko da gure ideien eta gure jarreraren artean eta hori orekatzea beharrezko egingo zaigu egonezina gainditu nahi izanez gero.

Nola lotu, orduan, orain arteko informazio hau eta hizkuntza-ohitura aldaketak? Ba oso erraz, izan ere, **hizkuntza-ohitura aldaketak ere ohiturak dira finean eta modu beretsuan funtzionatzen dute. Guztiz errotuta dauzkagun ohiturak dira eta ez da batere erraza hauek aldatzea. Determinazioa, diziplina eta motibazioa ezinbestekoak dira norabide hori hartu nahi badugu.** Badago jendea, zailatasunak zailtasun, hizkuntza-ohiturak aldatzea erabakitzen duena eta helmugaraino iristea lortzen duena.

Bestalde, badaude haien hizkuntza-ohiturak aldatu dituztenak mezu pertsuasiboek eraginez. Euskal Herrian, gainera, nahikotxo dakigu horretaz. Arrazoiak arrazoi, aldaketa horien ondorioz **kontraesan handi batean murgilduta bizi direnak ere asko dira gure inguruan. Lehenago aipatu dugun disonantzia hori gainditu ez dutenak ugari dira. Izan ere, ez da erraza gurea bezalako errealitate batean kontraesanetan erori gabe bizitzea.**

## 2. HIZKUNTZA-OHITURA ALDAKETAK

---

Hizkuntza-ohiturak, jada zenbaitetan errepikatu bezala, txiki-txikitik gureganatzen ditugun ohiturak dira. Oran arte aipatu dugu bestelako ohiturek bezala funtzionatzen dutela. Dena dela, kontutan izan behar dugu hizkuntza-ohiturek badutela balio erantsi bat. Izan ere, egunero eta ia momentuoro erabiltzen dugu hizkuntza. Gure hizkuntza gure identitatearen parte handi bat da eta, beraz, hasiera batean eman dezake hizkuntza-ohiturak aldatzea beste edozein ohitura aldatzea baino zailagoa dela. Baina hori horrela al da? Hau eta beste galdera asko datozkigu burura hizkuntza-ohituren gainean hitz egiterakoan. Hona hemen *brain storming* txiki bat:

*Zer dira hizkuntza-ohiturak? Nola gureganatzen ditugu? Zein esanahi dute guretzat? Gure identitatearen parte al dira? Aldatzea posible al da? Zein kasutan da errazago aldatzea? Zein kasutan agertzen dira oztopo gehien? Zeintzuk dira oztopo horiek? Nola gainditu ditzakegu? Zein dira, bestalde, aldaketa hauetan laguntzen gaituzten faktoreak? Zerk bultzatzen gaitu aldaketa horiek egitera? Nola aldatzen gaitu aldaketa horiek egiteak? Gure identitatea aldatzen al da? Zeintzuk dira hizkuntza-ohiturak aldatzera garamatzaten motibazioak?*

Hizkuntza-ohituren kontu hau adar askoko gaia da. Izan ere, hizkuntza-ohiturak ez dira bat eta bakarra persona bakoitzarengan. Gure bizitzan esparru desberdinak dauzkagu eta, kasu askotan, esparru horietako bakoitzean hizkuntza-ohiturak desberdinak dira. Gainera, gerta daiteke esparruetako batean, une konkretu batean, ohitura batzuk izatea eta denborarekin horiek aldatzea. Familia, lagunartea, lana, unibertsitatea edo eskola izan daitezke esparru horietako batzuk. Euskal Herrian bizi dugun diglosiaren ondorioz, oso ohikoa da pertsona batek hizkuntza bat erabiltzea eremu konkretu batzuetan eta beste bat beste batzuetan. Hizkuntza-ohiturak aldatzea, dena dela, posible da eremu guzti horietan.

Jaiotzen garen unetik beretik hasten gara errotzen hizkuntza-ohiturak. Etxean, gure gurasoek, ama-hizkuntza bat(edo gero eta kasu gehiagotan, bi edo gehiago) transmititzen digute. Eskolara hastean, lagunekin erabiliko dugun hizkuntza zehazten dugu. Unibertsitatera hastean, bertan ezagututako jende berriarekin egindako lehenengo hitzek baldintzatuko dute ikasketak amaitu arte mantenduko dugun hizkuntza-ohitura. Lanean hastean, esparru berri bat agertuko da gure bizitzan eta esparru horretan hizkuntza bat izatea beharrezkoa izango da. Iku dezakegun moduan, guztiz naturala zaigu gure bizitzako esparruak zabaltzen goazen heinean, horietako bakoitzean hizkuntza-ohitura bat ezartzea. Baina, eta jada ezarritako hizkuntza-ohitura horietakoren bat aldatzea zer iruditzen zaigu? Zer suposatzen digu horrek?

Ba, hasiera batean, atzera pausu bat eman dezake. Hau da, dagoeneko ezarrita dagoen hizkuntza-ohitura baten kontrako norabidean joatea antinaturaltzat har dezakegu. Horregatik, zaila egiten zaigu urteetan errotzen joan garen ohitura bat alde batera uztea erabakitzea. Dena dela, erabakia hartzea prozesua bera baino zailagoa dela ikusi dugu. Izan ere, gai gara, zailatasun eta oztopoak egon arren, uste duguna baino errazago eta denbora gutxiagoan

ohitura berriak errotzeko. Diziplina, determinazioa eta motibazioa izanez gero, ohitura berrietara ohitzea ez da hain prozesu luzea.



## 2.1 Hizkuntza-ohitura aldaketen norabideak

Lehenago esan bezala, hizkuntza-ohitura aldaketen espektroa oso zabala da. Lan honetan gaztelaniatik euskararako aldaketari emango diogu garrantzia gehien, izan ere, hori da interesatzen zaiguna. Hori da, hain zuzen ere, euskararen alde lan egiten dugunon helburua, ahalik eta jende gehiena euskarara erakartzea. Hala ere, zoritxarrez, ez da hori hizkuntza-ohitura aldaketen norabide bakarra. Beste norabide horri buruz, euskaratik gaztelaniarako alegia, arituko gara hurrengo lerroetan.

Nork ez du ezagutzen etxetik euskalduna izan baina lagunekin gaztelera mintzatzen den haur edo gazte bat? Edo bera gaztea zen garaian euskarak jasandako desprestigioaren eraginez, gaztelera mintzo den euskaldun zahar bat? Bada horrelako egoera asko aurki ditzakegu gure inguruan.

Lehenengo kasuari erreparatu, zer da haur hori lagunekin gaztelera erabiltzera bultzatzen duena? Alde batetik, kontutan izan behar dugu ume horrek ikusiko dituen telebistako programa edo filme gehienak gaztelera izango direla. Ondorioz, marrazki bizidun edo filme horietako pertsonaiak bere eredu bihurtzen baditu, gaztelera izango da erreferentzia. Bestalde, gurasoak haurrari euskaraz egin arren beraien artean gaztelera hitz egiten badute, haurrak gaztelera helduen hizkuntza bezala identifikatuko du. Haurrak, ondorioz, lagunekin heldu itxura emate aldera, gaztelera erabiliko du.

Gainera, haur eta gazte askori euskara ez zaie hizkuntza erakargarria iruditzen. Zergatik? Oro har, gazte euskaldun gehienek adierazkortasun arazoak dituztelako. Nahiz eta euskaldun zaharrak izan, ez dira gai adierazi nahi duten guztia euskaraz adierazteko. Hori dela eta, hizkuntza nagusietara jotzen dute behar dituzten baliabideak euskaraz ez dituztenean. Gaztelera formulak adierazkorragoak edo indartsuagoak iruditzen zaizkie askotan. Euskararen berezko baliabideak ez dituzte ezagutzen eta, ondorioz, ez dituzte erabiltzen. Dena dela, aitortu beharra dago, premia hauei begira euskaratik sorturiko berrikuntza eta proposamenak gutxi izan direla. Badirudi gazte-hizkera kolokial bat sortzeko beharra dagoela.

Beste alde batetik, badaude gazteak etxetik euskaldun zaharrak izan arren, euskal mundutik oso urruti daudenak. Jone Miren Hernandezen (2005)<sup>15</sup> hitzetan: “Gazteen artean euskara pisu gutxiko aldagaia da. Indar oso gutxi du egun euskarak gazteen unibertsoan sartzeko eta irmoki txertatzeko. Ikuspuntu horretatik eta aurreko hamarkadekin konparatzen badugu, euskarak egungo gazte kulturak osatzeko eta sendotzeko gaitasuna galdu ote duen aztertu beharreko gaia litzateke”.

Hasieran aipatutako bigarren kasuari eutsiz, esan beharra dugu ez direla gutxi, bere garaian euskarak jasandako desprestigioak eta euskaraz hitz egiteak zekartzan ondorio txarrak bultzatuta, gaztelera erabiltzera pasatu diren pertsona nagusiak. Hori ez da gure herrialdeko kontu bat soilik, izan ere, hainbat izan dira munduan zehar desprestigiatuak izatearen ondorioz desagertu diren hizkuntzak.

Arrazoi nagusia kasu horietan ez da desprestigioa bera izan, baizik eta horrek eragiten duen transmisioaren etena. Gurasoek ez diete haien seme-alabei hizkuntza hori transmititzen, prestigiorik gabeko hizkuntza izatera, mesedegarria izango ez zaielakoan. Une hori hizkuntzaren heriotzaren hasiera da, transmisioa eteten bada, hizkuntza horrek bizirautea ezinezkoa baita.

Ez dira gutxi izan, gainera, euskararen kontra jaurtitako ideiak: baserritarren hizkuntza dela, ez duela kontu jasoetarako balio, basatien hizkuntza dela, euskaraz hitz eginez ezin daitekeela arrakastatsu bihurtu, bazterretan hitz egiteko hizkuntza dela, etxean bakarrik erabil daitekeela eta horrelako beste hainbat gezur. Guzti horrek, euskararekiko jazarpen eta bazterketarik latzena bizi izan zuen garaiko euskaldunek haien hizkuntza alde batera uztea eragin zuen.

Bestalde, desprestigioak eragindako lotsaz gain, beldurra ere oso faktore garrantzitsua izan zen askorentzat erabaki hori hartzeko unean. Euskara debekatuta zegoen garaian, mehatxupear bizi ziren horiek ez zuten euren seme-alabek gauza bera bizi zezaten nahi inolaz ere. Horregatik, gaztelera egin zieten eta beraiek ere gaztelera egiten jarraitzen dute egun, euskara bizi izan zuten garai ilun harekin lotzen baitute. Pertsuasioa inon baino argiago ikus dezakegu kasu horretan, beldurra sortzeko mezuen bidez jende askoren jokabidea aldatzea lortu baitzuten. Hala ere, zorionez, ez zen horrela gertatu kasu guztietan eta euskararen aurkako ehiza horrek, bere alde gogotsuago borrokatzera bultzatu zituen eta ditu hainbat eta hainbat.

Beraz, bi adibide hauekin ikusi ahal izan duguna da Euskal Herrian bizi dugun egoera korapilatsuan hizkuntza-ohitura aldaketek norabide desberdinak izan ditzaketela. Dena dela, behin euskaratik gaztelaniarako aldaketa hauek aipatuta, guri interesatzen zaigunean murgilduko gara sakonago, gaztelera euskararako bidaian, alegia.

---

<sup>15</sup> Jone Miren Hernandez Gizarte Antropologiako irakaslea da EHUUn. 2005 urtean “Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak” artikulua idatzi zuen.

Hala ere, guretzat atsegina ez den alderantzizko norabide horretara bueltatuko gara atal praktikoan sartzen garenean, bide hori hartu dutenen esperientzia gertuagotik ezagutzeko.

## 2.2 Gaztelaniatik euskararako bidaia

Euskara maite dugunontzat zorionez, gero eta jende gehiago dago gaztelaniatik euskararako bidaia hori egiten duena. Arrazoiak ugari izan daitezke. Batzuek arrazoi praktikoak izan ditzakete, lanerako beharrezkoa dutela adibidez. Beste batzuk, ordea, eta hauek dira euskarari bultzada handiena emango diotenak, euskal kulturarekiko eta Euskal Herriarekiko sentitzen duten gertutasunak bultzatuta hurbildu dira euskarara. Badaude, gainera, bikote euskalduna aurkitzerakoan euskarara gerturatzen direnak ere. Edo gaztetako gaztelaniaz hitz egiteko moda hori alde batera utzita, haien benetako identitatearen isla den euskara berreskuratzen duten heldutzen hasitako gazteak.

Haien seme-alabek ikas dezaten euskara ikasten duten gurasoak ere badaude, baita heldu berri diren herrian integratzeko nahia dutelako ikasten duten imigranteak ere. Bizi osoan haien herrian zenbait egoeratan arrotz sentitu direnak ere hurbiltzen dira euskarara, egoera horietan ere eroso sentitzeko asmoz.

Ikus dezakegunez, euskara helmuga duten bidaiak era askotarikoak izan daitezke, bakoitzak bere ezaugarriak dauzka. Gainera, posible da bizitzako arlo konkretu batean besterik ez aldatzea hizkuntza-ohiturak, lanean esaterako, edo zure bizitzan orokorrean erabiltzen duzun hizkuntza aldatzea. Egoera desberdinak izan arren, hizkuntza-ohitura aldaketa guztiek badituzte zenbait puntu amankomunean.

Atal honetan Karmelo Ayestaren *Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia(2014)* liburuan oinarrituko naiz. Izan ere, oso argi hitz egiten du bertan euskalduntzeko bidaia horretaz eta ohitura aldaketaz. Bere ustetan, euskararen erabilerak izan duen bilakaerak argi uzten du aldaketa sakona dela hizkuntza-ohitura berriak barneratzea. Azken hamar urteotan euskararen erabilerak izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu ez dela igo, baina ezta jaitsi ere. Beraz, ondo goaz? txarto goaz? Askotan noraezean ibiltzen gara euskara nola indartu jakin gabe. Badirudi egin beharreko guztia egin dugula eta jada ez zaigula energiarik geratzen, badirudi euskararen erabilerak goia jo duela.

Hala ere, Ayestak hitzaurrean aipatzen duen bezala, ohitura aldaketak eta hobekuntza pertsonal guztiak antzeko prozesuen bidez egin daitezke eta aldaketa prozesu horiek oso ikertuak izan dira. Bidean eman beharreko pausuak eta topatuko diren oztupo nagusiak ezagunak dira. Gertatzen zaiguna da energia asko galtzen dugula alferrik prozesu hori berrasmatu nahian. Gainera, zenbaitetan prozesu horren zailtasuna gutxiesten dugu eta, beraz, ohiturak aldatzea erabakitzen dugunean, espero ez genituen zailtasunekin aurkitzen gara. Horrek, zalantzarik gabe, frustrazio handia sortzen du. Ez da harritzekoa, beraz, maiz aldaketa prozesuak eten egiten direla jakitea.

Aurki dezakegun oztopo horietako bat gure ingurua bera izan daiteke, inguruak eragin handia baitu. Dena dela, argi izan behar dugu ez dela erabakigarria. Gizaki askeak garen heinean, hizkuntza-ohitura aldatuko dugun edo ez gure erabakia eta gure erantzukizuna da. Argi izan behar dugu zailtasunak eta oztopoak aurkituko ditugula, baina lehenago aipatu bezala, behin oztopo horiek gaindituta, uste baino errazago errotuko ditugu ohitura berriak.

Mario Alonso Puig<sup>16</sup> adituaren esanetan, aldaketa-prozesuetan, arrakasta zergati ona edukitzean datza. Hau da, motibazioan dago gakoa. Beraz, bidea hasi baino lehen oinarrizko galdera bat egin beharko genioke geure buruari: zergatik aldatu hizkuntza-jokabidea eta euskaraz bizitzen saiatu?

## 2.2.1 Printzipioak

### Motibazioa

Arrazoiak oso anitzak izan daitezke. *Amaraura*<sup>17</sup> ikerketa taldeak egindako *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* izeneko ikerketan (Amorrortu eta beste 2009), beste kontu askoren artean, erdaldunek euskara ikasteko zein motibazio dituzten ikertu zuten. Motibazioak integratzaileak edo instrumentalak izan daitezke. Ondorengo hauek izan ziren, zehazki, ikerketan planteatutako arrazoiak: *porque es nuestra lengua, para poder ayudar a los niños con los deberes, para poder optar a más trabajos, para poder comunicarme en euskera con las/los vasco hablantes, para enriquecimiento personal, por contribuir a que no se pierda, porque en mi entorno familiar o de amistad algunos lo hablan, por respeto a las/los vasco hablantes, por acceder al entorno cultural vasco.*

Ikus daitekeen bezala, motibazioak desberdinak dira. Dena dela, horietako batzuk irten ziren nagusi ikerketan bertan eta errealitatearen isla bezala har ditzakegu. Konkreteki, erantzuleen % 30 inguruk arrazoi hauek eman zituen: nortasunarekin lotuta dagoen eta guztiz barnekoa den gure hizkuntza izatea, tresna mailako motibazioak diren seme-alabei lanekin lagundu ahal izatea eta lan munduan aukera gehiago edukitzea, integratzailea den euskaldunekin hitz egin ahal izatea eta, azkenik, erabat barnekoa den pertsona moduan haztea.

Hainbat arrazoi on egon daitezke, bakoitzak berea du, baina adituek diote aldaketarako motibazioa indartsua izan dadin, bat etorri behar dela norberaren balio eta printzipioekin. Horrez gain, azpimarratzen dute **balio batzuk lagungarriak direla aldaketa eta hobekuntzarako, hala nola, integritatea, erantzukizuna edo asertibitatea.**

---

<sup>16</sup> Mario Alonso Puig medikua, zirujaua eta hizlaria da. Komunikazio, motibazio eta sormenean aditua da.

<sup>17</sup> *Amaraura* ikerketa-taldea aspalditik ari da hizkuntza eta gizartearen arteko harremanez ikerketa sakonak egiten. *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* ikerketan Esti Amorrortuk, Ane Ortegak, Itziar Idiazabalek eta Andoni Barreñak hartu zuten parte.



### Integritatea

Integritatea zuzentasuna edo zintzotasuna ere dei genezake. **Zintzoak edo zuzenak gara gure jokabideak gure balio eta ideiekin bat datozenean, esaten duguna (asmoak, ideiak, hitz emanak) eta egiten duguna bat datozenean.** Kontua ez da dauzkagun ideia horiek zuzenak diren ala ez, baizik eta pentsatzen dugun hori praktikan jartzen ahalegintzea.

Integritatea eta sinesgarritasuna batera doaz. Gure ekintzak asmoekin bat datozen neurrian, gure buruarekin dugun konfiantza handitu egiten da, eta baita besteek gudan duten konfiantza ere. Gai horrekin lotuta, liburuan erdaldun *baskoaren* figura agertzen da. Pertsona hori integritaterik ez duen pertsona gisara aurkezten da. Izan ere, koherentzia falta bat erakusten du bere usteen eta bere jokabidearen artean. Integritateak hainbat eta hainbat pertsona egin ditu euskal hiztun, barruan sentitutakoa eta praktika orekatzeko asmoekin.

Integritatea, beraz, oso lagungarria izan daiteke euskararen erabilera zabaltzeko; euskal hiztunok integritatea erakusten dugunean, hau da, gure ekintzak eta asmoak bat datozenean, erakargarriagoak gara besteentzat. Euskaldunon kasuan, integritatea eta benetakoa izatea euskararekin daude lotuta. Euskaldunak garela esan baina erabiltzen ez badugu, esana eta izana ez dira bat etorriko.

Hemen, beraz, euskara ikasteari baino, euskara erabiltzeari egiten diogu erreferentzia. Badago jendea, euskalduna dela esan eta euskara jakin arren, bere egunerokotasunean erabiltzen ez duena. Horrelako kasuetan ere, dagoeneko hizkuntza bera jakin arren, ez da batere erraza hizkuntza jokabidea aldatzea. Dena dela, integritatea lagungarri izan daiteke pausu hori emateko. Pausu hori, gainera, eman beharreko pausua da gure ideia eta balioekin koherente izan nahi badugu. Euskaldunak garen heinean, euskaraz bizitzea dagokigu ahal dugun neurrian.

### Erantzukizuna

*Bizitzan arrakastatsua izan nahi baduzu, zure bizipen guztien erantzukizuna hartu behar duzu.* Jack Canfieldek<sup>18</sup> bota zuen esaldi hau bere *The Succes Principles* liburuan. Ideia hori, gainera, oso zabaldua dago lidergoari buruzko liburuetan eta autolaguntza liburuetan.

Edozein egoeraren aurrean, bi jarrera har daitezke: erantzukizuna onartzea edo errua kanpokoari egozte. Hartutako jarreraren arabera, egoeraren emaitza zeharo alda daiteke. Gertatzen zaigun zerbaiten errua kanpoko faktoreei botatzen badiegu, guk geuk egoera aldatzeko ezer gutxi egin dezakegula pentsatuko dugu. Aldiz, gure buruarengan jartzen badugu erantzukizuna, egoerari aurre egiteko gai sentituko gara, egoera aldatzeko tresnak badauzkagula sentituko dugu.

Euskal hiztunon artean ezaguna da kanpoko faktoreei gure arazoan errua botatzeko joera hori. Euskararen erabilera igo ez izanaren errua baldintza soziolinguistikoei egozten diegu

---

<sup>18</sup> Jack Canfield autore eta hizlari amerikarra da. *The Succes Principles* 2005ean argitaratua izan zen.

askotan. Biktima papera hartzen dugu eta guk geuk hori aldatzeko gaitasunik ez dugula sinestarazten diogu geure buruari. Badirudi kanpoko faktoreen menpe gaudela eta guk, geure kabuz, ez dugula indarrrik ezer aldatzeko.

**Emaitza aldatu nahi badugu, ordea, erantzukizuna guk geuk hartu behar dugu. Arrakastaren gakoa ez da errua inori botatzea edo besteek zer egin beharko luketen jakitea, baizik eta emaitzak aldarazteko geuk zer egingo dugun argi izatea.** Guk geuk dugu kontrola, gai gara eragiteko eta ondorioak aldarazteko.

Hori egiteko, dena dela, emaitzen erantzukizuna onartzeko ausardia izan behar dugu. Gure helburuak betetzen ez badira, gu geu baikara erantzule. Guk aukeratzen ditugu lehentasunak, ekintzak eta jarrerak. Gure buruarekiko zintzoak izan behar gara gerora etorriko dena onartuko badugu. Euskarari dagokionez, ez gara zurikeriatan ibili behar. Errealitatearekiko zintzoak izatea guztiz inportantea da hartu beharreko neurriak hartzeko.

Gure erantzukizuna da, taberna batean sartzean tabernariak euskaraz jakin ez arren, euskarari eustea; gure erantzukizuna da, pertsona bakar batek euskaraz ez dakien lagun-talde baten, euskarari fidelak izatea; gure erantzukizuna da, aurrekoak euskaraz jakin arren gatzeleraz egiten digunean, guk euskaraz jarraitzea. Geurea da errua horrelako kasuetan euskara alde batera uzten badugu, eta ez baldintza soziolinguistikoena. Geurea da erantzukizuna eta gu geu hasi behar gara gure inguruan ikusi nahi dugun aldaketa sortzen.

### Asertibitatea

Aldaketa prozesuetan lagungarri den beste ezaugarri bat asertibitatea da. Nork bere burua estimatzea ezinbestekoa da lortu nahi den edozer gauza lortu ahal izateko. Nork bere burua maitatu ezean, ez dago zoriontsu izaterik. **Asertibitatea autoestimuaeren zutabeetako bat da, norbere asmoak, nahiak, balioak eta premiak baloratu eta bizitzako ekintzetan agertzean datzana.**

Asertibitatearen aurkakoa da ezkutuan gordetzea gu zer garen benetan, zein diren gure nahiak, gure asmoak eta balioak. Askotan jarrera hori hartzen dugu gure moduan pentsatzen ez duenarekin gatazkarik ez izateko edo, beste barik, besteen gustokoa izateko. Nor garen faltsutzen ari gara kasu horietan.

Asertiboa izateak, beraz, ez du esan nahi soilik asmo eta balio batzuk edukitzea, baizik eta asmo eta balio horiek gure egunerokotasunean azaltzea, barnean utzi gabe. Batzuetan pentsatzen dugu, hainbat egoeratan, gu geu garen moduan azaltzen bagara, ingurukoek baztertu egingo gaituztela. Onartua ez izateko beldur horrek normalean jokatu ez genukeen moduetan jokatzera garamatza, geure buruari traizio eginez. Gu geu gara geure buruaren etsai horrelako egoeratan.

Asertiboa izateko, gure ideiak eta nahiak garrantzitsuak direla sinetsi behar dugu. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, besteen asmoekin agresibo izan behar dugunik. Besteen

asmoak ere axola zaizkigu eta kontutan hartzen ditugu, baina betiere geure burua errespetatuta.

**Euskaldunok asertiboago izaten ikasi beharko genuke eta gure ideia eta balioei garrantzia gehiago ematen. Euskara gure balio eta ideien parte dela onartuta, ez genuke hain erraz alde batean utzi behar gazteleraren mesedetan. Duen balioa eman beharko genioke eta ekin, aurrean dugunak pentsatuko duena axola gabe.**

Euskara gure egiteko bidaia horretan beharrezko ditugun ezaugarriak azaldu eta gero, ezinbestekoa da ohartaraztea maiz barneko eta kanpoko pentsamendu kaltegarriak izango ditugula, zoratu eta nekarazi nahi gaituztenak. Asertibo izatea norberekierarekin nahastu ohi da, integritate eta konpromisoari integrisimo deitu ohi zaio sarri eta nortasuna harrokeria bezala identifikatzen da askotan. Ez diegu horrelako ideiei kasu egin behar, ez baitira zuzenak. Oraintsu aipatutako ezaugarri guztiak beharrezko ditugu gure bidaia honetan eta ez ditugu bestelako kontuekin nahastu behar.

## 2.2.2 Energia-iturriak

Gure helburua lortzeko errendimendurako egoerarik egokiena *full engagement* da. Hau da, zeharo konprometituta egotea, bete-betean aritzea. Horretarako, **lau energia-mota behar ditugu: fisikoa, emozionala, mentala eta espirituala**. Laurak behar ditugu errendimendua lortzeko, izan ere, laurak daude elkarrekin erlazionaturik.

Baina zer da zehazki energia espirituala deitu dugun hori? Ba, alde batetik, gure interes pertsonaletik haratago doan asmoa edukitzea; bestetik, asmo hori eta gure balioak bat etortzea. Euskara ikasten ari den batentzat, adibidez, bere interes pertsonaletik haratago doan asmo hori euskal espezia iraunaraztea izan liteke. Kontua da autoestimu falta dugunean, errazago defendatzen ditugula besteen interesak geureak baino.

Bestalde, errendimenduan eragin itzela duen beste faktore bat emozioak dira. Denok dakigu beldurra eta etsipena bezalako emozioek hartzen gaituztenean, ez garela ezer lortzeko gauza. Izan ere, gure burutik pasatzen dena kanpoko gertaerak bezain garrantzitsua da eta modu berean, edo gehiago, eragiten digu. Dena dela, horrek abantaila bat dauka, kanpoko gertaerak aldatu ezin ditugun arren, badugulako gure burutazioak aldatzea. Ez dago zalantzarik, gainera, egoera emozional positiboek errendimendua hobetzen dutela.

Horregatik, hizkuntzaren erabileran autoestimuak eta asertibitateak duen inportantzia ohartu behar gara. Euskaldunok maiz, bizi dugun egoeratik, jarrera defentsibo bat gureganatzen dugu eta modu agresiboan erantzuten dugu aurrekoak euskaraz hitz egin nahi ez duenean. Jarrera horrek egoera okertu baino ez du egiten. Ahalik eta errendimendurik onena lortzeko, egoera emozional atsegin eta positiboa aukeratu behar dugu; ilusioa, konfiantza, pazientzia, poza, eta enpatia bezalako emozioak sentitu eta sentiarazi behar ditugu. Horrela baino ez dugu aurrekoak guganako errespetua erakustea lortuko.

Arreta jarri beharreko beste kontu bat euskaldunok bizipenetatik ikasten ditugun jokabide-ereduak dira. Gizaki orok bezala, aurreko bizipenetatik ikasten ditugu jokabideak eta baliteke, egoera horietarako egokiak izatea. Ez dira aproposak, ordea, egoera berrien aurrean aurkitzen garenean. Hazi, garatu eta eboluzionatzeko orduan, finkatutako nortasuna eta jokabide-ereduak pentsamendu mugatzaile bihur daitezke. Esandako hau jarraian ulertuko dugu ondorengo adibidearekin: nola hitz egiten diozu beltzaran bati zein hizkuntza hitz egiten duen ez dakizunean?

Azken batean, urte askoan kanpoko eta ezezaguna arriskutsuak izan dira euskaldunontzat. Euskara isildu eta desagerrarazi nahi zuten. Horren ondorioz, zalantza eta beldurrez tratatzen ikasi genuen eta ezezagunari erderaz egiten genion, badaezpada ere. Ikasitako jokabide horiek alde batera utzi behar ditugu eta ezezagunari ere euskaraz egin behar diogu, izan ere, guk uste baino gehiagotan, guk bezain ondo jakingo du. Gainera, ezezagunari euskaraz egiten diogun bakoitzean, gure marka hobetu egiten dugu.

Energia-iturriekin amaitzen joateko, sineskeriak ere aipatu behar ditugu. Askotan, guk geuk geure buruaren gaineko iritzi okerrak dauzkagu subkontzientean eta hauek mugatu egiten gaituzte. Sineskeria mugatzaile horiek, gainera, gure nortasunaren parte bihur daitezke. Errendimendua hobetu ahal izateko, sineskeria horiek gainditzten ikasi beharra dugu. Ez baditugu gainditzten, gerta dakiguke, portaeraren bat aldatzeko erabakia hartu arren, sineskeria mugatzaile horiek gure konpromiso kontziente hori geldiaraztea.

Iraganari atxikitzeak eta sineskeria mugatzaileei eusteak identitate-sentsazioa indartzen dute. Baina, aldi berean, gure buruaren gaineko konfiantza eta hobetzeko ahalmena murrizten dituzte. Konpromiso ezkutuak sortzen dituzte, berriei oztopoak jartzen dizkietenak.

Adibidez, euskaldunon kasuan, *ni ez naiz benetako euskalduna, ni sasi-euskaldun berria naiz, ni lotsatia naiz, euskara erabiltzen badut erradikala naiz, aldeanoa naiz* eta bestelako siniskeriek euskararen erabileran oztopoak baino ez dituzte jartzen. Gure erantzukizuna da gure barnean dauzkagun siniskeriak identifikatzea eta horiekin zer egin nahi dugun erabakitzea.

Azkenik, energia fisikoa aipatzen da liburuan. Denok ezagutzen dugu *mens sana in corpore sano* esapidea. Energia fisikoa ondo kudeatuz gero, errazagoa da energia espirituala, mentala eta emozionala izatea.

### 2.2.3 Errendimendua

Karmelok liburuan kontatzen duenaren harira, asmoak, balioak eta ezagutzak helburura heltzeko ezinbestekoak diren arren, ez dira nahikoa. Arrakasta asmo horiek gauzatzean dago. Ziur nago guztiok hartu dugula noizbait gure bizitzako zerbait aldatzeko erabakia. Zuetako zenbat iritsi zarete helburura beti? Izan ere, maiz kontzeptu mailan geratzen dira asmoak, edo inoiz beteko ez diren proiektuetan hiltzen dira.

Asmo horiek burutzeko, portaeraren bat aldatu beharra dago. Hau, ohituren inguruko atalean ikusi dugun moduan, ez da erraza, gure garuna jokabide konkretu bat izatera ohituta baitago. Joera errepikakor hori aldatzeak energia asko eskatzen du, energia espirituala, emozionala, mentala eta fisikoa.

**Gakoa benetan axola zaigun asmoa izatea da. Hau da, benetan inporta zaigun zerbait lortzeko lana egitea. Horrela bada, samurragoa egingo zaigu prozesua.** Dena dela, helburu asko izan ohi ditugu egungo gizarte lehiakor honetako partaide garen heinean eta horrek ez du beraien osatzean laguntzen. Horregatik, lehentasunak jarri behar ditugu eta helburua oso ondo aukeratu behar dugu.

Euskaraz bizitzeko ahalegina egiten ari denaren kasuan, euskaraz bizitzea izan behar da helburua. Horretan erabili behar du energia guztia, horretan zentratu behar da beste zeregin batzuetan galdu beharrean.

Behin lehentasunak erabakita, helburua gehiago zehaztu beharra dago. Izan ere, helburua zehatza izan behar da bete ahal izateko. **Ingeleseko SMART hitzak helburua nolakoa izan behar den gogorarazten digu: *Specific, Measurable, Achievable, Relevant eta Time-bound*. Hau da, zehatza, neurgarria, lorgarria, garrantzitsua eta denboran mugatua.**

Askotan hori da arazoa, gure helburuek ezaugarri horiek betetzen ez dituztela, alegia. Liburuan aipatzen den moduan, ez ditugu inoiz horrelako helburuak entzuten euskara hobetzeari dagokionez: *Gure helburua legealdia bukatu baino lehen euskararen erabilera %13tik %18ra igotzea da*. Zehaztasun hori falta zaie gure helburuei eta, azkenean, hitz huts baino ez dira.

Bestalde, euskaraz bizitzeko ahalegin horretan oso garrantzitsua da gure ingurua. Ingurune euskaldunean murgiltzen garenean, errazagoa da euskaraz bizitzea. Entzuten ditugun elkarrizketek, giro-musikak, irratiak, edo tabernako telebista-kateak hizkuntza-portaera baldintzatzen dute. Beraz, euskaraz bizi ahal izateko, komenigarria da bidaide euskaldunak aukeratzea eta ingurugiro beretsuan murgiltzea. Azken finean, horixe da helmugara heltzeko lehen urratsa, euskaraz bizi diren lagunengana hurbiltzea eta haietariko bat izango bagina bezala jardutea.

Eta orain arte aipatutako guztia martxan jarri baino lehen, nahitaezkoa da nondik abiatzen garen jakitea. Hasierako egoera ezagutzea ezinbestekoa da errendimendua hobetzeko. Horregatik, azterketa horrek ahalik eta zintzoena izan behar du. Errealitatea onartu beharra dago gure burua epaitu gabe. Euskararen erabilerari dagokionez, askotan geure burua zuritzen saiatzen gara, izan ere, gogorra da onartzea euskaraz bizitzeko ahalegina egin nahi dugunean, agian gu geu garela beste batzuri euskaraz bizitzeko eskubidea ukatzen dieguna. Halaz ere, argi izan behar dugu iritzi eta balorazioek ez dutela egoera hobetzen eta horiek alde batera utzita, objektibotasunez aztertu behar dugu errealitatea.

## 2.2.4 Borroka egoerak. Euskaldunon eguneroko ogia

Utz dezagun teoria alde batera hurrengo lerroetan. Orain arte esandakoa adibidez hornitzeko asmoz, euskaldunok gure egunerokoan bizi ohi ditugun zenbait egoera ekarriko ditugu lan honetara jarraian. *Borroka egoerak* izena eman diegu, askotan, elkarrizketak baino norgehiagokak diruditelako. Ogia erostera goazenean, autobuseko tiketa erosterakoan, anbulategira joatean, telefonoz gure seme-alaben ikastetxera deitzen dugunean, aurrez aurre dugun pertsonarekin *hizkuntza-duelua* deituko duguna izan ohi dugu maiz, erreala edo imaginarioa izan daitekeena. Izan ere, sarri guk geuk jartzen dizkiogu mugak geure buruari, aurrez aurre dugun horren gaitasunak edo ez-gaitasunak aurreikusiz. Ondorengo adibideak Karmelo Ayestaren liburutik hartuak daude, baina nork ez du bere burua horrelako egoeraren batean ikusi?

- Aurrean duguna gu baino burugogorragoa da maiz:

- ***Ebakia eta botila bat ur, mesedez-eskatu nuen.***

- ***¿Cómo?*** - tabernariak ez zuen ulertu antza.

**Orduan konturatu nintzen Zeberion nengoela, eta bertako euskaran saiatu nintzen.**

- ***Al, ebagie eta ur botellea*** - errepikatu nion.

- ***No sé euskera...***- erantzun zidan tabernariak.

- ***Ah, Perdona! Un cortado y una botella de agua.***

Zenbat aldiz eskatzen dugu euskaldunok barkamena gure herrian gure hizkuntza hitz egiteagatik? Zergatik ez daukagu euskaldunok erdaldunek gaztelerarekiko duten fideltasuna euskararekiko? Nondik datorkigu erdaldunenganako eskuzabaltasun hori? Menpekotasun egoeran egoteak ba ote du zerikusia?

- Baina badago, praktika askoren ostean, aurrekoa nola limurtu badakienik:

- ***Koka-kola eta garagardoa, mesedez-*** eskatu zuen irribarrez.

- ***Koka-kola y...¿qué?***- erantzun zion tabernariak.

- ***Garagardoa-*** errepikatu zion, eskuarekin kañak ateratzeko txorroa seinalatzen zion bitartean, irribarrea zabalduz.

**Ordaintzeko orduan irribarre bera erakutsi zion tabernariari:**

- ***Zenbat?***- galdetu zion.

- ***Hiru...tres treinta. Perdona, es que no se euskera.***

Hara! Badirudi erdaldunek ere barkamena eskatzen badakitela!

- Lehenago aipatutako aurreiritzien harira dator ondorengo adibidea. Nor ez da identifikatua sentitzen?

- ***Gizon beltza, euskaraz ez daki, hispanoa izango da: egiozu erdaraz-*** esan zidan ezker hemisferioak.

Eskuin hemisferioak, berriz, adiskidetasun- eta enpatia- emozioak bidali zizkidan; etxekoa izango balitz bezala hartzeko gogoia nuen, euskaraz.

- ***Gaizki hartuko du, errespetu falta da. Gizagaixoari estualdia pasaraziko diozu-*** berriz ere ezkerrekoak.

Nire burutazioetan galduta nengilela, gizonak agurtu egin ninduen:

- ***Sargorie, gaur dauena! Ur freskue ondo etorko jaku!***- esan zidan bizkaierak duen soinua musikalaz; baserrian hazitakoa izango balitz bezala.

- ***Bai, itoteko moduko beroa dago gaur-*** erantzun nion, eta euskaraz jarraitu genuen elkarrizketa. Aldi berean, liberatuta eta lotsatuta sentitu nintzen.

A ze nolako obsesioa dugun euskaldunok errespetuaren kontuarekin! Ondo heziak gaude, dudarik gabe!

- Lehenengo hitza gazteleraz egiten digutenean, askotan inertziak gazteleraz jarraitzen dugu ia pentsatu ere egin gabe. Eta euskaraz jarraitzen badugu, zer gerta daiteke?

- ***¿Estás atendido?***- galdetu dit dendako neska batek.

- ***Ez, badakizu non dauden disko gogorrak?***- erantzun diot.

- ***Bai, etorri nirekin.***

Neskak konplizitate irribarrea erakutsi dit, edo horrela hartu dut nik, behintzat, euskaraz egin diodalako pozik sumatu dut.

A ze nolako poza horrelako egoeretan! Eta aurrekoak euskaraz ez badaki? Zer da gerta daitekeen okerrena?

-***Ebakia, mesedez-*** eskatu dut.

Tabernaria bueltatu eta kafea prestatu du.

- ***Ahí tiene-*** esan dit kafea barran jartzen zuen bitartean.

- ***Sakarinarik baduzu?***- galdetu diot.

Sakarina eman dit eta kafea ordaindu diot. ***Agur*** batekin agurtu nau.

Norbaitek pentsa dezake hau ez dela gerta daitekeen okerrena, izan ere, denok dakigu badaudela euskararen kontrako jarrera aktiboa dutenak. Dena dela, ez dira gehiengo inondik

inora eta gu, aurrera egiten laguntzen diguten egoera eta aukeretan zentratu behar gara, ez salbuespenetan.

Hauek adibide batzuk baino ez dira izan. Euskaldunok egunero bizi ohi ditugu horrelako hainbat egoera, eta ingurune ez oso euskaldunetakoak direnak are gehiago. Egia da, gainera, askotan ez dugula borrokarako gogorik. Izan ere, horrelako egoerek energia asko xurgatzen dute eta guk, gizakiak garen heinean, baditugu beste zenbait kontu eta kezka. Dena dela, ez dugu gure burua epaitu behar noizbait amore ematen badugu, ezinezkoa da beti indartsu sentitzea. Horrelakoetan gertatutakoaz ikastea eta hurrengo *rounder*ako prestatzea besterik ez zaigu geratzen!

### 2.2.5 Entrenamendua

Gure helburura bidean egiten dugun entrenamedua entrenamendu fisikoarekin pareka dezakegu zenbait kontutan. Esaterako, denok dakigu gure markak hobetzeko erosotasun-eremutik irten behar garela kirolari dagokionean. Eremu horretatik irtetea bakarrik lortuko dugu apurka-apurka urrunago heldu ahal izatea. Gure helburuari dagokionez ere, **erosotasun-eremutik kanpo aritu behar da gaitasun emozionala, mentala, eta espirituala garatzeko. Hori, gure kasuan, abantaila bat da, izan ere, oso mugatua dugu euskaldunok erosotasun-eremua.** Oso erraz aurki ditzakegu hortik aterako gaituzten erronkak, kafe bat euskaraz eskatzea ere erronka bat izan baitaiteke guretzat. Erronkek hazi, garatu eta eboluzionatzera behartzen gaituzte eta emozio positiboek, autoestimua, motibazioa, konfiantza, enpatia eta asertibitatea erabiltzen irakasten digute.

Horrelako balioei esker lortuko dugu solaskidea aurkari bat bezala ikusi beharrean, entzutea, haren lekuan jartzea eta ulertzen saiatzea. Euskaraz hitz eginda estualdia pasaraziko diogula sinetsi beharrean, hobe imaginatzea euskaraz hitz egitean euskaraz egiteko aukera zabalduko diogula. Gainera, ez dago dudarik maila fisikoan sentitzen duguna oharkabean aurrean dugunari transmititzen diogula. Beldurra, urduritasuna eta erruduntasuna gure aurpegi larrian edo irribarre behartuan antzeman daitezke. Konfiantza, pazientzia edo enpatia sentitzen ditugunean, ordea, begietara begira dezakegu eta gure irribarra naturala da. Horrela, egoera desoroak ekidingo ditugu eta askoz ere lasaiago sentituko gara.

Hala ere, horrela ere mintzakideak erdarara pasatzeko esplizituki eskatzen digunean, erabakia norberaren esku dago. Solaskideak euskaraz komunikatzeko benetako ezintasuna badu, enpatiak hizkuntzaz aldatzea eskatzen du; solaskidea euskaraz komunikatzeko gai bada, berriz, bi aukera daukagu: edo eskuzabalak izatea, edo asertiboak izatea. Ez dira nahastu behar, ordea, asertibitatea eta oldarkorra izatea, eskuzabala edo inuzentea izatea nahastu behar ez ditugun bezala. **Katalunian, adibidez, gatatzak saihesteko norberaren hizkuntza utzi eta beti bestearena erabiltzea ez da eskuzabaltasunaren seinaleztzat hartzen, menpekotasunaren seinale bezala baizik.**



Eskuzabaltasunaren aitzakia hori askotan aipatzen dugu euskaldunok euskara alde batera uzteko. Errua gugandik aldentzeko beste taktika bat errua zuzenean besteei egozte da. Beste horiek urrunekoak edo ezezagunak badira, errazagoa da kontua, baina harreman estuen munduan sartzen garenean, orduan bai komeriak. Adiskidetasunak eta maitasunak eragin handia dute erabakietan eta iritzietan. Hizkuntza-hautua bigarren mailan gera daiteke adiskidetasuna arriskuan jar dezakeela uste bada. Gaztelera erabiltzea benetan gure hautua bada, ez dago arazorik, aukera bat da, euskara erabiltzea bezain zilegi dena. Arazoa agertzen da norberaren asmoa eta errealitatea bat ez datozenean. Orduan jartzen ditugu arriskuan gure integritatea, erantzukizuna, konfiantza eta autoestimua.

Bizitzaren erronkei aurre egiteko bi jarrera desberdin har ditzakegu: konfiantza edo zalantza. Batak segurtasuna eragiten du eta erronkari heltzeko indarra ematen du, besteak, aldiz, ziurtasun-gabezia eragin eta kezka eta beldurra sortzen ditu. Eraginkorrak izateko, beraz, zalantzak alde batera utzi eta konfiantzaz egin behar da aurrera. Baina nondik datozkigu zalantza horiek? Askotan norberaren aurreiritzietatik. Izan ere, perfektuak izan behar dugula uste dugu eta besteen aurrean huts egiteko beldurra paralizatu egiten gaitu.

Hori gertatzen zaio euskaldun berri askori. Euskaraz hitz egiteko euskaldun perfektuak izan behar dutela uste dute, eta horrek euskara ez erabiltzera bultzatzen ditu zuzenean. Euskaldun zaharrok badugu hortan zerikusia. Sarri, ez dugu pazientziarik euskara ikasten ari direnekin eta gu geu pasatzen gara gaztelera kasurik okerrenetan. Beste batzuetan, gaztelera ez pasa arren, irakasle paperean sartzen gara bat-batean eta aurrekoaren akats guztiak zuzentzeko lizentzia ematen diogu geure buruari. Gainera, euskara ikasten ari direnei edo jada dakitenei *euskaldun berri* etiketa jartzen badiegu, nola sentituko dira euskaldunon parte? Guk geuk bereizten ditugu, guk geuk aldentzen ditugu gugandik. Noiz arte da pertsona bat euskaldun berri? Gida baimena ateratzean ematen diguten *L* hori eraman behar al dute betirako? Ziur al gaude hori dela bidea? Euskaldunok zenbait konturen inguruan hausnartu beharko genuke eta autokritika egin.

**Konfiantza hedatzea da ingurukoen, bai ezagunen bai gertukoen, hizkuntza-portaera aldatzeko bidea. Inor ez da perfektua: norberaren inperfekzioak azaldu eta bestearenak estimatu behar dira.** Izan ere, solaskideak sentitzen duenean euskaldun inperfektua izateagatik gehiago balioesten dugula haren jarduna, orduan galduko du beldurra eta sentituko du erronkari aurre egiteko konfiantza.

### 2.2.6 Aitzakien *TOPa*

Orain arte errendimenduaz, entrenamentuaz eta beste zenbait kontuz aritu izan gara. Dena dela, guzti hauekin behin bidea egiten hasita egiten dugu topo. Askotan, ordea, bide hori hasi ere ez dugu egiten eta geure burua justifikatzeko oso ohikoak diren aitzakiak erabiltzen ditugu. Hona hemen euskara ez ikasteko erabiltzen diren aitzakien *TOPa*.

### **1. Elebakartasunaren errua gurasoena edo hezkuntza-sistemarena da.**

Denok dakigu zeinen erraza den aldamenekoari errua botatzea geure buruaren ardura errekonozitu beharrean. Dena dela, aitzakia hau zaharkituta geratzen ari da; izan ere, egun, guraso erdaldun elebakarren seme-alaba gehienek euskaraz ikasten dute, eta batzuk euskaldun zaharrek baino hobeto hitz egin ere. Datuen bat aipatzearren, aurtien EAEko gurasoen %3k bakarrik matrikulatu ditu seme-alabak A ereduan. Beraz, zilegi al da gurasoei edo hezkuntza-sistemari errua botatzea?

### **2. Frankismoaren garaian jaiotakoa naizenez gero, ez dut euskaraz ikasteko zorterik izan.**

Zorionez, Franco hil zenetik hona ia berrogei urte pasatu dira. Beraz, berrogei urte horietan euskara ikasi ez duenak, ez du egin nahi izan ez duelako. Egun, baliabide anitz daude euskara ikasi nahi duenarentzat, ume, gazte, heldu zein zahar. Iraganeko aukera galduari erreferentzia egiteak ez du balio egungo aukeraren galera justifikatzeko.

### **3. Gazteak dira euskararen egoeraren errudun.**

Asko dira duela urte batzutako konpromisoa eta militantzia goraiatzen dutenak egungo gazteen arduragabekeria salatuz. Egungo gazteek duten konpromisoan edo militantzian sartu gabe, erabileari besterik ez so eginez, badakigu egungo gazteek ordukoek baino gehiago erabiltzen dutela euskara. EAEko gazte gehienak euskaraz mintzatzen dira noizbehinka, eta hori lehenengoz gertatzen da historia garaikidean. Estatistikek, gainera, erakusten dute 16-24 adin tarteko gazteak direla euskaraz maizago egiten dutenak.

### **4. Gizarteak ez du euskararen aldeko legerik edo arautegi indartsurik onartzen.**

Errealitateari erreparatzea besterik ez da behar aitzakia hau baliogabetzeko. Hezkuntzan, profesionalak euskaldundu egin dira azken hogeita bost urteotan, halabeharrez, hain zuzen ere. Gaur egun EGA izatea derrigorrezkoa da irakasle lanetan aritu ahal izateko eta, irakaskuntzaz gain, beste lanpostu batzuetan ere eskatzen hasi dira dagoeneko. Hori gutxi balitz, esan dezakegu gizarteak bat egin duela estrategia horrekin eta, hori dela eta, guraso ia guztiek bidaltzen dituztela haien seme-alabak euskarazko eredura. Neurri horiek nahikoa diren ala ez beste eztabaida bat da, baina goazen zentratzera eta baloratzera esku artean duguna eta pausuka-pausuka joan gaitezen gehiago lortzen.

### **5. Gizarteak ez dio euskarari baliorik ikusten.**

Hori horrela bada, zergatik uste du gurasoen %97ak haien haurrek etorkizun hobea izango dutela euskara ere jakinez gero? Kontrakoa uste duena gutxiengo marjinala da. Gehienok euskarak gure komunitatean gero eta garrantzia gehiago izatea espero dugu, horregatik dauka D ereduak duen arrakasta.

## 6.Euskaldunak gutxi gara.

*Tribuaren berbakeko*<sup>19</sup> lehenengo saioa ikusi zuenak aho zabalik jasoko zuen aitzakia honi erantzuteko erabil genezakeen datua. Munduan zehar barreiatutako 6000 hizkuntzetatik, 100 hizkuntzek bakarrik dute milioi bat hiztun baino gehiago. Askori hain txikia eta hain garrantzi gabekoa iruditzen zaien gure euskara horien artean dago. Munduan dauden hizkuntzen %90ak, beraz, euskarak baino hiztun gutxiago du. Zerbait gehiago esatea beharrezkoa al da?

### 2.2.7 Euskara guaya da!

Norbaitek zalantzarik ba al dauka? Ba badirudi baietz. Badaude euskara *guaya* ez dela esaten dutenak. Baina zer da ba *guaya* izatea? Erakargarria, ona, polita den zerbait adierazteko erabiltzen da hitz hori. Nork dio euskara ez dela erakargarria, ona eta polita? Nork dio hizkuntza bat *guaya* izan behar dela jendeak hitz egin dezan? Ingelesa *guaya* al da? Ba agian haserrealdi batean “*You are a fucking wanker!*” esan dezakeenarentzat bai, baina eta “*You are stupid!*” indargabeko batekin konformatu behar denarentzat? Horrek ba al du indarra? *Guaya* al da?

Orduan zein da kontua, hizkuntza bera erakargarria den ala ez, edo norberak hizkuntza batean duen gaitasunarekin egin dezakeena? Ba zuzena bigarrena delakoan nago. Izan ere, zerk egiten du hizkuntza bat erakargarri? Erantzuna emozioak indarrez adierazteko ahalmena bada, azter dezagun gaztelera. *Guay, flipau, crack, cool*, adibide batzuk baino ez dira eta denak ingelesetik mailegatutakoak. Beraz, gaztelera berak ba al du indarra? Erantzunak baiezkota izaten jarraitzen badu, gaztelera pobrea eta errekurtsio gabekoa kontsideratzen al dugu ingelesetik maileguak hartzeagatik? Inolaz ere, gaztelera guztiz hizkuntza *guaya* iruditzen zaigu.

Orain arteko guztia argi badugu, berehala konturatuko gara euskara *guaya* ez delako ideia hori euskarari kalte egiteko beste aurreiritzi faltsu bat baino ez dela. Hizkuntza bat erakargarri hitzunez egiten dute, hizkuntzak hitzunez aberasten dituzte egunerokoan erabiliz, esapide zaharrak berrinterpretatuz eta berriak asmatuz. Beraz, erabileran, sormenean eta jolasean dago gakoa. Hori argi eta garbi ikus dezakegu euskara gehien erabiltzen den zonaldeetan non, inongo dudarik gabe, *guaya* den! Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *Jota*(Oñatin)(=oso): *jota jodiuta ñauan, jota pozik...*
- *Kriston*(Gipuzkoan)(=oso): *kriston ona...*
- *Jebixe*(Bizkaian)(=la ostia, itzela): *hori super jebixe da*
- *Txistua jo*(Lea-Artibain)(=alkoholemia)

---

<sup>19</sup> *Tribuaren Berbak* Kike Amonarrizek ETB1en aurkezten duen saio bat da. Euskararen inguruan aritzen dira.

- *Lanbasa atrapa*(Lea-Artibain)(=mozkortu)
- *Azpimarratuta joan*(=kolokatuta)
- *Zapatuen egongo gatxink!*(Galdakon)(hedabideetatik hartua)

Ez dago zalantzarik, beraz, euskararekin beste edozein hizkuntzarekin bezala jolas daitekeela. Euskara erabili egin behar dugu, sortu, jolastu, zikindu, birsortu, nahi adina berrinterpretatu. Hizkuntza bizia izan behar da, aktiboa, mugitzen dena, garatzen doana. Horrela lortuko dugu guk euskarak berez edozein gauza indarrez adierazteko daukan ahalmena eta indarra. **Atera diezaiogun zukua euskarari, euskara guaya da ta!**

### 2.2.8 Gure hizkuntza ohiturak aldatzen. *Azken txanpa*

Albert Einstein zientzialariak esan omen zuen: *Insanity is doing the same thing over and over and expecting different results*. Beraz, bai, hobetu nahi izanez gero, aldatu egin behar da. Ez dago zalantzarik aldaketa-prozesu horrek energia anitz xurgatzen duela, baina egin beharreko zerbait da. Sarri gertatu ohi da, gainera, norbera konturatu gabe geure buruak aldatu nahi den aurreiritzia finkatzeko egiturak eraikitzen dituela, hau da, erresistentzia moduko bat sortzen duela. Estructura horiek aldaketa zailtzen dute eta helburura heltzea oztopatu. Hala ere, oztopo horien gainetik pasatzeko gai gara geure buruarenganako juzguak alboratzen baditugu.

Izan ere, maiz norbera ez dela aintzat hartzekoa, ez dela baliotsua, ez eta laudagarria pentsatzen dugu. Arrakasta merezi ez dugula sinistarazten diogu geure buruari eta horrek jokabide lotsatia, xumea, baldarra eta arrunta indartzen ditu.

Aldaketa baten aurrean kokatzen garenean, bi egitura moten artean aukeratu dezakegu: lehenak, portaera zaharra finkatzen dutenak lirake eta, bigarrenak, hobetzen lagunduko dutenak. Egitura kaltegarria osatzen duten elementuetako bat zuzitzeko jokaera izaten da, baina hori baztertuz gero, eta helburura heltzeko lagungarriak direnak aukeratuz gero, energia gutxiago beharko da portaera aldatzeko. **Bi dira, hortaz, proposatzen diren pausuak: lehena, kontzientzia hartzea eta egituren garrantziaz jabetzea; bigarrena, errendimendua hobetuko duten egiturak aukeratzea.**

Orain arte norberak egin beharreko lanaz aritu izan bagara ere, *txakurrak elkartzen badira, otsoak urrutira*. Esaera zahar honek lankidetzaz eta sinergiaz dihardu. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko unean ere sareak sortzeak ikaragarritzko garrantzia dauka. Izan ere, sinergiak izugarritzko eragina dauka norberaren errendimenduan. **Lankidetzaz ezinbestekoa da errendimendua optimizatzeko, sinergizatu egin behar da eraginkorrak izateko.**

Dena dela, saretzeak ez du esan nahi ahalik eta jende gehiena elkartu behar dela, baizik eta ahalik eta jende egokiena. Hortxe dago gakoa. Harreman sendoak garatu behar dira

besteekin; garrantzitsuena ez da, beraz, kontaktu asko izatea, ditugun kontaktuekin ondo konpontzea baino.

Esan gabe doa egungo hizkuntza-portaerak bere horretan mantendu nahi dituztenek, kontrakoa sartu nahi izan digutela buruan: gurea banakako erronka dela, hau da, hizkuntza-maratoia banakako espezialitatea dela; norberak erabaki behar duela zenbat entrenatu eta non lehiatu. Baina munduko adituek bestela diote: edozein espezialitatetan arrakastatsua izateko saretu egin behar dela eta sinergia bilatu.

Hala eta guztiz ere, emandako jarraibideei kasu eginagatik ere, ez dago ziurtatuta berehalako arrakasta. **Inork ez zuen esan erraza izango zenik.** Dena dela, huts egite bakoitzean ikasi egin daiteke. Akatsak ez dira ukatu behar, ikasteko erabili behar dira. Oso garrantzitsua da nork bere burua barkatzea hanka sartu ostean, baina alferrikako lana da errudun sentitzea, are gehiago, kaltegarria da aurrera jarraitzeko. Izan ere, erruak emozio negatiboak eragiten ditu. Beraz, argi izan behar dugu hanka lokatz-putzuan sartu gabe ez dagoela hobekuntzarik eta lotsa, damua eta errua irteeran utzi behar ditugula.

Atal honekin amaitzen joateko, aldaketa prozesu horietan murgiltzen direnen aukeretaz hitz egingo dugu. Zein aukeretaz ari gara oraingo honetan? Ba gure erosotasun gunean geratzeaz edo bertatik irteteaz. Izan ere, askotan gertatu ohi da norberak bere *ghetto* euskalduna sortzea. Sarri geure euskal hiztunen komunitatetxoak sortzen dugu, homogenea, baketsua, segurua, eta ez gara bertatik irteten. Hala ere, jakina da solas-parke istilugabeetan ez dela gatazka soziala gainditzen ikasiko, ez zaiela beste haien jarrerari eta erantzunei aurre egingo eta gatazkak aurrera eramateko ahalmena galdu egingo dela.

Beraz, puntu honetan norberak bere helburuak oso argi izatea da inportantea. Gure helburua euskaraz bizitzea bada, gatazka egoerak saihestea aukera posible bat izan daiteke. Izan ere, ez zaigu axolako gatazka egoera horiei aurre egiteko ahalmena ez garatzea, gure euskal komunitate baketsuan biziko baikara. Harategi euskaldun batera joango gara, ogia gure auzoko euskaldunari erosiko diogu, lagun euskaldunak aukeratuko ditugu, *herrikora* joango gara trago batzuk hartzera...

Gure helburua, ordea, gatazka sozialak gainditzea bada eta edonon eta edonoiz euskaraz hitz egin ahal izatea, beste bide bat hartu beharko dugu. Kasu horretan gatazkei aurre egiteko ahalmena landu beharko dugu. Eta, zer egin horretarako? Zorionez, badago horren inguruan lan egin duenik, euskaraz egunero sortzen zaizkigun egoerei aurre egiteko lagungarriak eskuragarri jarri dituenik. Konkrétuki, *EMUN* lana euskalduntzeko kooperatibaz ari naiz eta honek proposatutako ekintza desberdinez, horien artean *TELP* tailerrez. Dena dela, hurrengo atalean hitz egingo dugu kontu hauei buruz.

Hortaz, norberaren helburuak argi izatea ezinbestekoa dela ikusi dugu. Nire ustetan, ordea, ez legoke gaizki euskal *ghetto*etan bizitzea erabakitzen dutenek ere gatazkei aurre egiteko ahalmen hori eskuratzea. Izan ere, gizarte honetan guztiz isolatuta bizitzea ezinezkoa da eta edozein momentutan topa dezakegu aurrez-aurre espero eta gustoko ez dugun egoera bat. Horrelakoei aurre egiteko tresnak izateak asko lagunduko digu gure bizitzan zehar.

Gatazkak daudela, beraz, ezin ukatu; baina baita enpatia, elkarlana eta konfiantza ere. **Eta ez dago zalantzarik aldaketa prozesu horretan enpatiaz eta konfiantzaz lortzen direla emaitzarik onenak. Borrokan, berriz, beti galtzen da.**

Amaitzeko, komeni da aipatzea arrakasta ez dela helburua betetzen denean bakarrik aitortzen, baizik eta helburua lortu ez arren, norberaren balioen eta asmoen arabera jokatu denean. Orduan, oso arrakastatsu sentitzeko arrazoiak daude.



## 3. EMUN. Motibazio tailerrak eta *Zer egin...?*

---

1997an EMUN lana euskalduntzeko kooperatiba sortu zenetik, Euskal Herriko gizartearen garapenaren alde lan egin du, euskararen egoera normalizatzeko misioa bere eginez. Hogei urte beranduago, gizarteak gaur egun dituen beharrei erantzuteko esperientzia eta lanabesak dituen jakitun, garai berri bati gogotsu ekin dio, beharrezkoak diren portaera aldaketetan eragiteko.

Helburua arazo sozialen aurrean gaur egungoak baino eraginkorragoak, iraunkorragoak eta bidezkoagoak diren eta gizarte osoarentzako balioa sortzen duten irtenbide berriak sortzea da. Hizkuntza, kultura, aniztasuna eta parte hartzea uztartzen dituen katalogo bat eskaintzea izan da EMUNen asmoa. Kooperatiba honek, finean, xede nagusi bat baitu: euskararen eta Euskal Herriaren garapena, euskararekiko eta bezeroarekiko konpromisotik eta inplikaziotik hasita.

EMUN kooperatibak zerbitzu asko eskaintzen ditu, hala nola, kultura zerbitzuak, aniztasun eta imigrazio zerbitzuak, parte hartzeari lotutako zerbitzuak eta, guri gehien interesatzen zaizkigunak, hizkuntza zerbitzuak.

Arlo sozioekonomikoa gure gizartearen motorra izanik, EMUNen berebiziko erronka da arlo horretan euskararen garapen osoa lortzea. Aldeko jarrera izatetik erabiltzera tarte handia dago eta tarte horretan laguntzea da EMUNen zeregina. Nola egiten du hori? Bada, motibazioa landuz eta gero eta handiagoa den ezagutza erabilera bilakatzen saiatuz. Testuinguru globalizatuan, hizkuntzak era egokian kudeatzea gero eta garrantzitsuagoa da mota guztietako entitateetan eta, zalantzarik gabe, hizkuntza kudeaketa horretan euskarak bere lekua izan behar du.

Euskarak bere leku hori bereganatu dezan, enpresetarako euskara planak, erakunde publikoentzako aholkularitza, eragileentzako prestakuntza, itzulpenak, motibazio tailerrak eta bestelako zerbitzuak eskaintzen ditu EMUNek. Lan honetan jorratzen ari garen hizkuntza-ohitura aldaketekin lotuta dauden motibazio-tailerrei buruz hitz egingo dugu hurrengo lerroetan.

### 3.1 Motibazio tailerrak

Hizkuntzekin eta zehazki euskararen motibazioarekin erlazionatutako gaiak lantzen dituzten tailerrak dira hauek. Hainbat motibazio, jarrera eta kontzientzia maila ezberdin aurki ditzakegu pertsonen artean eta, beraz, erakunde bateko langile bakoitza bere mailara egokitutako hausnarketa eta edukiekin motibatu behar da.

Berez erakunde edota enpresetako langileei zuzendutako tailerrak izan baziren ere, apurka-apurka jende gehiagori helarazi zaizkio. Esate baterako, hedapen nahiko zabala izan duen tailer bat TELPa izan da.

**Zeri buruzkoak dira TELP tailerrak?** Tailer hauek hainbat egoeratan euskaldunok sufritzen dugun deserosotasuna murrizteko, hizkuntza jokaera asertiboari esker gustorago egoteko eta euskara gehiagotan erabili ahal izateko baliabideak eskuratzeko dira. Beste era batera esanda, euskaraz eroso, nonahi eta noiznahi sentitzeko.

Telp tailerrak herri askotan antolatu dira, hala nola, Pasai Donibanen, Otxandion, Etxebarrin, Zumarragan, Bermeon edota Zarautzen. Gainera, posible da, hala nahi izanez gero, beraiekin kontaktuan jartzea eta tailer hauek norberaren herrira ekartzea.

Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi izanez gero, oso lagungarri suerta daitezke tailer hauek, izan ere, gure hizkuntzari deseroso sentitu gabe nola eutsi irakasten digute. Lehenago aipatu ditugun gatazka egoerei aurre egiteko tresnak ere eskura ditzakegu eta, horrela, egoera horietatik urduri jarri gabe ateratzea lor dezakegu. Edonork pentsatuko luke gure herrian gure hizkuntza erabiliz eroso sentitzea oinarrizkoa dela, baina, zoritxarrez, bizi dugun egoera diglosikoan hori ez da horrela oso sarri. Beraz, ezinbestekoa da horrelako egoeretatik deserosotasunik sentitu gabe irteteko tresnak eskuratzeko eta horixe da TELPak emango diguna.

Beste motibazio tailer bat **ETM\_Esatetik Egitera** da. Tailer honen helburua euskararen erabileran eragiten duten faktoreei buruzko prestakuntza hartzeaz gain, nor bere iritzi eta usteak azaltzea eta pentsamendua garatzea da. Euskararen egoeran eragiten duten hainbat faktoreri buruz hitz eginez, pentsamendua lantzen da eta aurrera begira eman beharreko pausoak irudikatzen dira. Hau da, esatetik egitera jauzia egiteko prestakuntza da.

Tailer hau oso baliagarria izan daiteke Karmelo Ayestak bere liburuan aipatzen duen integritatearekin arazoak dituztenentzat. Izan ere, asko dira euskararen alde egon arren, hitz egiten ez dutenak eta kontraesan batean bizi direnak. Barne gatazka horiek konpontzea ezinbestekoa da norbere buruarekin eroso sentitzeko.

**Sentsibilizazio saioak** ere eskaintzen ditu EMUNek. Administrazioako langileak euskara planaren eta orokorrean euskararen inguruan sentsibilizatu eta kontzientziatzea da saio labur hauen helburua. Saio hauei dagokienez, ezinbestekoa da saioak euskaldunekin batetik eta bestetik, euskaraz mintzatzen ez direnekin antolatzea.

Hartaile taldearen arabera, helburua desberdina izango da. Euskaldunen kasuan, euskararen erabilera areagotzea izango da xedea; erdaldunen kasuan, berriz, euskaldunaren hizkuntza aukeraren aurrean errespetuz jokatzeko.

Ikusi bezala, motibazio tailer hauek hizkuntza-ohiturak aldatzea pentsatzen ari denari asko lagun diezaioke. Izan ere, argi dago guztiz barneratuta dauzkagun ohiturak aldatzea ez dela batere erraza. Askotan ez dakigu nondik hasi ere, ez eta zein tresna erabili behar ditugun bideari ekiteko. Horixe da, finean, tailer hauen helburua, beharrezko ditugun tresnak erraztea. Horrela, askoz ere lasaiago eta konfiantza gehiagoz ekingo diogu aldaketa prozesuari.



Aipatutako motibazio tailerrez gain, EMUNek *Moti+batu* topaketa antolatu zuen Donostiako San Telmo museoan iazko irailaren 10 eta 12an. Euskararekiko motibazioa ardatz hartuta, garapenean edo-eta irakaskuntzan dabilzan eragile guztiei zuzenduta zegoen eta gai zehatz batzuk landu ziren taldeka banatuta, arrakastarako gakoak eta lanerako ildoak identifikatzeko.

Konkretuki, lehenengo egunean, euskararekiko jarrera ona izan baina egiteko ohiturarik ez dutenengan nola eragin aztertu zen(Nagiak astinduz)(Mingaina askatuz). Bigarrenean, berriz, euskara ikasten ari direnei euskara erabili dezaten nola lagundu landu zen. Nahiko orokorrak diren gai hauek, sakonago aztertu ziren talde desberdinetan.

Berrikuntza oinarri zuen topaketa hark, euskarak azken urteotan izan duen ibilbideari erantzuteko asmoa zuen. Izan ere, euskararen ezagutzak nabarmen gora egin badu ere, erabilerak ez du neurri berean aurrera egin. Zenbait adituren arabera, gainera, egungo estrategiekin nolabaiteko tope batera heldu da euskararen erabilera eta, beraz, bide berriak esploratu eta zabaltzeko premiak nabarmenak dira.

Helburu horrekin euskara elkarteetakoak, euskaltegietakoak, irakasle eta berritzeguneetakoak edota euskara teknikariak elkartu ziren. Lehen saioan hirurogeita hamabost lagun eta bigarrenean, hirurogei. Bakoitza bere ibilbidearen eta esperientziaren jabe, ezagutza konpartitu eta lanerako ideiak sortu ziren. EMUNen erronka motibazioaren bueltako gaietan sakondu eta azken urteotan pilatutako ezagutza konpartitzea izan zen.

Topaketaren ostean, bertan eman ziren hitzaldietako eta mahai-inguruetako bideo grabazio guztiak eta baita lan taldeetan sortutako ideiak ere argitaratu ziren *Lantalanen*<sup>20</sup>. Denon eskura jarri zuten ezagutza hori norberak bere esparrura eramateko. Aukera izanez gero, oso gomendagarria da begiradaxo bat botatzea, oso interesgarriak izan baitziren han ateratako ideiak. Euskararekiko motibazio hori sortzea ezinbestekoa da hizkuntza-ohiturak aldatuko baditugu, bai norberarengan, bai besteengan.

### 3.2 Zer egin...?

Zer da *Zer egin...?* eskuliburua? Bada EMUNek sortutako, euskaraz egiterakoan, egunero sortzen zaizkigun egoerei aurre egiteko lagungarriak diren aholkuak ematen dituen eskuliburua. Lehenago aipatutako TELP tailerretan erabiltzen da, baina horren osterako ere oso erabilgarria da. Kataluniako *Plataforma per la Llengua*<sup>21</sup> erakundeak egindako *Què faig si...?* izenekoaren Euskal Herrirako egokitzapena da.

---

<sup>20</sup> *Lantalan* EMUNek sortutako webgunea da, lan munduan euskara gehiago erabili nahi duten pertsonei, enpresei eta bestelako erakundeek laguntza emateko asmoz.

<sup>21</sup> *Plataforma per la Llengua* Kataluniako gobernu kanpoko erakunde bat da, 1993an sortua. Helburua katalaneraren erabilera areagotzea eta bermatzea da.

Gure eguneroko bizitzan, hizkuntzaren erabilerari dagokionez, aurre egiteko zailak iruditzen zaizkigun egoerak aurkitzen ditugu sarritan. Dokumentu honetan, hainbat jokabide iradokitzen dira horrelako egoeretan lagungarriak izango zaizkigulakoan. Azken finean, eguneroko egoeretan euskaraz normaltasunez egitea errazteko asmoa du eskuliburu honek.

Oso baliagarria suerta dakiguke dokumentu hau hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesu horretan murgildu baldin bagara. Izan ere, lehenago komentatu bezala, inguruak eragin handia dauka gure jarreretan eta, askotan, nahi ez dugun hizkuntza jokabidea hartzera behartzen gaitu. Dena dela, Ayestak dioen bezala, erantzukizuna gurea da eta gu geu gara gure jokabideei buelta eman diezaiekegun bakarrak.

Horregatik, gure ideiekiko koherentziaz jokatu nahi badugu eta gure inguruak gure jarrerekiko duen eragina murriztu, tresnak behar ditugu horrelako egoerei aurre egiteko. *Zer egin...?* liburuxkak iradokizun orokor batzuk ematen dizkigu eta , gero, adibide batzuk aurkezten ditu.

Oinarrizko ideia bat aipatze aldera, esan beharra dugu egoera horiek lasai hartzea komeni dela, umorez eta jarrera eraikitzailez. Ez badugu horrela egiten, asaldatu edo haserretu egiten bagara, horrek sortarazitako ondoezak eta nekeak asko zailduko digu hizkuntza jarrera duin, konprometitu eta koherenteari eustea.

Euskaraz hitz egiten ez digutenekin aritzen garen bakoitzean, gatazka baino gehiago, geure buruari eta geure nortasunaren zati den hizkuntzari ekarpen positiboa egiteko aukera ikus dezakegu. Kontua ez da etsaiak egitea, konplizitateak sortzea baizik. Gure eskubideak aldarrikatu behar ditugunean ere, modu asertiboan egiten saiatuko gara, eta ez modu defentsiboan.

Aztergai dugun liburuxka hau hainbat ataletan banatuta dago: *A) Zein da euskararen egoera?; B) Zeintzuk dira gure hizkuntza eskubideak?; C) Zer eta nola egin dezaket nik?; D) Hainbat egoera, adibide gisa; E) Nora jo erreklamazio ofizial bat egiteko edo informazioa jasotzeko; F) Hizkuntzaren inguruko lege-arauak; eta G) Euskararen egoerari buruzko iturriak.*

Eskuliburu hau bere osotasunean interesgarria iruditzen zaidan arren eta, beraz, edozeini gomendatuko niokeen arren, lan honetarako *C) Zer eta nola egin dezaket nik* atala iruditzen zait inportanteena.

Dena dela, kontu horretan sakondu baino lehen, liburuxkatik atera daitezkeen ideia nagusiak aipatuko ditut hurrengo lerroetan:

1. Euskal Herriak 3 milioi lagun inguru bizi gara, eta horietatik 700 mila inguru gara euskaraz hitz egiteko gauza eta 400 mila gutxi gorabehera ulertzeko gauza; guztira milioi bat baino gehiago gara gauza euskara ulertzeko.
2. Oraindik ere gutxi erabiltzen da euskara, baina joera orokorra ona da, haztekoa. Gainera, zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera oro har.

3. Euskal Herriko biztanleen zati handi bat euskara sustatzearen alde dago, baina desberdintasun handiak daude lurraldeen arabera.
4. UNESCOren arabera, euskara desagertzeko arriskua duten hizkuntzen artean dago. Hala ere, aurrerapausoak egin dira azken hamarkadetan.
5. Euskara desagertuko balitz galera handia litzateke guretzat, baina baita gizateria osoarentzat ere.
6. Hizkuntzak ez dira “berez” desagertzen, hiztunek libreki hala erabakitzen dutelako baizik. Hizkuntza bat lurralde batetik desagertzen denean, beste bat inposatzen delako izan ohi da.
7. Inposizio planifikatu hori nabarmena izan da hainbat garaitan, batez ere XX.mendearen hasieran eta erdialdean Frantziako eta Espainiako estatuetan.
8. Hizkuntza bat galtzeak mundu osoari eragiten dio, izan ere gizateriak mendeetan garatutako baliabide bat galtzen da hizkuntza bat desagertzerakoan.
9. Ez dugu ahaztu behar nahiz eta legeek ez jaso gure hizkuntza eskubideak, pertsona gisa eta duintasunagatik, aitortzen ez zaizkigun horiek aldarrikatu eta exijitu ditzakegula.
- 10. Euskaraz eroso eta normaltasunez egiten badugu, gure eredu imitatza joko dute inguruko batzuek behintzat.**
11. Azken hamarkadetan euskararen ziurtagiriak sortu dira, produktu eta zerbitzuetan euskararen presentzia bultzatzeko.
- 12. Ez dugu zertan deseroso egon geure hizkuntza eskubideak eskatzeagatik. Hori geratzen zaigu euskara eta euskaltasuna baztertuta egon delako eta horrek gure autoestimuari eragin diolako.**
13. Kexa bat jartzerakoan, ahalik eta informaziorik zehatzena ematea eta ahal diren frogak guztiak aurkeztea komeni da, nahiz eta, batez ere ahozko harremanetan, oso zaila izan frogarik lortzea.
- 14. Ohitura aldatzeko asimilazio edo akulturazio prozesu baten bidez botereek inposatutako jokaera kodeetan du jatorria “kortesiaz” hizkuntza aldatzeko topikoak.**
- 15. Lehen hitza beti euskaraz egiteak sorpresa on asko emango dizkigu; izan ere, uste ez genuen tokietan ere euskaraz egingo digute maiz.**
- 16. Edozeini egin diezaiokegu lehen hitza euskaraz, duen itxura duela.**
- 17. Oso garrantzitsua da, betiere, tinko baina haserretu gabe adieraztea esan nahi duguna, asertibotasunez.**
- 18. Lege egoera edozein izanda ere, bulego guztietan lehen hitza euskaraz egin dezakegu.**
19. Askorentzat zailagoa izango da zuzenean aurre egitea horrelako funtzionarioei eta, beraz, hobe izango da geroago salatzea gertatutakoa edo kexa jartzea.
20. Zerbitzuaren osagai oso garrantzitsua da hizkuntza eta, ez bagaude gustura hizkuntza arretarekin, horrek esan nahi du eman diguten zerbitzuarekin ere ez gaudela gustura.
21. Gure jarrera eztabaidatzen hasten bazaizkigu, ez gaude inondik inora behartuta eurekin eztabaidatzera edo azalpenak ematera.
22. Duela urte gutxi hasita marka askok menuetako hizkuntza euskaraz jartzeko aukera ematen dute.

23. Geure esku dago erabakitzea jabetxe horretan geratuko garen edo hurrengo batean berriro itzuliko garen.
24. Kontsumoarekin lotutako kasu guztietan bezalaxe, kontsumitzaile garen aldetik kexa beti aurkez dezakegu, presio neurri gisa.
25. Hobe da euskara duen produktu bat erostea nahiz eta beste nonbait egindakoa izan.



Informazio guzti hau erabilgarria da nondik abiatzen garen jakiteko. Hau da, hori da dagoena, hori da egun dugun errealitatea eta horiek dira egin ditzakegun gauzak egoera aldatzeko. Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi baditugu eta euskara gure eguneroko tresna bihurtu nahi badugu, hobe puntu hauek argi izatea bideari ekin baino lehen. Baina, gehiago zehaztuz, zer egin dezakegu konkretuki guk? Nondik hasi gaituzke aldaketa eragiten? Zer egin dezakegu euskara gehiago erabil dadin eta, inertziak, guk ere euskara erabiltzeko aukera gehiago izan ditzagun?

Bada, lehenik eta behin, ahal dugun guztietan euskaraz mintzatzea, idaztea eta irakurtzea komenigarria litzateke. Gutxienez hizkuntzaz aldatzeko eskatzen diguten arte edo solaskideak ez gaituela ulertzen argi eta garbi ikusi arte mantenduko dugu jarrera hori. Euskaldun guztiok hori egingo bagenu, urrats handia izango litzateke gure hizkuntzarentzat.

Bigarren, euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitu ditzakegu, horren adierazgarri den hizkuntza ziurtagiria dutela egiaztatuta (liburuak, euskarazko etiketadun produktuak, jolasak, zinema, telebista, informatika programak, interneteko bilatzaileak, DVDak, euskarazko errotulazioa duten saltokietan, euskarazko zerbitzua ematen duten lekuetan, bankuetan, telefonoetan, interneten...).

Bestalde, jasotzen ditugun zerbitzuetan euskara exijitu behar dugu eta, beharrezkoa bada, kexak edo erreklamazio ofizialak aurkeztu diskriminatuta sentitzen garenean. Iradokizun orriak bete eta euskara gehiago erabiltzeko ere eska dezakegu, euskaraz ez dagoen publizitatea berriro ere enpresari bidali, taberna eta jatetxeetan euskarazko karta eskatu, etab.

Azkenik, enpresa bat zuzentzen badugu, edo erabakitzeko ahalmena badugu, dena euskaraz egin dadin saiatu behar gara. Ardura postu bat badaukagu, oster, hala nola politikan, enpresan, eskolan, familian, auzoan edo herrian, kontutan izan behar dugu besteentzat eredugarri izan gaitezkeela. Euskaraz eroso eta normaltasunez egiten badugu, gure eredia imitatzerako joko dute inguruko batzuek behintzat. Euskara erabilgarri eta beharrezko egitea giltzarria da benetan normalizazioa erdiesteko.

Atal honekin amaitzeko, ezagun egingo zaizkigun hainbat adibide aztertuko ditugu orain arte esandakoa hobeto barneratzeko asmoz.

Askotan, norbaitekin hitz egiten hastean, aurrez aurre dugun pertsonak gazteleraz egiten badigu, zalantza hau sortzen zaigu: euskaraz erantzuten badiot, edukazio txarrekoa izaten ari al naiz? Galdera honek erantzun erraza dauka: ez, ez da edukazio txarrekoa, guztiz kontrakoa baizik. "Edukazioz" hizkuntza aldatu beharra geure hizkuntzarekin eta kultur nortasunarekin ditugun konplexu eta autoestimu gabeziarekin lotuta dago. Ohiturak aldatzeko asimilazio edo akulturazio prozesu baten bidez botereek inposatutako jokaera kodeetan du jatorria "kortesia" hizkuntza aldatzeko topikoak. Herritar askok ohitura edo gizarte arau bihurtu dute portaera hori. Horregatik, ohitura horrek "naturala" ematen du eta onartutako beste edozein ohitura bezalaxe, aldatzea asko kostatzen zaigu. Baina finean, horixe besterik ez da: ohitura. Nahiz eta hasieran ahalegina eskatuko digun, denbora gutxian ohitura bilakatuko zaigu ahal den guztietan euskaraz egitea.

Gainera, ohartu behar gara aurrean dugunari euskara ukatzen diogunean, geure burua diskriminatzeaz gain, geure solaskidea ere diskriminatzen ari garela. Izan ere, geure kulturarako sarbidea ukatzen diogu eta, horrela, are gehiago urruntzen dugu. Baina, zer egin solaskideak ulertzen ez gaituela esaten badigu edo erderaz hitz egiteko eskatzen badigu? Kasu horretan egoera zein den aztertu beharko genuke.

Gerta liteke gu menpeko egoeran egotea, hau da, geu saltzailea izatea, lanpostua jokoan izatea edo antzeko egoeraren bat. Horrelako kasuetan gure helburuak, solaskidearen euskara maila eta solaskideak hartzen duen jarrera izan beharko ditugu kontutan. Horregatik, batzuetan jarrera otzana hartzea erabakiko dugu gure interes eta helburuak lortzeagatik.

Berdintasunezko egoeran bagaude edo abantaila geuk badugu, berriz, geure kulturarekiko "sedukziozko" jarrera positiboari eustea da gomendinoa. Lehen hitza beti euskaraz egiten badugu, sorpresa asko hartuko ditugu ziurrenik. Bestalde, solaskideari ea euskaraz dakien edo ulertzen duen zuzenean galdetzea ere aukera bat da. Egoera askotan, nahiz eta besteak ez jakin euskaraz hitz egiten, ulertzen badu, guk euskaraz egin ahal izango dugu besteak erdaraz erantzun arren. Elkarrizketa elebidunak hasiera batean deserosoak iruditzea posible den arren, edukazioz, enpatiaz eta irribarre batez dena da errazago.

Ezezagunei erdaraz egiteko ohitura ere oso hedatuta dagoenez, kalean goazela norbaitek zerbait erdaraz galdetzen badigu ere, baliteke solaskidea euskalduna izatea; horregatik, horrelako kasuetan ere euskaraz erantzun dezakegu. Gerta daiteke, hala ere, solaskideak euskaraz ez jakitea eta ezta ulertzea ere. Horrelako kasuetan, gaztelerara pasako gara baina betiere euskarazko agurrei eutsita.

Badirudi, gainera, ezezagun hori afrikarra, amerikarra, asiarra edo munduko beste tokiren batekoa bada, gaztelerara jotzeko jarrera hori are indartsuagoa dela. Ez dugu ahaztu behar edozeini egin diezaiokegula lehen hitza euskaraz, duen itxura duela. Atzerritarren kasuan, gainera, euskaraz egitea gure kulturara hurbiltzeko gonbidapen bat bezala har dezakete eta, ziurrenik, eskertu ere.

Amaitzeko, zer egin gure eskubideak urratuak izan direla sentitzen dugun egoeretan? Adibidez, euskaraz izango zela iragarrita zegoen ekitaldi publiko edo ikastaro batera joaten bagara eta pertsona batek euskaraz ez jakiteagatik ekitaldia gaztelaniaz egingo dela erabakitzen bada, zer egin dezakegu? Euskaraz izango zela iragarrita baldin bazegoen, hori errespetatzeko eskatuko dugu. Gainera, ordaindu egin badugu, bezero garen aldetik, gure eskubidea dela aldarrikatuko dugu. Hori ez bada errespetatzen, antolatzaileei kexa bat bidali diezaiekegu. Euskaraz izango zela iragarri izango ez balute ere, gehiengoa euskalduna dela ikusiz gero, euskaraz egitea proposa genezake. Hori eginez gero, euskaraz ondo ez dakienari laguntzeko eskaini genezake gure burua. Oso garrantzitsua da tinko baina haserretu gabe adieraztea esan nahi duguna, asertibotasunez. Dena dela, euskararen kontrakoa den giro batean bagaude kontuz ibili behar dugu, gure jarrerak giro are kontrakoagoa eragin baitezake.

Administrazio publikoari dagokionez, sakonduko ez dugun arren, inportantea da berriz gogoraraztea lehen hitza beti egin dezakegula euskaraz. Gero etorriko dena ezin dugu aurreikusi, baina behintzat ez gara geratuko saiatu ez izanaren sentsazioaz.

## 4. TRIBUAREN BERBAK

---

Hurrengo atal honetan *Tribuaren Berbak* telebistako saioan oinarritzea erabaki dut. Izan ere, Kike Amonarrizek aurkeztutako saio honek euskararen inguruan eztabaida daitezkeen gai ia guztiak jorratu ditu eta jorratzen jarraitzen du. Gai horietako askok zuzenean eragiten dute hizkuntza-ohitura aldaketetan. Ezin uka dezakegu telebistako saio honek euskararen alde lan oso inportantea egiten duela, eta umore onez gainera. Bertan landutako hainbat gai oso interesgarriak iruditzen zaizkit lan honetarako; hala nola, *Euskararen tamaina*; *Urte Berri, asmo berri*; *Zergatik da garrantzitsua euskara?*; *Euskara ikasteko hamaika bide*; edo *Eredu ere bagarelako*. 4. puntu honetako azpiatalek, beraz, izen horiei fideltasunez eutsiko diete.



### 4.1 Euskararen tamaina

Lehenago *Aitzakien TO*Pea aipatu bezala, euskaldunak gutxi garela dioten ahotsak asko dira. Ondorioz, aitzakia horretaz baliatzen dira zenbait euskara ez ikasteko eta gaztelaniaz hitz egiten jarraitzeko. Baina, hain hizkuntza txikia al da euskara? Bada, jada aipatu bezala, euskara ez da inolaz ere uste bezain txikia, ezta uste bezain zaila ere. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, arriskuan dagoela eta gure babesa behar duela.

Horrek ez du esan nahi, dena dela, euskara txikia edo hizkuntza indargabea denik. Izan ere, munduan 7000 hizkuntza badaude, horietatik 400 inguruk bakarrik dute milioi bat hitzun baino gehiago. Ba al dago euskara horien artean? Bada, bai; eta beraz, hitzun kopuruari dagokionez, Oti 10erako ranking batean euskara 9. postuan kokatuko litzateke. Horrela, esan genezake **euskara munduan hitzun gehien dituzten hizkuntzen % 10ean dagoela**.

Zergatik ikusten dugu orduan geure burua hain txiki, horren txikiak ez bagara? Bada, bi erraldoren artean kokatuta gaudelako (gaztelania eta frantsesa) eta hirugarren bat alboan

dugulako (ingeleza). Horiekin alderatuta, txikiak gara bai; baina munduko beste hizkuntzekin alderatuz gero, ez gara inolaz ere txikiak.

Gainera, hiztun kopurua ez da hizkuntza baten bizi-indarra neurtzeko aintzat hartu beharreko faktore bakarra. *Calvet* barometroaren<sup>22</sup> arabera, adibidez, Internetek eta sare sozialek ere garrantzia handia daukate. Wikipedian, esaterako, erabiltzen diren 280 hizkuntzetatik, euskara 35.a da artikulu kopuruaren arabera. Twitterri dagokionez, 38 hizkuntzatan soilik erabil daiteke, eta euskara da horietako bat. Ez al dira datu horiek harro egotekoak? Noiz gaudituko ditugu euskaldunok gure konplexuak? Noiz ordezkaturiko dugu gure biktima papera gure hizkuntza eta herriarekiko harrotasunagatik?

Euskaldunak harro sentitu beharko ginateke gure hizkuntzak mendeetan zehar, jasandako guztia jasanda ere, biziraun izanagatik. Guk geuk harrotasun hori sentitzen dugunean, besteei ere horixe transmitituko diegu. Guk geuk euskara segurtasun gehiagoz erabiliko dugu eta ez dugu hain erraz alde batera utziko. Horrela, beste batzuk ere euskara erabiltzera bultzatuz eta aitzakia guztiak alde batera utziz.

## 4.2 Urte berri, asmo berri

Zeintzuk izan ohi dira zure Urte Berriko asmoak? Zure hizkuntza-ohiturak aldatzearekin lotuta al daude noizbait? *Urte berri, asmo berri* izenburupean aurkeztu zuen Kike Amonarrizek saioaren zazpigarren atala. Bertan, hainbat pertsona ezagunek urte berrirako euskarari lotuta zituzten asmo eta erronkak azaldu zituzten.

Horietako bat Amets Arzallus izan zen. Hendaiaiko bertsolaria ikastolako ikasle izana da, eta berak urte berriari Seaska ez dezatela ikusi batzuek “burdinazko kaiola bat balitz moduan” eskatu zion. Aitzitik, Seaska haurrek mundura ateratzeko hizkuntza bat ikasten duten lekua dela nabarmendu zuen.

Bestalde, hainbat pilotariren asmoak ere bildu zituen Kike Amonarrizek. Oinatz Bengoetxeak, adibidez, aldageletan euskaraz gehiago aritzea adostu zuen “euskaraz ez dakitenek pixka bat ikasteko” eta, euren artean, “euskal giro hobea izateko”. Abel Barriolak, ostera, izen bati lotutako erronka aipatu zuen: Juan Martinez de Irujorekin euskaraz gehiagotan hitz egitea. Lehendik ere ondo egiten omen du honek eta, beraz, elkarrekin gehiago aritzea hartu zuen asmo Leitzakoak. Azkenik, Jose Javier Zabaletak euskaraz “beldurrik gabe” hitz egiten saiatuko zela adierazi zuen.

Zuhaitz Gurrutxaga aurkezlearen erronka euskaraz umorea egitea zaila dela dioen topikoa “irauli eta euskaraz umorea fintzea” izan zen 2014. urte hasiera hartan. Toti Martinez de Lezea idazleak, euskaldun berri askok bezala, euskaraz irakurtzeko eta ulertzeko arazoak ez

---

<sup>22</sup> *Calvet* barometroa urtero munduko hizkuntzen pisu erreala neurtzen duen barometro bat da. Hori neurtzeko hainbat faktore izaten ditu kontutan: hiztun kopurua, ofizialtasuna, online dauden artikuluen kopurua, itzulpenak, etab. Jean Louis Calvet soziolinguista frantsesak ematen dio izena.



izan arren, “aditzekin eta nor-nori-norkekin” arazoak izatea aitortu zuen. Bi horiek finkatu zituen, hortaz, helburu bezala.

Garbiñe Biurrun epaileak auziak, “batzuk sikiera”, euskaraz egin ahal izatea eskatu zion 2014ari; “herritarrok gure eskaerak, argudioak eta arrazoiak euskaraz adierazi ahal izatea epaileari”. Bestalde, Iker eta Eneko Pou eskalatazaileek hainbat hizkuntza erabiltzen dute euren eguneroko bizitzan. Ingelesez, gaztelaniaz, italieraz, alemanieraz aritzen dira, eta euren artean nagusiki euskara erabiltzea izan zen haien erronka.

Amaitzeko, nahiz eta gehiago ere egon ziren, Josebe Iturriotzen 2014rako asmoa aipatuko dugu: euskara bere bizitzaren “zentroan” sartzeta, sexualitatean, alegia. “Txortan egin nahi dut euskaraz gehiago eta hobeto”.

**Posible al da euskaraz txortan egitea? Posible al da euskaraz iraintzea? Posible al da euskaraz gure emozio sakonenak adieraztea?** Kontu horien inguruen ere hausnartu beharko genuke eta gure bizitzako eremu horietan ere hizkuntza-ohiturak aldatzen saiatu. Izan ere, **hizkuntza batek mila erregistro dauzka, mila joko-zelai**. Normalean, azalekoenetan bakarrik geratzen gara eta ez ditugu gauzak errotik aldatzen, ez gara zentroraino iristen. Dena dela, bakoitzaren esku dago azaleko ohitura aldaketa batzuk egitea edo goitik behera (edo behetik gora) guztia iraultzea!

Saiora bueltatuz, interesgarria litzateke 2015. urtean bizi garen honetan, aipatutako erronka eta asmo guzti horiek bete ote zituzten egiaztatzea. Beraien alde esan behar dugu, halaz ere, zerbait lortzeko lehenengo pausua imaginatzea dela. Zuk ere helbururik jarriko al diozu zure buruari? Orain arte asmo huts izandakoak errealitate bihurtzeko prest al zaude? Hizkuntza-ohiturak aldatzeak determinazioa eskatzen du, teoriatik praktikara pasatzeko nahi sendoa. Hori al da zure kasua? Bada, lan honetan bertan hori lortu ahal izateko pausu guztiak aurkitu ahal izango dituzu! Ekin bideari!

### 4.3 Zergatik da garrantzitsua euskara?

Lan honetan, Karmelo Ayestaren liburuaz hitz egitean, gure buruari jarritako erronka bat gainditu ahal izateko pisuzko arrazoi bat izateraen inportantzia aipatu genuen. Hau da, helmugara bultzatuko gaituen motibazio indartsu bat izateren garrantziaz. Zenbaitentzat, arrazoi hori euskararen biziraupena ziurtatzea izan liteke. Motibazio hori duenak argi izango du zergatik den garrantzitsua euskara, baina eta zuk? Ba al dakizu zergatik den garrantzitsua euskara?

Bada, galdera horri erantzun zion *Tribuaren Berbak* saioko bigarren denboraldiko lehen atalak. Galdera horri erantzutea garrantzitsua deritzot askoren ustetan hobe litzatekelako munduan hizkuntza bakarra izatea; izan ere, horrela, hobeto ulertuko ginateke. Uste hori guztiz deseraiki beharra dago, zuzena ez dela frogatzen duten hainbat arrazoi baitaude.

Ondorio horretara iritsi baino lehen, munduan hizkuntza bakarra izatea onerako edo txarrerako izango litzatekeen jakin nahi izan zuen Amonarrizek. Horretarako, kalean galdezka aritu zen eta denetariko erantzunak jaso zituen. Batzuen ustetan, mundua aspergarria izango litzateke hizkuntza bakarra egonez gero; beste batzuentzat, berriz, horixe litzateke egoera perfektua.

Baina eta adituek? Zer diote gaiaren inguruan dakitenek? Hori deskubritzeko elkartu zen Kike Belen Urangarekin. Honek **hizkuntza ekologiar**en gainean hitz egin zuen. Kontzeptu hau nahiko berria da eta, hizkuntza guztien iraunkortasuna lortu nahian, hizkuntza ikuspegi ekologikotik ikustean datza. Hortaz, hizkuntza baten ekosistema hizkuntza komunitatea bera dela azaldu zuen Urangak, datozen belaundaldientzat hizkuntza hori interesgarria eta erabilgarria izatea eragingo duen komunitatea, hain zuzen ere. Bestetik, hizkuntza aniztasunaren garrantzia azpimarratu zuen Urangak eta, halaber, hizkuntza bi edo hiru bakarrik izateak maila sozialean zein kulturean pobrezia handia ekarriko lukeela nabarmendu zuen. Azkenik, “gaurko euskaldunok dugun eginkizun etikoa ondorengoei euskara transmititzea da” azpimarratu zuen.

Horiek al dira, ordea, jendea euskara baloratzera daramaten arrazoiak? Gehienetan, ikuspegi ekologiko horregatik baino, arrazoi intimoengatik mugitzen da jendea. Amaia Antero soziolinguistaren esanetan, arrazoi batzuk praktikoagoak izango diren arren (lanpostu bat lortzeko, seme-alabekin hitz egiteko, etab.), beste askorentzat pentsatzeko, sentitzeko eta hori besteei komunikatzeko hizkuntzarik kuttunena da euskara. Gainera, Anterok azpimarratu zuenez, hizkuntz komunitate orok dauka duintasunez bizitzeko eskubidea eta, “hizkuntzak identitate indibiduala eta kolektiboa eraikitzen laguntzen digu”.

Kolonbiara ere joan zen *Tribuaren berbak* saioko lan taldea, izan ere, Kolonbia aniztasun gehien biltzen duen munduko herrialdeetako bat da, baita hizkuntzari dagokionez ere. Jon Landaburu hizkuntzalariak 40 urtetik gora egin ditu hizkuntza indigenak ikertzen eta, bere hitzetan, **herrialdean inguru oso ezberdinak izateak eragina du hizkuntza aniztasunean. Landabururen hitzetan, “herri baten memoria eta sentsibilitatea da hizkuntza”.**

Munduan zehar 7000 hizkuntza inguru dauden arren, posible da hurrengo mendean hizkuntza horien erdia galtzea. Izan ere, oso hitzun gutxi dituzten hizkuntza asko daude eta bi asteen behin horietako bat betiko galtzen dugu. **Hizkuntza bera galtzarekin batera, mundua ulertzeko modu berezi bat desagertzen da.**

Ez al dira guzti hauek arrazoi nahikoa euskara erabiltzeari *jo ta ke* ekiteko?

#### 4.4 Euskara ikasteko hamaika bide

Bai, euskara ikasteko hamaika bide daude. Badago euskara ikasteko aukerarik ez duela esaten duenik, badago euskara ikasteko erraztasun nahikoa ez dagoela defendatzen duenik,

badago Francoren garaian jaio eta inoiz ikasteko paradarik izan ez duela dioenik. Bide guztiek garamatzate Erromara: aitzakiak.

*Tribuaren Berbak* saioko atal honetan euskara ikasteko ezohiko bideak erabili dituen jendea elkarrizketatu zuen Amonarrizek. Hauen esperientziak ezagututa, arestian aipatutako edozein aitzakia guztiz baliogabetuta geratzen da. Izan ere, jende gehiena familian, eskolan edota euskaltegian euskalduntzen da; ohiko bideak erabiltzen ditu, alegia. Beste batzuk, berriz, aukera horiek ez izanda ere, eta zailtasunak zailtasun, ezohiko bideen bitartez euskalduntzen dira. Hona hemen adibide batzuk.

Kolonbiako Jose Miguel Ramirez eta Greziako Maria Spantidi<sup>23</sup>. Biak euskaldun autodidaktak. Euren kabuz ikasi dute euskara, Euskal Herria zapaldu gabe, gainera. Aho zabalik geratzeko modukoa da euren euskaraz hitz egiteko modua. Jose Miguelek 15 hizkuntza dakizki, eta kuttunena euskara du. Euskal Herria ezagutzeko asmoa du, bertan lagun handi asko baititu. Mariak 10 hilabete besterik ez ditu behar izan bere kabuz euskara menperatzeko. Jose Miguelek bezala, Mariak ere Euskal Herria eta gure kultura ezagutzeko gogo handia du, baita euskara praktikatzeko ere.

Adam Zawiszewskik eta Veronica Domingok, berriz, euskara klaseak Polonian eta Argentinan jaso zituzten, eta gerora etorri ziren gurera ikasitakoa berrindartzera. Veronicak txikitatik izan du harremana euskararekin: amona euskalduna zuen. Duela 20 urte hasi zen Euskal Etxean euskara ikasten, "Argentinan Euskaraz" programaren bidez. Euskarak aukera asko eman dizkio Veronicari: alde batetik, amonarekin konplizitate gehiago izatea lortu zuen; bestetik, euskal kultura ikasteko aukera eman zion.

Adamek, aldiz, unibertsitatean ezagutu zuen euskara, Frantses filologia ikasten ari zela. Bere Poznaneko unibertsitatean klaseak emateaz gain, Zornotzako barnetegian ere ikastaroak egiten zituen eta udan ere Euskal Herrira etortzen zen. Batueraz eta bizkaieraz hitz egiten du, eta egunero erabiltzen duen komunikatzeko tresna da beretzat euskara.

Eta gu bitartean zertan ari gara? Euskaldunok etxetik kanpo gehien ikasten ditugun hizkuntzak ingelesa eta frantsesa dira. Etxetik euskara ikasten duenak, beraz, zortea izango du; baina etxean gazteleraz hitz egiten duenak, nahiago izango du ingelesa edo frantsesa ikasi euskara ikasi beharrean. Zein aitzakiarekin?

Gainera, ez ditugu ahaztu behar historian zehar euskaraz ikasteko argitaratutako metodo eta testuliburu guztiak. Bestalde, euskaltegiak ere hor daude, eta berrikuntzekin datoz, gainera. Lanaren edo bestelako arrazoiren baten ondorioz bertaratzeko denborarik ez dutenei, autoikaskuntza aukera ere eskaintzen zaie.

Adina ere ez da arazoa izaten ikasteko gogo dagoenean. Txorierriko hainbat edadedun lagunek euskara zergatik ikasten ari diren azaldu zioten Kikeri. Arrazoi nagusiak

---

<sup>23</sup> <https://www.youtube.com/watch?v=5TKPhTSkH88> (Jose Miguel Ramirez euskaraz)  
<https://www.youtube.com/watch?v=LCRsgxWhldI> (Maria Spantidi euskaraz)

bilobekin hitz egiteko, erronka modura, abesbatzan abesten dituzten kantuak ulertzeko eta gure aberriaren hizkuntza delako izan ziren.

Beste alde batetik, atzerritik iritsitako gaztetxoek ere ikasten dute euskara. Gaztetxo etorkinak euskalduntzeko arrazoietako bat hauek eskolako dinamikan sartu ahal izatea da. Beste hizkuntzak irakasten diren bezala, euskara ere maitasun handiz irakatsi behar da, Joseba Ibarra kultur arteko hezkuntza arduradunaren hitzetan. Atzerritarrei irakatsi bai, baina eta hemengoek erabili?

Beraz, ikusi ahal izan dugun moduan **hizkuntza bat ikasteko hamaika aukera daude, beraz, norberak aukera dezala berea eta ekin diezaiola euskaraz hitz egiteari!**

## 4.5 Eredu ere bagarelako

Oraintsu esan dugu euskara guk uste baino handiagoa dela. Horri, gainera, zerbait gainera geniezaiok: euskara zenbait lurralderentzat erreferente bat da. Konkretuki, hizkuntza berreskurapena da Euskal Herriak munduarekin elkarbanatzen duen esperientzia interesgarrietako bat. Kolonbia, Guatemala, Ekuador eta Mexikoko hainbat komunitatek eredu hartzen dute Euskal Herria hezkuntza-ereduari, herrigintzari eta komunikabideei dagokionean.

Bestalde, Korrika ere erreferente da euskararen sustapenean. Korrika, auzolanaren eta elkarlanaren adibide izanik, beste hizkuntza gutxitu batzuentzat erreferentzia izan da. Horrela sortu dira bere “anai-arreba” txiki dei genitzakeenak: *Correlingua*(Galizia), *Correllengua*(Katalunia), *Corsa per la lenga*(Val D’Aran), *Ar Redadeg*(Bretainia), *Ray yr laith*(Gales) eta *Rith*(Irlanda).

Atal honetan AEKko koordinatzaile nagusi den Mertxe Mugikarekin ere egon zen Amonarriz. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen inguruan hitz egin zuen berarekin. Haren hitzetan, hemen daukan dimentsioa ez dauka beste inon. Dena den, adierazi zuen Kataluniari “inbidiaz” begiratzen diola. Izan ere, bertan heldu batek katalana ikastea erabakitzen badu, lehen eta bigarren mailak doan dauzka; hori ez da gertatzen, aldiz, euskarara ekarrita.

Amaitzen joateko, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuorde den Patxi Baztarrikak aipatu zuen “erreferente garela hizkuntza politika integralak ditugulako(hedabideetan, zerbitzu publikoetan, administrazioan, IKTetan, unibertsitatean...)”. Kontseilu idazkari nagusi den Paul Bilbaok, berriz, euskalgintzatik sortutako proiektuez hitz egin zuen, bai norbanakoez, bai espazioak euskalduntzera zuzendutakoez. Nonbait, ez da ohikoa kanpoan eragileak, enpresak eta abar gai izatea komunean jartzeko euren printzipioak, eta ahots bakar batez hitz egitea.

Ondorioz, ikus dezakegu Euskal Herria eta euskararen alde egindako hainbat gauza eredu direla beste lurralde batzuentzat. Hori ere kontutan izan beharko genuke gure jarrerren inguruan hausnartzean; izan ere, ardura bat dugu, bai gurekiko, bai guri begira daudenekiko.

Atal honetan esandakoa laburbiltze aldera, ideia nagusi bat aipa genezake: guk geuk euskararen gainean ditugun aurreiritziek ez digute batere mesederik egin, eta are gutxiago, aurreiritzi eta konplexu horiek besteei transmititu dizkiegunean. Guk geuk sinistu dugu euskara hizkuntza txikia dela. Ikusi besterik ez dira egin behar euskara hitzun gehien dituzten hizkuntzen %10en artean dagoela jakitean jendearen harridura aurpegiak. Euskal Herria eta euskara beste herrialde batzuentzat erreferente direla ere jakin ere ez dugu jakin gehienok. Bestalde, nola egin hizkuntza baten alde guk geuk ere munduko 7000 hizkuntzen arteko hizkuntza bat galtzeak zer ondorio dakartzan ez dakigunean?

Dena dela, kontua ez da orain gure burua zigortzea eta errudun sentitzea. Izan ere, guzti hori mendez mendez jasandako zapalkuntza baten ondorio besterik ez da. Horregatik, orain egin beharrekoa zera da: **dugun informazio guztia izanda, geure burua berbideratu eta euskararen aldeko borroka horri modu berritu eta eraginkorrago batean ekin. Nola has gaitzke hori egiten? Bada, dagoeneko zenbait aldiz esan bezala, gure hizkuntzaz harro sentitzen eta hori gure ingurukoei transmititzen.** Hori baino ez dugu beharko bideari *tipi-tapa* ekiteko.



## 5. KASU ERREALAK AZTERTZEN

---

Atal honetan, orain arte azaldutako teoria guztiari izen-abizenak jartzeko unea iritsi da. Hau da, kasu errealak ezagutu eta aztertzeke unea. Azterketa honetan, lau pertsona izango ditugu aztergai, bakoitza ezaugarri bereizgarri batzuekin. Izan ere, lanaren hasiera aldera aipatu bezala, hizkuntza-ohitura aldaketek ezaugarri desberdinak dituzte pertsona bakoitzarengan. Ez dago zalantzarik hizkuntza-ohitura aldaketen espektroa oso zabala dela eta kasu bakoitza bere kontestuan aztertu beharra dagolela. Horregatik, aniztasun hori errepresentatze aldera, hautatutako lau kasuak oso desberdinak dira bata bestearengandik.

Lehenik eta behin, **Miriam** dugu. Miriam 23 urteko gaztea da, Durangarra. Bere ama-hizkuntza euskara izanik, nerabezaroan ia %100ean gazteleraz hitz egiten zuen. Denborarekin eta heldutasunarekin, egoera horri buelta eman nahi ziola erabaki eta goizetik gauera aldaketa hori gauzatu zuen. Esan eta egin. Bere aldaketa prozesua ez zen guztiz ohikoa izan eta horri buruz hitz egin du grabagailuaren aurrean.

Bigarren kasua Miriamen kasuarekin lotuta dago, izan ere, prozesu beraren beste fase batean kokatzen da. **Iraitz** euskalduna da, etxean beti entzun izan du euskara, familia osoarekin komunikatzen da euskaraz, D ereduan ikasten du; eta, hala ere, berarekin D ereduan ikasten duten bere lagunekin gazteleraz mintzatzen da. Esango genuke Iraitz Miriam duela urte batzuk zegoen egoera berean aurkitzen dela momentu honetan. Interesgarria izan da berak momentu hau nola bizi duen jakitea.

Ondoren, **Rafa** daukagu. Rafa 39 urteko lurretarra da. Bere ama-hizkuntza gaztelera izan arren eta erdal ereduan ikasi zuen arren, beti izan du bere baitan euskararekiko sentimendu bat. Sentimendu horrek eraman du orain euskara ikastera, baina baita beste hainbat motibaziok ere. Guzti honetaz hitz egin digu Rafak.

Azkenik, **Victoria** dugu. Londresen jaio eta hazia izan arren, bada urte erdi Euskal Herrian bizi dela. Arrasatera etorri baino lehen izan zuen Victoriak euskararen berri, izan ere, hizkuntza gutxituen inguruko hainbat kontu ikasi zituen bere unibertsitatean. Orain *Mondragon Linguan* ingeleseko klaseak ematen ditu eta euskara ikasten ari da. Bere esperientziari buruz hitz egin digu.

Hasieran aipatu bezala, egoera guztiz desberdinak bizi dituzte gure lau elkarrizketatuek. Egoera bakoitza ulertzeko asmoz, bakoitzaren elkarrizketa aztertu eta ondorioak ateratzen saiatuko gara. Dena dela, materiala aztertzen hasi baino lehenago, elkarrizketak prestatu eta egiteko erabilitako metodologia azalduko da hurrengo lerroetan, guzti honen helburuarekin batera.

## 5.1 Elkarrizketen helburua eta metodologia

Dagoeneko esan bezala, aztertuko dugun informazioa lortzeko erabilitako teknika aurrez aurreko elkarrizketa izan da. Zehatzago esanda, elkarrizketa erdiegituratu. Teknika hau hautatzearen arrazoia ikerketaren helburua lortzeko aproposena iruditu izana da. Izan ere, erabili beharreko metodologia hautatzeko unean **helburua** argi izatea ezinbestekoa da.

Ikerketa honek pertsona hauen hizkuntza-ohitura aldaketak ezagutzea du helmuga. Ohiturak aldatzera bultzatu dituzten motibazioak zeintzuk izan diren jakin nahi izan da, baita prozesu horretan aurrez aurre aurkitu dituzten oztopo eta zailtasunak identifikatzea ere. Oztopo horien aurrean zerk animatu dituen aurrera jarraitzera, inguruko enreakzioak, aldaketa horrek pertsona moduan beraiengan izan duen eragina eta ohitura aldaketa horiek beraiengatik suposatutakoa ere ikusi nahi izan da. Finean, beraien esperientzia ezagutzea izan da helburua, bidaia horretan aurkitu dituzten aldeko eta kontrako indarrak identifikatuz.

Dena dela, horrelako kasuetan, ahoz esaten dena bezain garrantzitsua da gorputzarekin esaten dena. Harrotasuna, lotsa, poza edo erruduntasuna bezalako sentimenduak ahoz baino gehiago keinuz edo aurpegieraz adierazten dira. Horra hor aurrez aurreko elkarrizketak egiteko arrazoia.

Orain arte lanean bildutako informazioa kontutan izanik, elkarrizketetan aterako denaren **aurre hipotesi** bat proposatzea posible da. Miriamen kasuan, esaterako, lanaren lehenengo atalean aipatutako disonantzia kognitiboaren kontua irtengo dela espero dezakegu. Izan ere, gazte garaia norbere identitatea osatzen doan garaia da eta momentu horretan hartutako aldatzeko erabakiek, barnean dugun kontraesan bat orekatzeko ahalegina adieraz dezakete. Bestalde, Rafari dagokionez, Karmelok bizi izan duen prozesuaren antzerako bat espero genezake, biak euskaldundu baitira helduaroan. Motibazioa, determinazioa eta integritatea dituen pertsona bat espero dezakegu, beraz. Iraitzen kasuan, euskara apur bat baztertuta daukala ikusita, agian aitzakiaren batekin aurkituko gara. Lanean dagoeneko aipatu bezala, gure ideien kontra doan jarreraren bat dugunean, bi aukera dauzkagu: jarrera aldatzea edo pentsamendua aldatzea. Aitzakia horiek gure burua lasaitzeko eta kontraesanean ez erortzeko modua dira. Azkenik, Victoriaren kasuan, pertsona konprometitu bat eta hizkuntza ekologiaren berri duen emakume bat espero dezakegu, izan ere, gaztelera jakinda, euskara ikasteko erabakia hartu du.

Arestian esan bezala, **elkarrizketak erdiegituratuak** izan dira. Horrek esan nahi du oinarritzko galdera eta gai multzo batek zuzendu dituela, galderen idazketa zehatza eta ordena aurrez zehaztuta ez egon arren. Elkarrizketen norabidea elkarrizketatuen erantzunen araberakoa izan da maiz, betiere aztertu nahi izan diren gaietatik desbideratu gabe.

Bestalde, aipatzekoa da elkarrizketari ekin baino lehen, elkarrizketatuen datu batzuk bildu direla geroko azterketarako interesgarriak izango direlakoan. Datu horiek ondorengoak dira:

- **Izen Abizenak**
- **Adina**
- **Jaioterria**
- **Bizilekua**
- **Ama-hizkuntza**
- **Gurasoen ama-hizkuntza + Gurasoen jaioterria**
- **Beste hizkuntzak (noiz ikasia? haurtzaroan/nerabezaroan/gaztaroan/helduaroan)**
- **Eskola eredua**
- **Euskalduna labela (0-10?)**

Azken horrek, agian, azalpen bat merezi du. Galdera hori egitean, elkarrizketatuen euskaldun sentimendua, horrela dei badaiteke, neurtu nahi izan da. Hori interesgarria da gero beraien motibazio eta egoerekin alderatzeko eta ikusteko ea identitatea eta hizkuntza ezinbestean batera joan behar diren. Interesgarriak izan dira galdera hau egitean sortutako erreakzioak. Beste datuei dagokienez, beharrezkoak iruditu zaizkit bakoitzaren bizipena ulertzeko.

Elkarrizketak hiru hizkuntza desberdinetan egin dira. Miriam eta Iraitzen kasuan, elkarrizketa euskaraz burutu da. Rafaren kasuan, ostera, gazteleraz egin da elkarrizketa, nahiz eta berak euskara maila nahiko altua izan. Hori horrela izanda ere, nahiago izan du galderei gazteleraz erantzun hobeto aditzera emango zelakoan. Bestalde, Victoriari egindako elkarrizketa ingelesez izan da, izan ere, 6 hilabete bakarrik daramatza euskara ikasten. Puntu honetan aitortu beharra dago ingelesez egindako galderek akatsen bat izan dezaketela baina, dena dela, garrantzitsuena bere erantzunak dira.

Elkarrizketak Durangon burutu dira Miriam, Iraitz eta Rafaren kasuan eta Arrasaten Victoriari dagokionez. Guztiek 12 bat minutuko iraupena izan dute, Victoriarena apur bat luzatuz berea kasuistika guztiz desberdina izateagatik. Elkarrizketatu guztiak egon dira hasieratik prest galderei zintotasunez erantzuteko eta, elkarrizketan zehar ere, jarrera erosoak erakutsi dute.

Beste barik, elkarrizketak aztertzeari ekingo diogu hurrengo atalean. Lehenago aipatutako datu pertsonalak emango ditugu lehenik eta behin eta, ondoren, elkarrizketa bera aurkeztuko dugu. Gero, elkarrizketa guztiak aurkeztu ostean, erantzunak aztertuko ditugu eta lan honetan emandako informazioarekin alderatu.

Transkripzioei dagokienez, aitortu beharra dago ez direla guztiz zehatzak. Hau da, agian bi galdera jarri dira batera erantzun batek biei erantzun izan dienean edo galderaren bat kendu da erantzunak ekarpen berezirik egin izan ez duenean. Dena dela, elkarrizketa hauetan garrantzitsua edukia da, ez hainbeste esaldi, hitz edo ordena zehatzak. Hala ere, norbaitek audioak bere hortan entzun nahiko balitu, badago hori egitea ere. Moldaketak egitean, dena dela, oso kontutan izan da edukiari fideltasunez erantzutea.



## 5.2 Elkarrizketak banan-banan

### 5.2.1 Miriam

- **Izen Abizenak:** Miriam Juaristi
- **Adina:** 23
- **Jaioterria:** Zaldibar
- **Bizilekua:** Durango
- **Ama-hizkuntza:** Euskara
- **Gurasoen ama-hizkuntza + Gurasoen jaioterria:** Biena euskara; Maume eta Berriz
- **Beste hizkuntzak (noiz ikasia? haurtzaroan/nerabezaroan/gaztaroan/helduaroan):** Gaztelera haurtzaroan eta ingelesa nerabezaroan
- **Eskola eredua:** D eredua
- **Euskalduna labela (0-10?):** 10

Azken puntuari dagokionez, hitz batzuk esatea beharrezko ikusten dut. Elkarrizketatuari galdera hau egin zitzaionean, bere sentimenduagatik galdetu zitzaion. Hau da, bere burua Otik 10era euskaldun moduan sailkatu beharko balu, non kokatuko litzatekeen. 10 ez zen izan hasiera batean eman zuen erantzuna, 7 baizik. Bere ekintzei buruz hitz ere egin gabe, bere buruari 3 puntu kendu zizkion. Bere burua epaitzen ari zen, ezer baino lehen. Nahiz eta gero aitortu sentimenduari dagokionez 10 izango litzatekeela erantzuna, hasiera batean uste izan zuen ez zuela 10 bat merezi, 7 bat baizik. Zer adierazten digu horrek? Erruduntasun kutsu hori Karmelo Ayestaren hitzekin lotu genezake, gure ideia eta printzipioak eta gure ekintzak guztiz bat ez datozenean sentitzen dugun integritate falta horrekin, alegia.

#### Elkarrizketa

**- Zein da zure hizkuntza, zure sentitzen dozun hizkuntza, bat esan beharko bazendun zein izengo zan?**

Euskera

**- Euskera zure hizkuntza moduan, gehien erabiltzen dozun hizkuntza da? Zure bizitzako esparru danatan?**

Bai. Bueno, etxean ez beti, baina %75 baten bai.

**- Ta hori zergaitik? Etxean %25 hori erabiltzen ez dozuna zergaitik da?**

Ba amak dekolako kristolako joera erderaz eiteko, orduen ba azkenien aspertzen naz beti segitzen euskeraz. Esaten dotzet euskeraz eiteko ta batzutan ez, erderaz eiten dot.

**- Ta hirurek zauzienean bebai erderara jotzen dozue zure amak erderara jotzen dauelako?**

Bai

**- Bueno, esan dozu etxetik aparte beti euskera erabiltzen dozula, ta hori beti izan da horrela? Bizitzako esparru guztietan?**

Ez, %5 be izan da momenturen baten.

**- Azaldu egoera hori apur bat. Non, ze esparrutan...**

Ba lagun artean batez be beti ein dogu erderaz, etxien be amagaz 8-10 urte neukozenean erderarako joera hori hartu eban; ta %5 hori igual zan nire familiako beste kideakaz eiten neban euskera, edo txakurregaz, edo ume bateri...edo klasien, kontutan hartute klasien euskeraz ein dotela, euskerazko erduen ibili nazelako. Bestela, beste dana erderaz zan. Bueno igual dendaren baten edo...

**- Orduen esan ahal dogu nerabezaroan izan zala erderarako joera hori.**

Bai, Durangora etortean igual.

**- Eta gero, zelan emon zendun euskararako salto hori? Ze motibazio egon ziren hor? Zer gertatu zan?**

Ba eneuke jakingo oso ondo esaten, baina duela 3 urte edo izen zan. *Derrepente* hasi nintzen *enparanoietan* etxien edo pentsetan, ze arrazoi...klasien hor momentuen ia euskeraz eiten nauen unibertsitatean, orduen ia sartute gehiau kazetaritzan mundu horretan eta kazeta desberdinek leitzen, *Berría* ta holan, planteau neutzen nire burueri ia zergaitik eiten nauen erderaz. Horrek ezeuken zentzurik nire ama hizkuntza eta gure herriko hizkuntza euskera izenda. Zegaitik itzi biogu hori alde batera ta gero danok *Euskeraren Egunean* ipini sare sozialetan "ze ondo! *Euskeraren Eguna!*"?

**- Eta hausnarketa hori egin eta gero zer ein zendun? Zelan hasi zinen? Ze pauso eman zenituen?**

Ni naz oso erradikala dani en eta, erretzeari iztea moduen, ba *tak*, egun baten esan nau en ez dot erdera gehiau eingo ta ez nau en ein.

**- Orduen bat-batean izen zan, ez zendun behar izan beroketa bat bez ezebez...ta ze jarrera ikusi zendun zure ingurukoengan?**

Ba batzuk jarraitzeben euskeraz eiten niri segiduz, baina igual berba asko einbidaben momentuen aldatzen dabe segiduen erderara ze ez die kapazak. Beste kasu batzutan, elkarrizketa zuzenean da euskera-erdera, ez ahalegindu ez ezer.

**- Eta egoera horietan zelan sentitzen zinen? Eroso, deseroso? Hasierako sentsazioa zelakoa zan? Ze oztopo aurkitu zenituen?**

Deseroso igual ba berba eiterakoan esaldi asko erderaz esateko gogo...baina euskera *dominetan* dotenez eta danez nire ama-hizkuntza, ba eneban ozotopo handirik ikusten. Iguale nire burue ikusten nauen apur bat arraro, baina ez...

- **Baina oztopo linguistikoetaz gain, bestelakoren bat aurkitu izan dozu? Hau da, agian borrokarako gogorik ez duzunean eta euskera-erdera-euskera elkarrizketa bat mantendu behar izatea...**

Oin nauenien berba eiten nonogaz eta konfiantzazkoa bada, erderarazko joera badeko eskatzen dotzet euskeraz berba eiteko, mesedez, ze badaki. Baina hasieran igual pertsona batzuz osoko deseroso sentitzen nintzen euskeraz berbetan sentitzen nabelako ez dabela %100ean kontrolatzen. Oin be dekotaz pertsona batzuk nahiz ta jakin euskera dakiela, eurgaz erderaz eiten dot.

- **Baina pertsona horrek ulertzen dabie euskera?**

Bai, baina sentitzen naz eurentzako traba bat moduen. Eurek ez dabie ein berba euskeraz oin dala urte asko, eta oso *biolentue* da egoera, *fortzetan* eurek eiteko euskeraz. Azkenean hartu-emon bat ez bada oso konfiantzazkue, ez da batere eroso zu euskeraz ibiltea ta bestea erderaz.

- **Bueno, ta ia pausu hori emanda, euskaren alde egindako aldaketa horrekiko zelan sentitu zinen?**

Ba oso pozik, ze lehen igual prozesuaren hasieran nonok eiten bozten berba, joera zan gazteleraz erantzutea. Orain, berriz, igual nau Madrilen eta urtetan jate euskerie. Orduen hori oso barri ona da.

- **Eta orokorrean zer suposatu dau aldaketa horrek zuretzat?**

Ba nik uste dot izen dala nire benetako identidadan azalpena, igual ezkutaute egon dana azaleraztea. Egon naz erderaz hitz egitera inposaute eta esan dot ez eta urten da nire benetako *nia*, nire hizkuntza, ni nazena ondoen islatzen dauena.

- **Zure egunerokotasunean denda batera zoazenean, edo bankure, edo denadelakora, lehenengo hitza euskeraz da?**

Bai, beti.

- **Zure ustez euskera *guaya* da?**

Ez, ez da *guaya*. Ez dotzetelako zentzurik ikusten hizkuntza bateri *guay* adjektiboa jartzeari. *Guaya* da nire hizkuntza, erdera be *guaya* izen leike erdal hitzunen hizkuntza dalako ta euren da, azkenien beren identitate hori islatzen dauena da. Norberana *guaya*? Ba ez, nire gustokoena, baina *guaya* ez.

- **Ba badago jendea esaten duena euskara ez dala hitz egiten ez dalako *guaya*.**

Eztekolako berbarik *tipo, mazo, no catas* ta *está todo petau*? Ba badauz, zu sartu internetera ta holako aditz trinko *moloi* danak hor dauz. Hizkuntza bat ahal da moldatu holako kolokialtasun batera. Zenbat eta jende gehiauk erabili, holako hitz gehiauk sortuko direz. Azkenien ez dakizenak hitz horrek da ez dauelako mundu horretan. Zuk *guaytzat* jotzen dan hizkera hori sortu zeinke edozein hizkuntzatan.

**- Orduan, gai horretan sakonduz, zuk uste dozu euskeran gazte-hizkera bat dagoela?**

Bai, duda barik, gero ta gehiauk gainera. Erderazkoa baino askoz ere osasuntsuagoa ta naturalagoa.

**- Eta zure inguruan ikusten dozu gazte-hizkera hori ezagune dala?**

Hori inguruaren arabera da, inguru batzutan bai ta inguru batzutan ez. Orokorrean gazteleraz berba egiten dabenen artean ez.

**- Eta euskeraz hitz egiten dabienez artean gazte-hizkera hori bizia da?**

Erabili igual ez, baina badauela bai. Igual Gipuzkoan gehiauk erabiltzen da, ze bizkaiera baten momentuz igual ez dau hain egokitute hizkera hori. Baina, dana dala, ezagune bada, hor dau, gero norberaren hautue da erabili edo ez. Baina ezin leike esan ez dauenik.

**- Gai honi lotuta, nola ikusten dozu zure burua hemendik 10 urtera? Zure hizkuntza hautua zein izango da? Ze helburu duzu?**

Bardin segitzea espero dot, baina azkenean bide horrek esango dau. Euskaldunekaz harremantzen banaz ba euskeraz eingot, baina kanpora banoa ba igual familiagaz mantendukot euskera, edo ez. Baina nire buruegaz berbetan nabilenean behintzet espero dot euskeraz eitea.

## 5.2.2 Iraitz

- **Izen Abizenak:** Iraitz Menika
- **Adina:** 17
- **Jaioterria:** Abadiño
- **Bizilekua:** Abadiño
- **Ama-hizkuntza:** Euskara
- **Gurasoen ama-hizkuntza + Gurasoen jaioterria:** Biena euskara; Lemoa eta Durango
- **Beste hizkuntzak (noiz ikasia? haurtzaroan/nerabezaroan/gaztaroan/helduarooan):** Gaztelera haurtzaroan eta ingelesa nerabezaroan
- **Eskola eredu:** D eredu
- **Euskalduna labela (0-10?):** 9

Miriamek bezalatsu, 9 ez zen Iraitzek hasiera batean eman zuen erantzuna izan. 7 bat eman zion bere buruari hasieran. Kasu honetan ere, bere sentimendua beharrean, bere

ekintzak epaitu zituen elkarrizketatuak. Bere printzipio eta ekintzek guztiz bat ez egiteak sortutako erruduntasun horrek bere burua epaitzera eraman zuen elkarrizketatua. Kasu hauetatik ondoriozta genezake pertsona hauentzat identitatea eta hizkuntza bat datozela, euskara behar bestetan ez hitz egiteagatik bere burua gutxiesten baitute euskaldun bezala. Edo ez al da horrela? Agian euren burua nolabait erruduntzat jotzeak eramaten ditu jarrera hori izatera.

### Elkarrizketa

#### **- Zein da zure sentitzen dozun hizkuntza?**

Euskera

#### **- Eta zure hizkuntza moduan, zure egunerokotasunean gehien erabiltzen dozun hizkuntza da?**

Ez

#### **- Non bai eta noz ez?**

Etxean bai, baina gero lagunen artean ez; bueno, igual dau baten bat gure artean beti eiten dogule berba euskeraz, baina gauzenean beste batzuzagaz erderaz.

#### **- Ta zuk zergaitik uste dozu erabiltzen dozula erdera euskera baino gehiau lagunekaz?**

Baaa (*isilunea*), ba eztakit, igual *eske* askotan *zediduteozu* zuk moduen. Igual eurek badauz erderaz berba eiten ta zu euskeraz, azkenean nonok aldatu behar dau hizkuntza, bestela da nahiko *patetikoa* elkarrizketa. Eta beti *zediduten* dogu guk azkenean. Bestela ez dau arrazoirik...

#### **- Orduan zeintzuk esango zenuke direla euskera ez erabiltzeko motibazioak?**

Ba erdera berba eiten dauen jentea. Eurekaz egotean ta holan, azkenean aldatzen dozu *txipe* ta eiten dozu berba euren hizkuntzan.

#### **- Eta zu egoera horretan nola sentitzen zara?**

Aber ba niri gustauko jaten eurek bebai nonoz emotea zeuzer eta saiatzea euskeraz eiten berba, baina nik uste dot gauzela ia hain ohitute, ez dala arraroa, aldatzeozule konturatu barik hizkuntza.

#### **- Noizbait saiatu zara egoera hori aldatzen eta euskerari eusten?**

Bai, baina azkenean besteak denpora guztien erderaz eiten badau, ba azkenean etsi eiten dozu.

#### **- Eta erderara pasatu zaren momentu horretan, zerk eragin du aldaketa hori?**

Lagunen artean, gehienbat, ohitura. Momentuen ez dozu pentsetan ezebez, ikusteezu ta lelengo urtetan jatzune da erdera. Baina batzutan ezetzen ez dozun baten bategaz eiten dozu berba erderaz ta geratzen zara oso txarto ze berak erantzuten dotzu euskeraz.

**- Horrelako kasuetan, zeintzuk izan dira laguntzak? Adibidez, euskarara pasatzen saiatu zarenean eta lortu dozunean, zerk eraman zaitu erabaki horri eustera?**

Ze azkenean ez dozu zetan aldatu behar hizkuntza; ta gainera normalean erderaz eiten dabilenak berba ez dabilen aldatzen hizkuntza, orduen zegaitik ein biogu guk?

**- Etorkizunari begira, egoera horrekin jarraitzea espero dozu edo nola ikusten dozu kontua?**

Nik espero dot aldatzea hori, baina izen bida bi aldeetatik; bueno, izen ahal da eukitea elkarrizketa bat elebiduna, baina izengo zan arraroa. Baina, ez, espero dot aldatzea egunen baten.

**- Eta zuk intentzioa daukazu zerbait egiteko aldaketa horren bidean?**

Ba momentuz ezin dot imaginatu hori pasau ahal dala, ezin dot imaginatu nire kuadrilako batek ein dauela bere bizitza osoan berba erderaz, derrepente ni noiola beragaz euskeraz berba eiten ta aldatuko dauela. Orduen, momentu honetan ez dot pentsetan pasauko danik hori, baina gustauko jaten pasetea.

**- Guzti honekiko, zein da ingurukoengan ikusi duzun jarrera?**

Ba askotan igual esaten dabilen errespetu falta dala. Eurek beti esaten dabilen erderaz zegaitik ez dan eiten berba hori bada danok dakigun hizkuntza. Baina azkenean bera badoa ingeles kudrila batengana eingo dau ingelesez berba, bera saiatu biko da sartzen euren elkarrizketan. Ba euskeraz iguela, ez?

**- Eta zergaitik uste dozu zure ingurukoek ez dutela euskara erabiltzen?**

Ba gehienak igual familian erderaz eiten dabilenako. Baina badau jentea familian erderaz eiten dauena ta gero euskeraz. Azkenean igual ohiturak, nogaz urtetan zaren ta holan...

**- Zuk euskeraz gazte-hizkera bat dagoela esango zenuke?**

Nik uste dot hori dabilela galtzen. Normalean bazauz pertsona bategaz eiten berba ta gurozu esan espresio bat edo jentea pasetan da erderara. *Aunque sea* esateko hori espresioa, baina pasetan die erderara. Nik uste dot dabilela galtzen bastante, ze *insultoak* ta izeten direz erderaz, euskeraz berba eiten egon arren.

**- Zuretzat euskera guaya da?**

Bai. Ba eztaikit...askotan jentea pentsetan dau, bueno lehen behintzat, erderaz berba eitea zala *más de guay*, aber ez da *guay* edo ez *guay*; baina, azkenean, bada zure hizkuntza ta gustetan bajatzu ba...da guay.

**- Amaitzeko, nola ikusten dozu zure burua hemendik 10 urtera? Zein hizkuntza ohitura uste dozu izango dituzula?**

Espero dot izetea euskera, baina eske eztaikit. Nik gurot izetea euskera, baina ez dakit nogaz egongo nazen, ze jentegaz juntauko nazen...ta bueno, aber, espero dot aldatzea hori hizkuntzana, baina...eztaikit.

### 5.2.3 Rafa

- **Izen Abizenak:** Rafael Irigoien
- **Adina:** 39
- **Jaioterria:** Bilbo
- **Bizilekua:** Durango
- **Ama-hizkuntza:** Gaztelera
- **Gurasoen ama-hizkuntza + Gurasoen jaioterria:** Biena gaztelera; Iruña eta Elorrio
- **Beste hizkuntzak (noiz ikasia? haurtzaroan/nerabezaroan/gaztaroan/helduaroan):** Ingelesa nerabezaroan eta euskara zertxobait nerabezaroan eskolan + egun berrartu
- **Eskola eredia:** A eredia
- **Euskalduna labela (0-10?):** 9

Kasu honetan aipatzekoa da Rafak bere euskaldun sentimenduari 9 bat eman izana. Badirudi, beraz, hainbestetan eztabaidatu dugun *identitatea vs. hizkuntza* kontu hori ez dela ezinbestean bat etorri behar. Etxetik gazteleraduna izanik eta gaztelerako eskola eredian ikasi arren, pertsona honek euskalduntzat du bere burua eta, ikusiko dugunez, horrek bultzatu du, beste gauza batzuen artean, euskara ikastera.

Elkarrizketara pasatu baino lehen, aipatu beharra dago hasierako akordioa galderak euskeraz egitea eta berak gazteleraz erantzutea zela. Hala ere, ia elkarrizketaren hasieran galderak gazteleraz egitera pasatu behar izan ginen horrek nahasmena sortzen ziolako euskaraz erantzuten saiatzen zelako. Azken finean, helburua bera ahalik eta erosoena sentitzea zen.

### Elkarrizketa

**- Zein da zure sentitzen dozun hizkuntza?**

Mi idioma es el castellano, pero creo que el euskera pues también forma parte de mi vida.

**- Eta gaztelera zure hizkuntza izanik, gehien erabiltzen dozun hizkuntza da?**

Bai

**- ¿Y utilizas algún otro idioma aparte del castellano en tu día a día?**

De vez en cuando hablo en euskera; a pesar de que no domino el euskera.

**- ¿Y cuándo fué tu primer contacto con el euskera?**

Empecé a estudiar euskera cuando iba al colegio de pequeño.

**- Bueno, ahora también estás estudiando euskera; entonces, ¿qué era para tí el euskera en aquel momento y qué pasó para que ahora decidieras que querías volver a estudiar?**

Pues cuando estaba en el colegio el euskera era una asignatura, era un obstáculo también que tenía que saltar; y ahora, sin embargo, veo el euskera como una oportunidad, como una herramienta y (*isilunea*) como algo necesario también.

**- ¿Pero cómo fue ese proceso desde que aprendiste euskera en el colegio hasta ahora? ¿Qué protagonismo ha tenido el euskera en tu vida en ese tiempo?**

Pues cuando estaba en el colegio, dabamos clases de euskera. Pero bueno, al final las clases tenían unas limitaciones. Después fuí a la universidad y el euskera desapareció de mi vida. Y luego cuando volví a vivir en Bizkaia, me di cuenta de que tenía que aprender. No solamente por necesidad laboral, sino por (*isilunea*) como reafirmación personal debería saber euskera.

**- ¿ Entonces, cuáles fueron las motivaciones que te llevaron a dar el paso?**

El trabajo, para comunicarme con aquellos clientes que hablan euskera, eso es una de las posibilidades. La segunda sería que, a pesar de no dominar el euskera, siempre he pensado que también era mi idioma; y, por eso, sentía la obligación de aprenderlo en la medida de mis posibilidades.

**- ¿ Y qué fue el detonante que hizo que te pusieras a ello?**

Quizás el detonante fue que en algunas situaciones del día a día no me sentía integrado por motivos lingüísticos; sí, me sentía desplazado en algunas situaciones.

**- Bueno, y ya cuando empezaste el proceso, ¿cuáles fueron los pasos que diste o las medidas que tomaste?**

Pues primero me apunté a la escuela de idiomas, eran cuatro días a la semana, dos horas cada vez, pero era muy lento y también tenía otras cosas que hacer. Entonces, a mitad de año, decidí dejarlo. Luego me apunté a unas clases que daba el ayuntamiento y también me pasó más o menos lo mismo: era muy lento y también tenía otras cosas que hacer. Y ahora me surgió esta posibilidad y doy clases 3 veces por semana, una hora y media cada vez.

**- ¿ Y cómo está siendo el proceso de emplear el euskera que estás aprendiendo en tu día a día? ¿ Cómo reacciona la gente?**

Sobre todo la gente que se da cuenta de ello se sorprende gratamente, la gente que habla euskera y ve que intentas hablar es algo que les parece bien.

**- En ese intento de cambiar tus hábitos, ¿qué dificultades te estás encontrando?**



La mayor dificultad que veo es que la gente con la que antes me relacionaba que sabía euskera, al verme hablar en castellano, hablarme ahora en euskera... no ven que me sienta cómodo hablando en euskera. Entonces, muchas veces me responden en castellano. Eso, sobre todo. También que en mi día a día, al vivir sólo, no tengo con quién practicar de forma continua.

**- Entonces, en tu día a día, ¿cuánto por ciento del tiempo dirías que utilizas el euskera? ¿Y, en qué situaciones?**

Un 25%. En el trabajo; cuando alguien me pregunta en euskera o se que habla euskera, intento mantener la conversación en euskera hasta que mis conocimientos me lo permiten; con mis amigos intento hablar en euskera; y a través de los mensajes del móvil siempre que puedo utilizo el euskera.

**- Entonces dirías que es buena la recepción de la gente que habla euskera normalmente hacia las personas que estan cambiando los hábitos.**

Sí, yo diría que sí.

**- ¿Y este cambio qué ha supuesto para tí?**

*(isilunea)* Diría que a nivel personal ha sido algo muy positivo porque de alguna manera he llenado un vacío que siempre he tenido y me siento de alguna manera realizado. También veo que, a pesar de tener casi 40 años, soy capaz de seguir avanzando y seguir aprendiendo nuevas cosas. Me doy cuenta que aprender un idioma agiliza la mente y hace que tengas más claridad de ideas.

**- Y, hablando del futuro, ¿cómo te ves respecto a este tema en unos años? ¿Te pones alguna meta?**

No me planteo las cosas de aquí a unos años, intento hacer todos los días lo que tengo que hacer. Y seguro que si hago las cosas bien, mi capacidad de manejar el euskera mejorará. Y esa es mi intención.

#### 5.2.4 Victoria

- **Izen Abizenak:** Victoria Robinson
- **Adina:** 26
- **Jaioterria:** East London
- **Bizilekua:** Arrasate
- **Ama-hizkuntza:** Ingelesa
- **Gurasoen ama-hizkuntza + Gurasoen jaioterria:** Biena ingelesa; Londres
- **Beste hizkuntzak (noiz ikasia? haurtzaroan/nerabezaroan/gaztaroan/helduaroan):** Frantsesa nerabezaroan, gaztelera nerabezaroan eta euskara gaztaroan(duela 6 hilabete hasi zen)

Victoriaren kasuan, konturatuko zineten moduan, galdera batzuk kendu dira. Izan ere, bera atzerritarra izanik, bere eskola ereduak ez digu ezer berririk esaten eta bere euskaldun sentimenduak ezta ere, 6 hilabete bakarrik baitaramatza Euskal Herrian. Dena dela, elkarrizketan bertan, ekarpen oso interesgarriak egin ditu, beste ikuspuntu batetik begiratzen baitio euskara eta Euskal Herriari.

### **Elkarrizketa**

#### **- Which is the language you feel yours?**

English and spanish I'd say. I feel really comfortable in spanish and english, both.

#### **- And those are the languages you use most?**

Yeah, definitely. I don't know if I feel like they are mine, I don't know if I have that...with english it's just because my family speaks english, but I'm happy to speak another language. I don't feel that I have to speak english or that I need to speak english.

#### **- And now, here in the Basque Country, which languages you use most?**

English, 'cause I work in english, and the I mix, I mix between spanish and basque, but I'm trying to speak more basque than spanish...but sometimes if I'm really tired or I don't understand something, then I use spanish.

#### **- And in which situations you use one or the other?**

Yeah, depending on the group. So, with Aitor's friends, like the *euskal natura* group, I feel like everyone speak in basque and I hate the idea that we have to change because of me. So I'm either more quiet and I just listen and I try to speak just basque. Then, with the friends here, even though they speak basque and sometimes I try to speak basque with them, they all speak spanish and that's what the group speaks. So I end up speaking spanish.

#### **- I suppose that you have seen that here if there is a group where only one doesn't know basque, everybody ends up speaking spanish.**

Yeah, and I get it with myself as well. Sometimes I try to speak and people can see that I'm struggling, so they switch and they start to speak in spanish. And even Aitor or people who know that I want to speak, I think they do it without thinking. And then I say "no, speak to me in basque, it will just take me more time". So, they know that 'cause we have had that conversation, but if you don't have that conversation I think people just switch.

#### **- When you came here and you saw our situation and all these issues with the language what did you feel?**

It's different, 'cause England is just one language, so everybody understands all the time. And...I'm quite happy with switching, I'm quite used to it 'cause I learn languages and speak

another languages. But the strange thing is when you have it within one family , so you are sitting at the table and two people are speaking in basque and the others are speaking in spanish, but everybody understands, whereas if you are not from here you don't understand the basque part.

**- And why did you decide to learn basque?**

It's completely ideological I suppose. I think it's the language from here so I think people should speak it. I can understand that some people didn't have the chance to learn it but I still think you should speak the language of the places that you are going to. I think it would be really sad if we just ended up with english, french, german and spanish, and arabic or spanish. It would be horrible. Maybe that's contradictory to teaching english, but I don't think so.

**- But it seems that's the direction if we continue this way.**

(...) I think there is a problem with the way we teach english, we have this idea that people have to just speak english and they are not allowed to mix, and mixing is normal. I'm happy for the children to use basque in class if it helps them to understand and we can translate. I think the other way that is being taught is not that way and there is, you have to speak english, and it's gonna have an effect on most of the languages.

**- Here, when you go to a shop, to the bank or wherever, how do they talk to you?**

If I speak first in basque, they normally reply in basque. But if they just see my face , I think they speak in spanish because they can see I'm a foreign. But I don't know, in Arrasate half and half 'cause some people just speak to you in basque.

**- Which difficulties do you find when you speak in basque?**

The verbs are hard. And I know the vocabulary, maybe I know all the words around the verb, but I don't know how to say the *NOR-NORI-NOR* thing. So, I get stuck (...)

**- So would you say that euskera is difficult?**

The verbs, specially the cases. But I don't think...you know, phonetically it sounds like it is written, so it's easier, the suffixes are quite logical, you can learn them and memorize them. But the verbs I find really difficult, but maybe because I speak languages that don't have these cases.

**- Did you find the same problems when you studied spanish?**

I just remember memorizing them in spanish, so hoping I could do the same with basque but the difficulty is this more. And the other thing is that they are said differently, so maybe I learn one form but then in another town they say it differently, so that makes it more difficult.

**- How did people around you react when they saw you were learning basque?**

I have two reactions: one is people thinking it's amazing like "buaaa ze onaa, euskeraz hitz egiten duzu!!", and then the other side is "why would you do that?" "why would you learn basque? that's useless". So I get different reactions.

**- Really? Who tells you that?**

Yeah, in class, in front of people, and I argue with them. Some of them are basque speakers and they think "why would a foreigner learn basque?" or they say it's too difficult or like "good like with that". It tends to be older people, but these generations say "buaa, that's really good" and they try to speak me in basque if they know I want to learn.

**- Do you think basque is *guay*?**

I think it's really cool. The kids here definitely love basque, if you ask children without any other prejudice, I say "basque oso zaila da" and they say "english is difficult! basque is easy!". You know, because they speak basque and it's their language. But then I think you get to adult and they start to say "ohh, it's really difficult". But people who have learnt basque say it's not too difficult.

**- What has meant to you to learn basque?**

It just means that I can actually participate in conversations with people in basque and it makes me feel happy, because if I go for example cycling with people we don't all have to speak in spanish, they can say things in basque and at least I understand. Even if I can't reply, maybe I reply in spanish, but at least it means I can understand. And I wanna keep learning, I'd like to be attached and speak to people, not just really simple conversations.

**- And will you continue learning? Which is your goal?**

As long as I'm here I wanna go to classes, I'd like to go to a *Barnetegi* but I don't have time. I want to keep going, I don't know what level I can get to but... hopefully as good as I can.

**- When did you know about the Basque Country? Do you think people abroad know about the Basque Country or the basque language?**

I knew something when I studied about minority languages at university. I think people know very little and talking to people from the *Euskal Etxea* in London was really interesting 'cause they had to had so many conversations with people. And I feel the same, I mean, I say to people "I'm living in the Basque Country" and they say "aahh, like Barcelona", "no, no, no, that's Cataluña" and then I say "they speak a different language there". Sometimes you explain it three or four times and people still won't listen(...).

**- How do you english feel about english being almost the most spoken language?**

I think people just get used to it. They go to another country and they just expect people to speak english. I find that really arrogant, that's my opinion. In lots of parts of England they don't understand the need of other people to keep their languages, but in London it's

different. There's a lot of different schools, minority language groups and yeah, London has that.

### 5.3 Elkarrizketen inguruko hausnarketa

Atal honetan, lau elkarrizketen inguruko hausnarketa egingo dugu, bakoitzeko puntu interesgarrienak aipatuz eta elkarrekin kateatuz. Miriam, Iraitz, Rafa eta Victoria; laurek dute esperientzia bat euskararekiko, bakoitzak berea baina puntu amankomunak dituztenak. Lau lagun hauek haien hizkuntza-ohitura aldaketan inguruan hitz egin digute eta lan honetan zehar agertu izan diren kontu asko aipatu dituzte. Hala nola, euskara ikasteko motibazioak, oztopo izan daitezkeen aitzakiak, euskaldunon "errespetua", identitatearen kontua eta jarraian komentatuko ditugun beste zenbait gai. Bestalde, oso interesgarriak izan dira Victoriaren ekarpenak, izan ere, bere ikuspuntu neutraletik gure aurreiritzi, haserre edo konplexuek ikusten uzten ez diguten hainbat gauza ikusi ahal izan ditugu.

**Miriamen** kasua aztertuz hasiko gara lerro hauetan. Berak aitortu digu bere ohiturak errotik aldatu direla azken urteotan. Nerabezaroan %5ean bakarrik erabiltzen zuen euskara, hori egungo %75arekin konparatuz gero, jauzi nabarmena egin duela ohartzen gara. Zeintzuk ziren nerabe zenean euskara hain gutxi erabiltzera eramaten zuten arrazoiak? Izan ere, gogoratu behar dugu Miriam etxetik euskalduna dela eta euskarako eremuan ikasi zuela. Hori horrela izanda ere, familiako kideren batekin, txakurrekin edo haurrekin bakarrik erabiltzen zuen euskara. Zergatik?

Esan dezakegu Iraitz aurkitzen dela egoera horretan bertan gaur egun. Beraz, agian Iraitz gaztelera erabiltzera bultzatzen duten arrazoiak dira Miriam iraganean eragiten zioten berak: ohitura, elkarrizketa elebiduna izatean naturaltasun eza, euskaldunok hain errotuta dugun "errespetua", taldean baztertuta ez sentitzeko nahia edo gazte-hizkera bat ez ezagutzea.

Orain, dagoeneko aipatu bezala, ia egoera guztietan darabil euskara Miriamek. Hala ere, kasu batzutan oraindik ez da oso eroso sentitzen euskaraz. Esaterako, etxean zenbaitetan nekea sentitzen du euskaraz ari eta amak gaztelera erantzuten dionean. Etxean egotearekin zerikusirik izango al du horrek? Hau da, kontutan izanik kalean gehienetan egoera hori erosotasunez onartzen duela, gakoa hemen etxea lasai egoteko gune bat dela izan liteke eta ez erresistentzia gune bat. Dena dela, honako hau hipotesi bat besterik ez da.

Bada, bestalde, deseroso sentiarazten duen beste egoera bat. Kalean ezagunekin elkartzean, konfiantza asko ez duen ezagunekin alegia, zaila egiten zaio hauei euskaraz hitz egitea hauek euskaraz egitera ohituta ez daudela badaki(nahiz eta ulertzen dutela jakin). Are gehiago, traba bat bezala sentitzen dela aipatu du. Euskaldunon "errespetua" dugu hemen, aurrez aurre. Traba bat? Eta ez al dira haiek traba bat beretzako gaztelera erabiltzeko behar badu?

Miriamen ohitura aldaketa prozesua ez zen oso ohikoa izan. Berak dioenez, goiz batean jaiki eta aurrerantzean euskaraz egitea erabaki zuen. Bere hitzetan, hasieratik naturaltasunez

hartu zituen euskara-erdera elkarrizketak, ez zitzaizkion deseroso suertatu, alegia. Egun, konfiantzazko norbaitekin badago, zuzenean eskatzen dio euskaraz hitz egin dezan. Victoriak ere aipatu du hori bere elkarrizketan, zenbaitetan euskaraz egin diezaioten eskatzen duela. Oso gauza erraza eta buruhauste asko ekiditeko aproposa da eskatzea, baina ez gaude batere ohituta gure nahiak eta desioak adierazten.

Elkarrizketa elebidunetan eroso sentitze horretan ez dira bat etorri elkarrizketatuak. Iraitzen kasuan, adibidez, hori izan da euskara ez erabiltzeko eman duen arrazoi nagusia, horrelako elkarrizketak *patetikoak* bezala identifikatuz. Rafaren kasuan, ostera, erosotasun eza beharrean, segurtasun eza nabarmenduko nuke. Izan ere, euskara ikasten aritzean, oraindik ez du Karmelo Ayestak beharrezko dela esaten duen asertibitate hori.

Baina zer gertatu zitzaion Miriami goizetik gauerako aldaketa hori gauzatzeko? Gaztaroan, bere identitatea finkatzean, erdera erabiltzea zentzubakoa iruditu zitzaiola esan digu. Bat-batean, ohartu zela ez zeukala ez hanka ez buru erderaz hitz egiteak bere ama-hizkuntza euskara izanik. Badirudi momentu hartan disonantzia hori orekatzeko beharra sentitu zuela. Bere identitatea finkatu zuenean, bere hizkuntza bat ez etortzeak ezinegon bat sortzen zion eta, ondorioz, gaztelera alde batera uztea erabaki zuen.

Aldaketa horren ostean oso pozik sentitu zela aitortu digu, bere benetako identitatearen azalpena edo ezkutuan zegoena azalratzea izan zela nabarmenduz. Badirudi, beretzat hizkuntza eta identitatea bat datozela, beraz. Ideia hau, ordea, kolokan jarri du Rafaren elkarrizketak. Izan ere, bera etxetik erdalduna izanik eta erderako eremuan ikasi arren, euskalduntzat du eta izan du beti bere burua.

Interesgarria iruditu zaidan esaldi bat honakoa izan da: “(...)egon naz erdera egitera inposaute eta esan dot ez eta urten da nire benetako nia(...)”. Alde batetik, identitatearekiko erlazio zuzena eta benetan indartsua aipatu beharko genuke eta, bestetik, erantzukizuna kanpora botatze hori. Inposaketa. Guk erabakitzen ez dugun zerbait.

Miriamen elkarrizketarekin amaitzeko, lan honetan lehenago aipatutako aitzakia bat deuseztatuko dugu hurrengo lerroetan. Euskara *guaya* da eta gazte-hizkera *moloia* dauka. Hizkuntza bat *guay* moduan kalifikatzeak zentzurik ez duela aipatu digu Miriamek, *guay* kontzeptu hori hutsa baita. Azken batean, zure hizkuntza gogokoena *guaya* izango da. Ikuspuntu hau adierazi du Iraitzek ere eta Victoriak, berriz, euskera oso *cool*-a dela esan digu. Beraz, alde batera utz ditzagun konplexuak. Nork dio euskara ez dela *guaya*? Edo izan behar duenik ere?

Gazte-hizkera badagoela aipatu digu eta gaztelerakoa baino askoz osasuntsu eta naturalagoa, gainera. Kontua da gazte-hizkera hori erabiltzen den eremuetan mugitzea. Izan ere, Iraitzengandik kontrako erantzuna jaso dugu, gazte-hizkera hori galtzen dagoela, alegia.

Sorgin-gurpil baten aurrean gaudela esan genezake: ingurune erdaldun baten gazte-hizkera ez dagoela pentsatu → euskara ez da *guaya* → euskaraz ez hitz egin → gazte-hizkera ez sortu → ez dagoela pentsatu → (...). Beraz, nola eraman gazte-hizkera ingurune ez euskaldunetara?

**Iraitzen** elkarrizketari dagokionez, euskara ez erabiltzeko arrazazoiak iruditzen zaizkit kontutan hartzekoak. Lehenago aipatutako “errespetua”, esaterako, pisu asko duen faktore bat dela dirudi. Gainera, ez da berak bakarrik pentsatzen duen zerbait, baizik eta erdaldunek beraiek esplizituki eskatzen duten zerbait. Hau da, guztiok gaztelera jakinda, zergatik euskeraz hitz egin?

Bestalde, elkarrizketa elebidun bat izateko naturaltasun eza ere inportantea da. Horrelako elkarrizketak *patetikotzat* jotzen ditu Iraitzek eta, beraz, besteek aldatu ezean, berak ez du euskaraz hitz egiten. Are gehiago, beretzat euskaraz ez hitz egiteko arrazoa gaztelera hitz egiten duen jendea bera da. Guztiz kanpoan kokatzen du erantzukizuna, beraz, ikus dezakegun moduan. Etorkizunean ohiturak aldatuko dituen galdetu zaionean ere, besteengan jarri du erantzukizuna. Hau da, besteek euskeraz egiten badute, orduan aldatu ahal izango ditu bere ohiturak.

Antza denez, momentu honetan ez du pentsatu ere egiten berak zerbait egin dezakeenik, euskaraz hitz egitea bere esku baino ez dagoela. Baina galdera hemen honakoa da: interesatzen al zaio? Agian nerabezaroan garrantzitsuagoa da taldeko kide izatea, atentzioa ez deitzea eta gehienek erabiltzen duten gaztelera hitz egitea. Nahiz eta euskara bere hizkuntza dela esan, nahiz eta egoera aldatu nahiko lukeela aitortu eta nahiz eta konturatu beti berak aldatzen duela hizkuntza besteek beharrean, oraindik ez du ohitura hori aldatzeko beharrik sentitzen. Izan ere, ez zaio deserosoa egiten gaztelera mintzatzea.

Hipotesi moduan bota genezake agian horren kausa bere identitatea finkatu ez izana dela. Hau da, oraindik ez ditu bere zutabeak zalantzan jarri Miriamek bere garaian egin zuen bezala. Beraz, gaztelera hitz egiteak ez dio ezinegon bat sortzen oraindik ez dituelako argi zeintzuk diren bere ideia/balore/printzipio eta horiekin bat etorri behar diren ekintzak.

Jarraitzeko, **Rafaren** elkarrizketan zentratuko gara. Elkarrizketa honek, arestian esan bezala, identitatea/hizkuntza binomio hori zalantzan jarri duela esan genezake. Izan ere, euskara beti bere bizitzaren parte bezala sentitu duela aitortu digu etxetik erdalduna den eta A ereduan ikasi duen iurretari honek. Beraz, nahiz eta orain arte euskera ikasten ez hasi, Rafa beti izan da ikasle potentzial bat, euskaldun potentzial bat, alegia. Ez al da gure helburua horrelako jendea erakartzea? Ez al gabilta horretan? Eta niri datorkidan galdera honako hau da: ez al gabilta jendeari atea izten *hizkuntza=identitatea* ideia hori defenditzean?

Nerabezaron eskolan ikasi zuen euskera Rafak, baina orduan gainditu behar zuen oztopo bat besterik ez zen beretzako. Badirudi etxetik erdaradunak diren askori hori gertatzen zaiela, hau da, eskolan euskara ikastea buruhauste bat besterik ez dela. Dena dela, esango nuke gauza bera gertatzen zaiela ingelesarekin. Baina maila berean al da? Ez al du euskarak oztopo bihurtzeko *plus* bat? Ez al dute aurreiritziek, prestigio txarrak eta bestelako faktoreek eragina sentimendu horretan?

Zorionez, hori aldatu egin zen denborarekin Rafaren kasuan. Orain euskara ikasten ari da eta honela definitu du elkarrizketan bertan: aukera bat, tresna bat eta beharrezko zerbait. Euskara ikasteko motibazioak instrumentalak eta integratzaileak izan direla esango genuke.

Alde batetik, bere helburua bezeroekin euskaraz hitz egitea da, baina baita bere buruari jarri dion erronka bat gainditzea ere. Berrespen pertsonala ere aipatu izan du, hau da, beti izan den zerbaiti forma emateko nahi hori. Gainera, aitortu digu euskara ikasi baino lehen baztertua sentitzen zela zenbait egoeratan, hizkuntza ez ulertzearen ondorioz.

Hori izan zen agian euskara ikastera bultzatu zuen arrazoi nagusia. Horrela, hasiera batean, hizkuntza eskolara joan zen, baina klaseak geldoegiak eta aspergarriegiak iruditu zitzaizkion. Ondoren, udaletxean eskainitako klase batzuetara apuntatu zen, baina bertan ere gauza bera gertatu zitzaion. Honen aurrean, akaso, hausnarketa bat egin beharko genuke euskara irakasteko dugun moduaren inguruan. Klaseak dinamikoak al dira? Parte-hartzaileak? Gramatika eta aditz formez gain, irakasten al diegu ikasleei euskaraz ondo pasatzen?

Orokorrean, Rafaren hitzetan, jendeak ondo hartzen du bera euskara ikasten aritzea. Dena dela, aitortu digu zaila egiten zaiola lehen erderaz hitz egiten zuen jendearekin euskaraz mintzatzea. Izan ere, besteak segidan pasatzen dira gaztelera zerbait esatea kostatzen zaiola ikusten dutenean. Bera deseroso egon daitekeela ikustean, jarraian uzten dute alde batera euskara. Zer da hori, lehen aipatutako “errespetua” ala pazientzia falta? Izan ere, euskaldun zaharrok oso pazientzia gutxi izan ohi dugu euskaldun berriekiko. Pentsatu al dugu inoiz horrek zein eragin izan dezakeen euskara ikasten ari den horrengan?

Rafaren kasuan, niretzako azpimarratzekoa da bere esfortzua, gogoia eta pertseberantzia. Ezaugarri horiek arrakastara eramane baino ezin dute egin. Gainera, lan honetan ikusi bezala, askoz ere errazago ikasten da hizkuntza bat motibazioak integratzaileak direnean instrumentalak beharrean. Orain arteko aldaketa, maila pertsonalean oso positibotzat jo du eta beti izan duen hutsune bat bete duela ere aipatu du. Eta zalantzarik gabe, ikasten jarraitzeko asmoa ere adierazi digu.

Hausnarketa honekin amaitzeko, **Victoriaren** elkarrizketa aztertzeari ekingo diogu. Lehen esan bezala, Victoriaren elkarrizketak gure errealitatea beste ikuspuntu batetik erreparatzea ahalbidetu digu. Londreseko gazte honek bi hizkuntza sentitzen ditu bere: ingelesa eta gaztelera. Puntu honetan jada geldialdi bat egin genezake datu hau aztertzeko. Gure artean ohikoa al da bi hizkuntza gure sentitzea? Badirudi euskaldunak garenok euskara *eta punto* dugula gure eta gaztelera direnek gaztelera *eta kitto*. Hau da, guk bizi dugun errealitatean gure energia eta indar guztiak gure sentitzen dugun hizkuntza hori defendatzen eman behar ditugula ematen du, *euskaldun vs. erdaldun* binomio hori gehiago elikatuz.

Horrekin lotuta, Victoriak komentatu digu berari ez zaiola inporta ingelesez ez hitz egitea, ez duela horretarako beharrik sentitzen. Gainera, hizkuntzak nahastearekin eroso sentitzen dela ere aipatu digu. Argi ikus dezakegu hemen bizi ditugun errealitateen arteko aldea. Ingelesek ez dute beraien hizkuntza defenditu edo laguntzeko beharrik, azken batean, jaun eta jabe dira. Guztiz desberdina da egoera gurea bezalako hizkuntza gutxitu bat dugunean, izan ere, honelako kasuetan gure hizkuntzaren alde egitea beharrezkoa da. Guk ez badugu egiten, nork egingo du?



Gazteleradunen jarrera ulertzea, ostera, zailagoa da. Victoriak argi eta garbi esan digu gorroto duela elkarrizketa batean besteek hizkuntzaz aldatu behar izatea beragatik. Badirudi, ordea, gazteleradunei hori guztiz normala eta batzuetan, Iraitzen laguneren kasuan bezala, egin beharreko zerbait iruditzen zaiela. Menperatzaile eta menperatuen errealitate honetan errespetuaren nozioa guztiz oker ulertu dugula iruditzen zait. Horregatik uste dut Victoriaren ikuspuntua guztiz interesgarria dela eta batek baino gehiagok entzun beharrekoa. Hori da errespetua ulertzeko modu egokia, alegia.

Rafaren kasuan bezala, Victoriarekin ere jendeak erraztasun handiz jotzen du gaztelerara kostata hitz egiten ari dela ikustean. Victoriak berak aitortu digu ez duela uste jendeak intentzio txarrez egiten duenik, horregatik, naturaltasun osoz bere desioak adierazteko ohitura hartu du. Egia esan, ez litzateke gaizki egongo guztiok hori egingo bagenu. Izan ere, bizi dugun errealitateak eragindako oharkabeko jarrera asko ditugu eta besteek sentitzen dutena imaginatu beharrean, galdetze hutsak gauzak asko hobetu litzake.

Bere ikasteko motibazioei dagokienez, motibazio guztiz ideologikoak aipatu ditu. Hemengo hizkuntza izanda, jendeak ikasi beharko lukeela esan digu. Badirudi hain gauza argi eta sinplea aurreiritzi, konplexu eta ezinikusien zurrumbilo horretan galtzen zaiela batzuei hemen.

Horrez gain, Victoriak hizkuntza gutxituen aldeko jarrera du. Bere hitzetan, oso tristea litzateke ingelesa, frantsesa, alemana eta erdara bezalako hizkuntzak bakarrik erabiltzea. Dena dela, norabide horretan goazela argi dago horrela jarraituz gero. Bere ustetan arazoetako bat ingelesa ikasteko dugun moduan legoke. Ingelesa bakarrik hitz egin behar dugula transmititzen da, ingelesa bere hortan, nahastu gabe, beste hizkuntzetatik ezer hartu gabe, ingelesa bakarrik balego bezala. Horrek, bere ustez, ondorio latzak izango ditu.

Euskara zaila den galdetzean, Victoriak hankaz gora jarri du hemen hain errotuta dagoen beste aitzakia bat. Aditzak ikastea kostatzen bazaio ere, euskara ez dela zaila esan digu. Izan ere, idazten den bezala ahoskatzen da eta atzizkiak logikoak eta ikasteko errazak direla aipatu du. Aditzak zailak iruditzen bazaizkio, horrelako sistemarik duen hizkuntzarik ez dakielako da, ez zailak direlako bere hortan. Burura datorkit momentu honetan euskaldunoi ere gustatu egiten zaigula euskara zaila dela esatea. Noiz barneratu genuen guk geuk hori?

Jendearen erreakzioari erreferentzia eginez, aipatu digu gehienek oso ondo hartzen dutela. Beste batzuek, aldiz, euskara ikasteak ezertarako balio ez duela esaten diote. Gazte euskaldunek "it's useless" bezalako kontuak aipatzen dizkiote. Nola izan daiteke hori? Dena dela, bere klaseko hurrek euskara maite dutela komentatu digu, nagusiagoak direnean hasten direla horrelako kontuekin. Nerabezaroan, alegia.

Badirudi, nerabezaroa une kritikoa dela euskarari dagokionez, bai Durango baten, bai Arrasate baten. Nerabezaroan umetako naturaltasun hori galtzen da, berezkotasun hori alde batera utzi eta nerabeak erduen bila hasten dira. Zoritxarrez, egun, nerabeei zuzendutako produktu gehienak gazteleraz dira eta gehienek komentatzen dituzten ekoizpenak ez dira euskaraz. Euskarazko produktuak bilatu egin behar dira, ez dute hainbeste oihartzun eta

horrek eragin zuzena du nerabeen ereduaren sorkuntzan. Behin oinarri hori izanda, beste faktore batzuk gehitzen doaz: taldeko partaide izan nahia, besteen gustu berak izan nahia, baztertua izateko beldurra, etab.

Hausnarketa honekin amaitzen joateko, Rafaren kasuan bezala, Victoriak ere motibazio ideologiko eta integratzaileak izateak ikaste prozesu hori askoz ere errazagoa bihurtzen duela aipatu behar dugu. Beraz, ez daukagu zalantzarik gazte ingeles hau gure arteko euskaldun bat gehiago izango dela uste baino lehen.

## 6. ONDORIOAK

---

Badirudi lan honen amaierara iritsi garela azkenean. Atal honetan, lanean zehar aipatu diren kontu guztien laburpena egiten saiatuko gara, gehien interesatzen zaizkigun ideia nagusiak bilduz. Lanaren hasieran planteatu ditugun hainbat galdera ere erantzun ahal izango ditugu orain ikusitako guztia aztertu eta gero. Hizkuntza-ohituren inguruko *brainstorming*a ere errekuperatuko dugu eta bere inguruan hausnartu. Gainera, lanaren atal teorikoa eta praktikoa bat datozen aztertuko dugu, hasieran aipatutakoa elkarrizketetan frogatu den baieztatuz. Beste barik, lan honetan zehar ikasi ahal izan ditugun hainbat kontu azpimarratzen hasiko gara.


Lanaren hasieran, ohiturek orokorrean eta hizkuntza-ohiturek lotura zuzena dutela ikusi genuen. Izan ere, hizkuntza-ohiturak ere ohiturak dira eta, beraz, modu berean funtzionatzen dute. Txikiak garenetik barneratzen ditugun ohitura guztiak guztiz errotuta daude gudan eta oso zaila da horiei buelta ematea. Hizkuntza-ohiturak, agian, errotuago dauzkagu beste ohitura batzuk baino, izan ere, hizkuntza gure bizitzaren parte oso garrantzitsua da. Hizkuntza bidailagun dugu bizi osoan zehar eta egunero eta uneoro erabiltzen dugu. Gainera, identitatearekin lotura estua du. Beraz, zentzu horretan, zailagoa suerta dakiguke hizkuntza-ohiturak aldatzea beste edozein ohitura aldatzea baino. Dena dela, lan honetan ikusi ahal izan dugu pertsona bakoitza mundu bat dela. Miriamen kasuan, adibidez, egun batetik bestera berreskuratu zuen euskara, gaztelera albo batera utziz. Beraz, baieztapenak egitean kontutan izan behar dugu hizkuntza-ohitura aldaketan prozesua bat eta bakarra dela pertsona bakoitzarengan, nahiz eta denek izan puntu amankomunak.

Ohitura aldaketak, gainera, ez dira beti norberaren erabakia. Lanaren lehenengo atalean ikusi genuen nola pertsuasioaren bidez pertsona baten jarrera aldatzea posible den. Mezu pertsuasibo horiek mota desberdinetakoak izan daitezkeela aipatu genuen: mezu emozionalak, mezu arrazionalak, beldurra sortzea helburu duten mezuak, etab. Ezin uka dezakegu azken hauek Euskal Herrian euskararen erabilera mugatzeko oso erabiliak izan direla urteetan zehar. Egun, agian, beste mezu mota bat erabiltzen da euskararen kontra egiteko, aurreiritzi eta informazio faltsuz hornitua, baina pertsuasio hori oraindik egon badago. Beraz, hizkuntza-ohiturei dagokienean, ezin ditzakegu ahaztu gure errealitatean ohitura aldaketak eragiten dituzten aldeko eta kontrako faktore guztiak.

Zehatzago esanda, konplexu, aurreiritzi, haserre, harrotasun eta gure errealitate gatazkatsuak sortu ahal izan duen beste edozein sentimenduz ari gara faktore horiek aipatzen ditugunean. Sentimendu horiek eramaten gaituzte alde batera edo bestera joatera eta badirudi planteatu ere ez dugula egiten bi aldeak bateragarriak izan daitezkeela. Victoriaren elkarrizketan argi ikusi ahal izan dugu hori. Berak ez du aukeratzeko beharrik sentitzen, berak aukera guztiak ikusten ditu aurrez aurre. Argi dago, ingelesa izanik, erraztasun guztiak izan dituela horrela pentsatu eta jokatzeko, baina guk ere hausnarketa txiki bat egin genezake. Konkretuki, *euskaldun vs erdaldun* dikotomia horretaz ari gara lerro hauetan. Azken finean, dikotomia hori zuzenean lotuta dago mezu pertsuasiboekin eta gatazka egoera batean ze aldetan zauden argi utzi horrekin.

Dena dela, jarrerak aldatzen ditugunean, ez da beti erraza izaten aldaketa horiek onartzea. Normalean, gure ideia/balore/printzipio eta gure ekintzen arteko oreka bat lortzen saiatzen gara. Horri buruz ere hitz egin dugu lan honetan zehar, disonantzia kognitiboaren teoriaz, alegia. Zertan datza? Bada, oraintsu esan bezala, gure jarrera edo jokabideren bat ez badator gure printzipioekin bat, ezinegon bat sentitzen dugu eta, moduren batean, hori orekatu beharra dugu. Beraz, bi aukera dauzkagu: edo gure ideiak gure jarreretara egokitu, edo gure jarrerak gure ideietara. Teoria hau errealitate bihurtuta ikusi izan dugu bai Miriamen kasuan, bai Rafaren kasuan. Hau da, beraiek euskaldun sentituta, hutsune bat sentitzen zuten haien baitan gaztelera hitz eginez gero, Miriamen kasuan, eta euskara ez ikasiz gero, Rafarenean. Horregatik ekin zioten aldaketari, haien baitan sentitzen zuten inkoherentzia eta, ondorioz, ezinegon hori konpontze aldera.

Lanaren bigarren atalean, Karmelo Ayestaren liburua izan da oinarri. Izan ere, liburu horretan Karmelok berak bere hizkuntza-ohitura aldaketa prozesua pausuz pausu kontatzen du. Aldaketa aurrera eramateko behar diren printzipioez hitz egiten digu, hala nola, motibazioa, integritatea, erantzukizuna eta asertibitatea. Elkarrizketetan argi ikusi dugu gure elkarrizketatuek, Iraitzek izan ezik oraindik prozesu horri ekin ez diolako, ezaugarri guzti horiek dituztela eta horrek arrakastara baino ezin dituela eraman. Bestalde, Ayestak aipatzen dituen borroka egoerak ere ezagunak egin zaizkie elkarrizketatuei: elkarrizketa elebidunak, euskaraz hitz egin nahi ez duen jendea edo euskaldun berrien aurrean gaztelera pasatzen diren euskaldun zaharrak. Borroka egoera horiei norbera txarto sentitu gabe aurre egiten jakitea da gakoa.



Aitzakien *TOPa* ere ikusi genuen liburua aztertzean. Zorionez, ikerketan egindako elkarrizketei esker, aitzakia horietako asko baliogabetu ahal izan ditugu. Adibidez, Victoriari euskara zaila den galdetzean, ezetz erantzun digu. Rafaren kasuan ere, gutxinaka baina

arazorik gabe hobetzen ari da bere euskara maila, inolako zailtasunik gabe. Bestalde, euskara *guaya* izatea zentzubakotzat jo dute elkarrizketatu gehienek. Hau da, zer da hizkuntza bat *guaya* izatea? Beraien ustetan, norbere hizkuntza norberarentzat gustokoena izango da, beraz norberarena da *guaya*. Argi eta garbi ondoriozta dezakegu kontzeptu hori euskarari kalte egiteko asmatutako zentzugabeko kontzeptu bat besterik ez dela, aitzakia bat finean.

Victoriak bere elkarrizketan aipatu zuen uler dezakeela euskara ikasteko aukerarik izan ez duen jendea egotea, baina hala ere, Euskal Herrian bizi den orok euskara ikasi beharko lukeela. Guztiz ados gaude adierazpen horiekin eta uste dugu Frankismo garaitik egundaino denbora nahikoa eduki dutela zenbaitzuk euskara ikasteko. Beraz, aitzakia hori ere baliogabetzat jo dezakegu.

Euskaldunak gutxi garela dioen aurreiritzia ere guztiz hankaz gora jarri genuen *Tribuaren Berbak* saioa aipatu genuenean. Badirudi uste baino gehiago garela eta, hori gutxi balitz, beste batzuen eredu ere bagarela. Beraz, konplexu hori ere uxatzeko unea iritsi zaigu.

Behin gure buruarekiko konfiantza hori berreskuratuta, lan honetan zehar aipatutako beste kontu interesgarri bat mahaigaineratuko dugu. Euskarak ba al du gazte-hizkerarik? Euskaltzaileen artean ere eztabaida sortzen duen gai bat da honakoa. Batzuek diote izan baduela eta arazoa erabileran dagoela, beste batzuek, ostera, ez dela behar beste egin gazte-hizkera bat sortzeko. Guk, jakitunei ez, baina gure elkarrizketatuei haien iritzia galdetu diegu.

Erantzunetatik ateratako ondorioa gazte-hizkera hori egon badagoela da. Hala ere, eremu euskaldunetan mugitzen ez diren gazteek ez dute ezagutzen. Egoera hau ondoen azaltzen duen sorgin-gurpila honako hau da: ingurune erdaldun baten gazte-hizkera ez dagoela pentsatu → euskara ez da *guaya* → euskaraz ez hitz egin → gazte-hizkera ez sortu → ez dagoela pentsatu → (...). Beraz, agian gakoa ez da gazte-hizkera garatzeko lan egitea, baizik eta egun dagoena eremu erdaldunetara eramán ahal izatea. Horrela, erabiliaz, berau joango da garatzen. Argi dago ez dela lan erraza, baina bada hausnartzeko moduko zerbait.

Ondorio honetan falta ezin den kontu bat euskaldunon *errespetu*arena da. Lanean zehar zenbait alditan agertu den gai bat da eta, Karmelok berak ere, behin baino gehiagotan aipatzen du bere liburuan. Horren inguruan esan beharreko guztia esanda dago dagoeneko. Badirudi bizi dugun errealitatean errespetuaren interpretazio okerra egin dugula euskaldunok, baina baita gazteleradunek ere. Ondorengo testua irakurriz gero, ez da ezer gelditzen gaineratzeke:

*“Gero [osabak] (...) Bahama uharteetara egin zuen bidaia kontatu zigun (...). Gizonak eta emakumeak, guztiak ziren eder askoak, begi handi-handiak zituzten guztiek eta batzuek baita berdeak ere. Bazindoazen kale espaloitik tikirritakarra eta, haietako bat aurrean ikusi baino lehen, espaloitik jaisten ziren pasatzen uzteko. Hasieran, osabak adeitasunaren eta edukazio onaren keinu bikaina zela pentsatu zuen, baina arreta handia jartzen zenez inguruan gertatzen zirenei, berehalaxe konturatu zen beti beltzek uzten zutela pasatzen, eta gainera soilik zuriekin egiten zutela eta ez euren artean; izan ere bi beltzek elkar aurkitzen zutenean espalo beretik joaten ziren arazo handirik gabe. Kontakizuna bukatu zuenean entzule denok*

*bat etorri ginen. Hura diskriminazio kasu nabaria zen bahamarrentzat, kanpotarrei sistematikoki lehentasuna eman behar baitzioten morroiak balira bezalaxe. Baten batek erantsi zuen: «Ene... han ere kanpotarrak nagusi». Horretan ari ginela, sumisio nazkagarri haren kontrako indignazioa konpartitzen, osabaren bilobetariko bat iritsi zen andregaiarekin, eta neskak adeitasunez agurtu gintuen: «Buenas noches.» (...) Hura iritsi arte zazpi katalan zeuden gelan. Orduetik aurrera, gelan sartzen zen edonork esango zukeen bederlatzi gaztelaniadunen aurrean zegoela, izan ere, harrezkero hitz egin zuten guztiek neska iritsi berriaren hizkuntzan egin zuten. Bi hitz aski izan zituen nire familiarren konbertsio linguistikoaren mirari hura eragiteko. Bitartean, osaba Enric, solasaren erritmoa galduta, hanketara begira zegoen, isilik, eta niri gogora etorri zitzaizkidan, auskalo zergatik, Bahametako beltz eder haiek.»*

**Bahamarren edukazio ona. Ferran Suay**

Karmeloren liburuarekin jarraituz, ezinezkoa da berau irakurri ostean zenbait egoeratan identifikatuta ez sentitzea. Euskaldun guztion eguneroko ogia dira berak aipatzen dituen borroka egoerak. Borroka horiek, gainera, kanpoko norbaitekin izateaz gain, geure buruarekin ere izaten ditugu maiz. Horregatik, oso garrantzitsua da EMUN bezalako kooperatiba batek egiten duen lana. Euskaraz nonahi, noiznahi eta edozeinekin gustora egin ahal izateko helburua duten tailerrak eskaintzen ditu EMUNek, bai enpresen munduan, bai orokorrean ere. Bestalde, tailerrez gain, liburuxkak, aholkuak edo, finean, euskaraz bizitzen lagunduko diguten tresnak ere eskaintzen ditu.

*Tribuaren Berbak* bezalako saioek ere, euskarari errekonozimendua eta duen inportantzia ematen dioten heinean, gure aipamen berezia merezi dute. Izan ere, barneratuta dauzkagun aurreiritzi eta ideia faltsuak uxatzen lagun diezagukete. Guzti horiek gugandik at uzten ditugunean, agian errazago egingo zaigu hizkuntza-ohitura aldaketan bidean aurrera egitea, pisu gutxiago eramango baitugu gainean.

Beraz, lana amaitzen joate aldera, berreskura dezagun hasieran planteatu genuen *brainstorming* hura: *Zer dira hizkuntza-ohiturak? Nola gureganatzen ditugu? Zein esanahi dute guretzat? Gure identitatearen parte al dira? Aldatzea posible al da? Zein kasutan da errazago aldatzea? Zein kasutan agertzen dira oztopo gehien? Zeintzuk dira oztopo horiek? Nola gainditu ditzakegu? Zein dira, bestalde, aldaketa hauetan laguntzen gaituzten faktoreak? Zerk bultzatzen gaitu aldaketa horiek egitera? Nola aldatzen gaitu aldaketa horiek egiteak? Gure identitatea aldatzen al da? Zeintzuk dira hizkuntza-ohiturak aldatzera garamatzaten motibazioak?*

Bada, ikusi ahal izan dugun bezala, hizkuntza-ohiturak txiki-txikitatik barneratzen ditugun ohiturak dira, beste edozein ohitura bezala funtzionatzen dutenak. Errepikapenez barneratzen ditugun jokabideak dira, guran guztiz errotuta daudenak. Hizkuntzarekin zerikusia dutenez, lotura hori estuagoa izan daiteke eta, beraz, aldaketa zailagoa. Hizkuntza-ohiturek gure identitatearekin lotura zuzena dute, baina kontuz ibili behar gara *hizkuntza=identitatea* ideia defendatzean. Izan ere, gurea bezalako errealtate gatazkatsuan, askotan ekuazio hori ez da betetzen, Rafarekin baieztatu ahal izan dugun moduan. Horregatik kontuz ibili behar gara jendea gugandik eta euskararengandik aldendu nahi ez badugu. Argi dago hizkuntza-ohitura aldaketei ekiten diegunean, oztopoak aurkituko ditugula. Hala nola, ulertzen ez gaituen jendea,

desmotibatzen gaituen jendea, euskaraz hitz egin nahi ez duena, geure burua bera, nekea, etab. Oztopo hauek izango ditugula alde zurretik onartu eta aurre egiteko prestatu behar gara. Motibazioa, asertibitatea, erantzukizuna eta integritatea bezalako tresnak izango dira gure bidailagun. Gainera, entrenatu ere egin beharko gara, egoera sinpleetan lehenengo pausuak emanez, gerora pausu handiagoak eman ahal izateko. Gure motxila arinago bihurtzeko aukera ere badugu gure konplexu, aitzakia, aurreiritzi eta bestelako sentimendu kaltegarriak gugandik urruntzen baditugu. Lan honetan zehar, hori egin ahal izateko hainbat pisuzko arrazoi aurkitu ahal izan dituzu. Gure printzipioekin bat datorren helburu zehatz bat izateak ere asko lagunduko digu bidaia horretan. Pausu hauek jarraituz gero, helmuga uste baino hurbilago egon ohi da.

Ez dago inor bidearen amaierara iritsita zoriontsu sentitu ez dena. Azken finean, helburu bat jarri eta bertara iristeak asebetetze sentazio bat ematen du, hutsune bat bete izanaren sentazioa. Zure printzipio/ideia/baloreak zure ekintzekin bat datozela ikustea ezinbestekoa da barne harmonia bat lortzeko eta, finean, zure buruarekin gustura sentitzeko.

Beraz, zure burua aldaketa baten beharrean sentituz gero, utz itzazu aitzakiak alde batera eta has ezazu bidea! Izan ere, norbaitek esan zuen bezala, *zerbait egiteko erabakia hartzen dugun bezain pronto, agertzen dira aldaketa aurrera eramateko behar ditugun baliabideak.*



## 7. BIBLIOGRAFIA

---

### LIBURUAK:

- AYESTA, Karmelo (2014). *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia*. Arg.: Utriusque Vasconiae.
- BAKER, Colin (1992). *Attitudes and language*. Clevedon; Philadelphia; Adelaide: Multilingual Matters.
- ETXEBARRIA SAGASTUME, F. (2003). *Hizkuntzaren psikopedagogia*. Usurbil (Gipuzkoa), Arg.:Elhuyar.
- PERLOFF Richard M. (1993). *The dynamics of persuasion*. L. Erlbaum.
- RYAN, M.J. (2006). *This year I will...: how to finally change a habit, keep a resolution or make a dream come true*. USA, Broadway books.
- ZIMBARDO Philip G. & LEIPPE Michael R. (1991). *The Psychology of Attitude Change and Social Influence*. McGraw-Hill

### ARTIKULUAK:

- KELMAN, H.C. (1958). Compliance, identification, and internalization: Three processes of attitude change. *Journal of conflict resolution*, 2, 51-60.
- MOYA, M. (1999). Persuasión y cambio de actitudes (154. or.) in F. MORALES, C. HUICI (coord). *Psicología Social*. (2000) 153-170. Madrid. Ed. UNED.

### HIZNET:

- AMONARRIZ, K. (2014-2015). *Gazteen euskara erabilera, hizkuntza kalitatea*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.
- AMORRORTU, E. (2014-2015). *Erdaldunen euskararekiko jarrerak*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.
- JUARISTI, P. eta BARREÑA, A. (2014-2015). *Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.
- MARTINEZ, Z. (2014-2015). *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.
- OLASO, O. (2014-2015). *Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.



- Foroak. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.

#### **LIBURUXKAK:**

- *Tribuaren berbak, atalen laburpena* (2015). Orio produkzioak eta EITB.
- *Zer egin...? Euskaraz egiterakoan egunero sortzen zaizkigun egoerei aurre egiteko lagungarriak* (2010). EMUN, Lana Euskalduntzeko Kooperatiba.

#### **WEB ORRIAK:**

- <http://www.lantalan.com/motibatu-topaketa>
- <http://telptailerrak.com/>
- <http://www.emun.eus/>

#### **TRIBUAREN BERBAKEKO SAIOAK:**

- <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak/2832983980001/2835305145001/euskararen-tamaina/>
- <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-1go-denboraldia/2832983980001/3005079984001/urte-berri--asmo-berri/>
- <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-2-denboraldia/3846431703001/3847873540001/zergatik-da-garrantzitsua-euskara/>
- <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-2-denboraldia/3846431703001/3880220809001/euskara-ikasteko-hamaika-bide/>
- <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-2-denboraldia/3846431703001/4004700623001/eredu-ere-bagarelako/>